



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko martxoaren 15a

34. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa. Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).
- Foru Lege proiektua, ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa. Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsitako irizpena (6. or.).
- Toki Inbertsioen Plana arautzen duen Foru Lege proiektua. Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsitako irizpena (47. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu publikotik amiantoa kentzeko protokoloa presta dezan. Osasun Batzordeak onetsia (83. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren erabakia, zeinaren bidez izendatzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa (84. or.).
- Nafarroako Parlamentuak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) izendatu beharreko patronatukide bat hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epearen luzapena (84. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Foru Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa.**

### *LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 139.3. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Foru Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuaren irizpena, Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsia. Foru lege proiektu hori 2022ko urtarrilaren 26ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Aipatu irizpenari buruz zilegi izanen da zuzenketei eta boto partikularrei eustea 2022ko martxoaren 16ko 12:00ak arte.

Iruñean, 2022ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **IRIZPENA**

Lurralde Kohesiorako Batzordeak 2022ko martxoaren 9an eta 11n egindako bileran onetsia.

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzekoa**

### **HITZAURREA**

Nafarroako Foru Komunitateak eskumena du toki ogasunei dagokien arloa arautzeko, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikulua araberera.

Konstituzioaren 142. artikulua ezartzen duenez, "toki ogasunek behar adinako baliabideak izanen dituzte legeak udalbatzei esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko eta, funtsean, beren tributuek eta Estatukoetan eta autonomia erkidegoetakoetan duten partaidetzaz hornituko dira".

Era berean, Toki Autonomiaren Europako Gutunak, 1985eko urriaren 15ekoak (Espainiak 1988ko urtarrilaren 29an berretsia), eskubidea aitortzen die toki erakundeei "behar adinako baliabide propioak izateko, eta haietaz libreki baliabideak izateko, beren eskumenak betetzean", eta adierazten du, halaber, finantza baliabide horiek Konstituzioak edo legeak aurreikusitako eskumenean araberakoak izan beharko dutela.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak toki ogasunei buruzko VIII. tituluan xedatzen duenez, 259. artikuluan zehazki, Nafarroako toki erakundeek beren eskumenak erabili eta beren esku utzitako helburuak bete ditzaten, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaizkie; Nafarroaren toki araubide berekiko gaia den aldetik, hala aurreikusten baitu Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.2 artikulua, baliabide horiek toki ogasunei buruzko foru lege baten bidez arautuko dira, hots, Konstituzioaren 142. artikuluan, lehen aipatutakoan, jasotzen den finantza nahikotasunaren printzipioari mamia emanez.

Horrez gain, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 260. eta 261. artikuluetan ezartzen da ezen toki ogasunen baliabide-iturriak izanen direla, besteak beste, beren tributu propioak eta Foru Komunitatekoetan eta Estatukoetan duten partaidetza.

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreforma-rako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak, besteak beste, aldatu zuen Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 2ko 2/1995 Foru Legearen 123. artikulua, eta hitzaurrean aipatzen du toki erakundeei finantzaketa egonkorra eman behar zaiela Nafarroako tributuak duten urteko parte-hartzearen bidez, bai transferentzia arruntei bai kapital-transferentziei dagokienez, eta toki finantzaketarako eredu berria ezarri, bat etorriko dena

printzipio hauekin: finantza nahikotasuna, aurrekontu jasangarritasuna, elkartasuna eta toki autonomia eta lurralde oreka.

Toki finantzaketarako eredu berri hori ezartzeko, lehenengo eta behin Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikulua aldatu beharra dago, agindu hori baita Nafarroako toki erakundeen finantzaketaren gaineko araudi orokorraren egiturazko oinarria; beraz, foru lege honen lehen artikuluen xedea da aipatutako aginduaren aldaketa.

Artikulu horren testu berrian, toki finantzaketarako eredu berri bat ezartzen da, bermatzen duena Nafarroako toki erakundeek Foru Komunitateko Ogasun Publikoaren tributu-sarreretan parte-hartzea, "Nafarroako toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa" izenekoaren urteko zuzkiduraren bitartez.

Funts horrek zenbateko finko bat izanen du urtean, transferentzia arrunten funtsaren eta kapital-transferentzien funtsaren bidez egituratua, gehi ekarpen osagarri bat, konpentsazio gisa ekonomia-jarduereen gaineko zergaren diru-bilketaren galeragatik.

Horrela, 2022. urtetik aurrera, bi funtsen zenbatekoak eta haien gehikuntzak finkatuta eta bermatuta geldituko dira Nafarroako toki ogasunei buruzko funtsezko arauan.

Ekitaldi bakoitzean, Nafarroako aurrekontu orokorre buruzko foru legeetan finkatuko da toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zuzkidurak egiten duen zenbatekoa, eta, horretarako, 123. artikuluen testu berrian xedatutakoarekin bat etorri eta hura bete beharko dute, funtsa osatzen duten zatietako bakoitzaren zenbatekoei dagokienez (transferentzia arruntak, kapital-transferentziak eta EJZaren diru-bilketan izandako galeraren konpentsazio gisa urtero jaso beharreko ekarpena).

Toki erakundeek Foru Komunitateko Ogasun Publikoaren tributu sarreretan duten parte-hartzeak, 123. artikuluan arautuak, ez du galarazten funtsari beste ekarpen batzuk egitea edo Nafarroako toki erakundeen finantzaketa gehigarria jasotzea, dela Foru Komunitateko Administrazioarena dela beste administrazio publiko batzuen.

Toki erakundeek Nafarroako tributu sarreretan parte hartzeko duten funtsa haien baliabide propioa denez, partaidetzakoa eta dirulaguntzaz bestelakoa, toki erakundeek jasotako funts horien itzulketa eskatzen bada, berandutze-interesak itzulketarako ezarritako epea mugaeguneratzen denean sortuko dituzte, eta ez ordainketatik aurre-

ra; itzultako diru-kopuruek toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren izaera izanen dute.

Izaera espezifiko horren arrazoia eta oinarria toki ogasunen parte-hartzerako funtsaren izaera juridikoan berean datza, zeinak frogatzen baitu euskarria Konstituzioan duela eta aitortza Nafarroako toki araubidearen oinarritzko lege instituzionaletan.

Toki erakundeek Nafarroako Foru Komunitateko Ogasun Publikoaren tributu sarreretan duten parte-hartzea bermaturik dago horrela, haren egituraz, zuzkiduraz eta arautzearen funtsezko alderdiez bezainbatean; izan ere, haren zenbatekoaren banaketarako bi foru lege onetsi behar dira gehiago soiluz, arau honen osagarri.

Alde batetik, Transferentzia Arrunten Funtsaren zenbatekoa banatzeko modua arautuko duen foru legea, banaketarako kontuan hartuz printzipio hauek: justizia, proportzionaltasuna, gizarte-kohesioa eta lurraldekoa, eta finantza nahikotasuna.

Bestetik, Toki Inbertsioen Planen bitartez kapital-transferentzietarako aurreikusitako zenbatekoa banatzeko modua arautuko duen foru legea, zeinaren helburu nagusia baita Foru Komunitate osoan nahitaezko udal zerbitzuak bermatzea.

Hiru foru lege horiekin finantzaketa egonkorra lortzen da eta, horri esker, Nafarroako toki erakundeak dagozkien toki mailako eskumen eta betebeharre aurre egiteko behar duten finantza nahikotasunaz hornitzen dira, elkartasun, tokiko autonomia, lurralde-oreka eta -kohesioaren printzipioak betez.

Bestalde, 2/1995 Foru Legearen beste agindu bat aldatzea ere beharrezkotzat jotzen da, toki erakundeen finantzaketari loturik ez dagoena, trazio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergen salbuespenei baizik.

Foru lege horren 160.1 artikuluko e) letraren bigarren ordinalaz ari gara; izan ere, horretan salbuespena ezartzen da ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonen izenean matrikulatuta dauden ibilgailuetarako, pertsona horiek, aurreko ezaugarriaz gain, defizit kognitiboa nahiz intelektuala edo nahasmendu mentala ere baldin badute.

Azken kontzeptu hori ulertzeko moduz sortu diren zalantzak direla-eta, foru lege honek araua aldatzen du, zehaztearren salbuespena aplikatuko zaiela ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonen, baldin eta funtzio mentalen urriti-

sunare ere badute, gutxienez ere jardueraren %25eko muga aitortzea dakarrena.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 20.2 artikuluan, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren Testu Bateginaren 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, foru lege hau onesteko gehiengo osoa beharko da.

### **Lehenengo artikulua.**

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikulua aldatzen da. Honako testua izanen du:

“123. artikulua.

1. Nafarroako toki erakundeek Foru Komunitateko Ogasun Publikoaren tributu sarreretan parte hartzeko bidea Nafarroako toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zuzkidura izanen da.

2. Nafarroako toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren urteko zuzkidura Transferentzia Arrunten Funts baten eta Kapital-transferentzien Funts baten bidez egituratuko da, urteroko ekarpen batekin osatuta, zeinak konpentsatuko baitu jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren erreformak diru-bilketan eragindako galera.

3. Transferentzia Arrunten Funtsaren zuzkidura 257.859.026 eurokoa izanen da 2022ko ekitaldian.

Hurrengo ekitaldietan, zenbatekoa izanen da aurreko ekitaldiko aurrekontuan Transferentzia Arrunten Funts gisa jasotakoa, gehi Nafarroako Foru Komunitateak aurreko ekainean daukan urterik urteko Kontsumoko Prezioen Indizean ezarritako zenbatekoa adinakoa, gehi ehuneko bi puntu.

4. Transferentzia Arrunten Funtsaren zenbatekoa banatuko da dagokion foru lege arau-emaeiak zehazten duen moduan, justiziaren, proportzionaltasunaren, gizarte- eta lurralde-kohezioaren eta finantza-nahikotasunaren printzipioen arabera.

Arau horretan jasoko dira Nafarroako toki erakundeak ordezkatzeko dituzten elkarte edo federazioentzako ekarpen ekonomikoak, noraino dauden finkatuta Foru Komunitatean.

5. Kapital-transferentzien Funtsaren zuzkidura 30.000.000 eurokoa izanen da 2022ko ekitaldirako.

Hurrengo ekitaldietan, zenbatekoa izanen da aurreko ekitaldiko aurrekontuan Kapital-transferentzien Funts gisa jasotakoa, gehi Nafarroako Foru Komunitateak aurreko ekainean dau-

kan urterik urteko Kontsumoko Prezioen Indizean ezarritako zenbatekoa adinakoa.

6. Kapital-transferentzietarako aurreikusitako zenbatekoaren banaketa eginen da toki inbertsioen planak arautzen dituzten foru legeetan ezartzen den moduan, eta horien helburu nagusia izanen da Foru Komunitateko esparru osoan nahitaezko udal zerbitzuak bermatzea.

7. Toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zuzkidura urteroko ekarpen batekin osatuko da, konpentsazioa izan dadin ekonomia jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz diru-bilketan izandako galera-gatik. Erreforma hori abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legearen bidez egin zen, zeinak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatu baitzuen.

Ekarpen horren zenbatekoa, banaketa eta bila-kaera zehazteko, bete beharko da lehen aipatutako 4. paragrafoan adierazten den Transferentzia Arrunten Funtsari buruzko foru legean horretarako ezartzen dena.

8. Ekitaldi bakoitzeko Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legean jasoko da toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zuzkidurak egiten duen zenbatekoa, bereizita transferentzia arrunten zatia, kapital-transferentziena eta EJZaren diru-bilketan izandako galera konpentsatzeko urteroko ekarpena.

Zenbateko hori gastu aurrekontuko kredituetan jasoko da, eta haiei kargatuko zaizkie kasuan kasuko toki erakundearen alde aitortzen diren ordainketa betebeharrak, aurrekontuaren beteazpeneko prozedura arruntekin bat.

9. Ekitaldi ekonomiko bakoitzerako ezarritako Transferentzia Arrunten Funtsaren eta Kapital-transferentzien Funtsaren zuzkidurak, ekitaldiko azken egunean betebeharren aitortza izan ez dutenek, gerakin atxikiaren izaera hartuko dute.

Atxikitako gerakin horrekin handitzen ahalko da hurrengo ekitaldietako kredituen zuzkidura, kreditu horiekin bete behar badira funts horri egotz dakizkiokeen aurrekontu betebeharrak.

Toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zuzkidurak gauzatzen diren aurrekontu kredituak handitzen ahalko dira, aurreko paragrafoan definitutako gerakin atxikiaren kargura, toki erakundeek eskatutako diru-itzulketetatik datozen sarreraren kargura eta izaera bereko beste kreditu batzuen kargura finantzatzu.

10. Nafarroako tributueta parte-hartzeak, artikulu honetan arautzen denak, ez du galarazten funtsari beste ekarpen batzuk egitea edo Nafarroako toki erakundeek finantzaketa gehigarria jasotzea, dela Foru Komunitateko Administrazioarena dela beste administrazio publiko batzuen.

Funtsari egiten zaizkion ekarpen gehigarriak ez dira kontuan hartuko hurrengo ekitaldietako Transferentzia Arrunten Funtsaren eta Kapital-transferentzien Funtsaren zenbatekoen gehikuntzak kalkulatzeko, artikulu honen 3. eta 5. apartatuetan araututa daudenak, hurrenez hurren.

11. Toki erakundeek Nafarroako tributu sarretan parte hartzeko duten funtsa partaidetzakoa eta dirulaguntzaz bestelakoa denez, toki erakundeek jasotako funts horien itzulketa eskatzen bada, berandutze-interesak itzulketarako ezarritako epea mugaeguneratzen denean sortuko dituzte, eta ez ordainketatik aurrera.

Eskatutako itzulketa horietatik datozen dirukopuruek toki erakundeek Nafarroako tributueta parte hartzeko duten funtsaren izaera izanen dute”.

#### **Bigarren artikulua.**

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 160.1 e) Bigarrena artikulua aldatzen da. Honako testu hau izanen du:

"Bigarrena. Funtzio mentalen urritasuna izatea, gutxienez ere jardueraren %25eko muga aitortzea dakarrena”.

#### **Xedapen gehigarri bakarra.**

Kontuan hartuz toki erakundeek eta Nafarroako Foru Komunitatearen eginkizunen banaketa, unean-unean indarra duena, eta banaketa horren ondoriozko finantzaketa beharrak, handituz edo gutxituz aldatuko dira Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluan jasotako zenbatekoak.

Hiru urteko gehieneko epean, foru lege honek indarra hartu eta bihamunetik hasita, Nafarroako Gobernuak toki erakundeek eskumen banaketa argitzeko proposamena igorriko du Parlamentura, bertan aurreikusirik, halaber, toki erakundeei esleitzen zaizkien eskumenetarako finantza nahikotasuna bermatzeko beharrezkoak diren baliabideen zuzkidura.

#### **Xedapen iragankor bakarra.**

2022an, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren (EJZ) erreformaren ondorioz haren diru-bilketan izandako galeraren konpentsazio gisa eman beharreko ekarpena 13.900.000 eurokoa izanen da.

#### **Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indargabetu egiten da Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legearen zortzigarren xedapen iragankorra.

#### **Azken xedapen bakarra.**

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den egunean bertan.

## **Foru Lege proiektua, ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa.**

### *LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 138. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa transferentzia arrunten bidez nola banatu ezartzen duen Foru Lege proiektuaren irizpena, Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsia. Foru lege proiektu hori 2022ko urtarrilaren 26ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **IRIZPENA**

Lurralde Kohesiorako Batzordeak 2022ko martxoaren 9an eta 11n egindako bileran onetsia.

## **Foru Lege proiektua, ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa**

### **AURKIBIDEA**

Hitzaurrea

I. titulua. Toki-erakundeek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa.

I. kapitulua. Toki-erakundeek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren arauaren helburua, izaera, zuzkidura, banaketa eta bilakaera.

1. artikulua. Arauaren helburua.

2. artikulua. Toki-erakundeek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa.

3. artikulua. Funtsaren zuzkidura.

4. artikulua. Banaketa eta bilakaera.

II. kapitulua. Finantzaketa Orokorreko Funtsa

5. artikulua. Definizioa.

6. artikulua. Finantzaketa Orokorreko Funtsa udalerrien artean banatzeko formula.

7. artikulua. Hasierako diru-esleipena udalerrri eta kontzejuetarako.

III. kapitulua. Zerbitzuak Finantzatzeko Funtsa

8. artikulua. Definizioa.

9. artikulua. Banaketa.

10. artikulua. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei lotutako banaketa.

11. artikulua. Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeei lotutako banaketa (0-3 urte).

12. artikulua. Nafarroako Liburutegien Sarean sartuta dauden udal-liburutegiei lotutako banaketa.

IV. kapitulua. Montepioen defizita Finantzatzeko Funtsa.

13. artikulua. Definizioa.

14. artikulua. Banaketa.

V. kapitulua. Lurralde Kohesiorako Funtsa.

15. artikulua. Definizioa eta helburuak.

16. artikulua. Oinarrizko printzipioak.

17. artikulua. Toki-erakunde onuradunak.

18. artikulua. Lurralde Kohesiorako Funtsa banatzeko formula.

VI. kapitulua. Transferentzia Arrunten Funtsaren behin betiko esleipena eta ordainketa.

19. artikulua. Berme klausularen aplikazioa udal eta kontzejuetarako.

20. artikulua. Katastroko balorazio txostenak gaurkotzea.

21. artikulua. Kontabilitateko informazioa ez bidaltzearen ondorioak.

22. artikulua. Ordainketa.

II. titulua. Konpentsazioa ekonomia-jardueren gaineko zergaren bidez bildutakoa murrizteagatik.

23. artikulua. Konpentsazioa diru-sarrerak galtzeagatik ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren eraginez.



#### 24. artikulua. Konpentsazioaren ordainketa.

Xedapen gehigarri bakarra. Funtzen mugimenduak, toki-erakundeek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren partidetan.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko gaikuntza.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

I. eranskina: Aldagaiak eta aplikazio-iturriak Finantzaketa Orokorreko Funtsa banatzeko formularen.

II. eranskina: Trakzio Gaitasunaren Indizea erazten duten aldagaiak.

III. eranskina: Trakzio Gaitasunaren Indizea kodezteza.

IV. eranskina: Trakzio Gaitasunaren Indizea udalerraren arabera.

V. eranskina: Izaera polizentrikoa duten udalerriak.

VI. eranskina: Trakzio Gaitasunaren Indizearen balio handiena duten udalerriak, Nafarroako Lurralde Estrategiaren azpieroemu bakoitzeko.

VII. eranskina: Udalerrak zentralitatearen araberrako kategoriatan taldekatuta.

VIII. eranskina Lurralde Kohesiorako Funttsaren udalerrri onuradunak.

IX. eranskina: 2022an udalerriek eta kontzejuek jaso beharreko gutxienerako zenbatekoak.

### HITZAURREA

Konstituzioaren 142. artikulua ezartzen duenez, toki ogasunek behar adinako baliabideak izanen dituzte legeak udalbatzei esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko eta, funtsean, beren tributuek eta Estatukoetan eta autonomia erkidegoetakoetan duten partaidetzaz hornituko dira.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumena du toki ogasunen arloan, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikulua araberan.

Era berean, Toki Autonomiaren Europako Gutunak, 1985eko urriaren 15ekoak (Espainiak 1988ko urtarrilaren 20an berretsia), eskubidea aitortzen die toki erakundeei "behar adinako baliabide propioak izateko, eta haietaz libreki baliabidezko, beren eskumenak betetzean", eta adierazten du, halaber, finantza baliabide horiek

Konstituzioak edo legeak aurreikusitako eskumenen araberrakoak izan beharko dutela.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak toki ogasunei buruzko VIII. tituluan xedatzen duenez, 259. artikuluan zehazki, Nafarroako toki erakundeek beren eskumenak erabili eta beren esku utzitako helburuak bete ditzaten, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaizkie; Nafarroaren toki araubide berekiko gaia den aldetik, hala aurreikusten baitu Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.2 artikulua, baliabide horiek toki ogasunei buruzko foru lege baten bidez arautuko dira, hots, Konstituzioaren 142. artikuluan, lehen aipatutakoan, jasotzen den finantza nahikotasunaren printzipioari mamia emanez.

Horrez gain, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 260. eta 261. artikuluetan ezartzen da ezen toki ogasunen baliabide-iturriak izanen direla, besteak beste, beren tributu propioak eta Foru Komunitatekoetan eta Estatukoetan duten partaidetza.

Beste alde batetik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen hitzurreak behin betiko finkatzen du Nafarroako Toki Ogasunen Funttsaren izaera, partaidetzazkoa eta dirulaguntzaz bestelakoa, Espainiako autonomia erkidegoen artean aitzindaria izan zen sistema bat ezarriz eta atzean utziz toki ordenamenduan ordura arte izandako toki ogasunen funtsen izaera, banaketa hutsera bideratua.

Aipatutako 2/1995 Foru Legearen 123. artikulua ezartzen du, batetik, Nafarroako toki erakundeek partaidetza izanen dutela Foru Komunitateko Ogasun Publikoaren zerga-sarreretan, toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zuzkiduraren bitartez, eta bestetik, funts horren urteko zuzkidura egituratzeko, transferentzia arrunten funts bat eta kapital-transferentzien funts bat ezarriko direla, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformak eragindako diru-bilketaren galera konpentsatzeko urteko ekarpen batekin ere osatuta.

123.3 artikulua xedatzen du ezen transferentzia arrunten funtsaren zuzkidurak 257.859.026 euroko zenbatekoa izanen duela 2022ko ekitaldirako eta, hurrengo ekitaldietarako, zenbatekoa aurreko ekitaldiko aurrekontuan transferentzia arrunten funts gisa jasotakoa izanen dela, gehituta aurreko ekaineko Nafarroako Foru Komunitatearen urtearteko KPI-Kontsumoko Prezioen Indizea gehi bi portzentaje-puntu.

Halaber, 4. apartatuak xedatzen du Transferentzia Arrunten Funtsaren zenbatekoa banatuko da dagokion foru lege arau-emaileak zehazten duen moduan, justiziaren, proporzionaltasunaren, gizarte- eta lurralde-koehesioaren eta finantza-nahikotasunaren printzipioen arabera.

Arau horrek ezartzen du, halaber, Nafarroako toki-erakundeak ordezkatzeko dituzten elkarte edo federazioei ere egiten zaizkiela ekarpen ekonomikoak, noraino dauden finkatuta Foru Komunitatean.

Aipaturiko 123. artikulua 7. apartatuak xedatzen du, halaber, toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zuzkidura urteroko ekarpen batekin osatuko da, konpentsazioa izan dadin ekonomia jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz diru-bilketan izandako galeragatik. Erreforma hori abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legearen bidez egin zen, zeinak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatu baitzuen.

Ekarpen horren zenbatekoa, banaketa eta bilakaera zehazteko, bete beharko da lehen aipatutako 4. paragrafoan adierazten den transferentzia arrunten funtsari buruzko foru legean horretarako ezartzen dena.

Ondorioz, bidezkoa da Nafarroako tributuetan toki-erakundeek parte hartzeko duten funtsaren banaketa arautzen duen foru legea onestea, transferentzia arrunten zatian, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikulua agindua betez.

Foru lege honek egitura hau du: hitzaurrea, bi titulu, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen. Gainera, bederatzirenskin ditu.

I. tituluak Nafarroako toki-erakundeek Foru Komunitateko tributu bidezko diru-sarreretan parte hartzeko duten funtsa arautzen du, transferentzia arrunten zatian ("Transferentzia Arrunten Funtsa" izenekoa); eta II. tituluak, berriz, ekonomia-jardueren gaineko zergan diru-bilketa galtzeagatik egiten den konpentsazioa.

Transferentzia Arrunten Funtsari dagokionez, I. titulua sei kapituluatan banatzen da. I. kapituluak haxe arautzen du: arauaren helburua, Funtsaren izaera juridikoa, zuzkidura, bilakaera eta banaketa.

Azpitarratu behar da lehenengo aldiz definitzen dela Funtsa Nafarroako toki-erakundeen baliabide propio gisa, partaidetzazkoa eta dirulaguntzaz bestelakoa, erabilera librekoa eta baldintzarik gabekoa.

Foru araudiak berariaz aitortuta tokiko finantzaketak baldintzarik gabeko izaera duela, urrats erabakigarria eta kualitatiboa ematen da 1985eko urriaren 15eko Toki Autonomiaren Europako Gutunaren 9. artikuluan xedatutakoa bete dadin, Nafarroako toki-erakundeen autonomia eta finantza-nahikotasuna babestuz eta indartuz beren eskumenak baliatzeko eta dagozkien helburuak betetzeko.

Gainera, Nafarroako toki-erakundeei aurrekari-rik gabeko egonkortasuna ematen zaie finantzaketan; izan ere, kontuan izanda Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluan xedatutakoa, bermatzen da Transferentzia Arrunten Funtsaren zuzkidura handituko dela Nafarroako Foru Komunitateak aurreko ekainean daukan urterik urteko Kontsumoko Prezioen Indizean 2022rako ezarritako zenbatekoa adina (257.859.026 euro), gehi ehuneko bi puntu.

Nafarroako aurrekontuei buruz urtero onesten diren foru legeak, beraz, aipatutako aginduan xedatutakoari egokitu beharko zaizkio, eta kontsignatu beharko dute foru lege honen 4. artikuluan adierazten den bilakaeraren arabera dago- kion kopurua.

Transferentzia Arrunten Funtsa 5 apartatutan banatzen da: Finantzaketa Orokorreko Funtsa, Zerbitzuak Finantzatzeko Funtsa, Montepioen Defizita Finantzatzeko Funtsa, Lurralde Kohesio- rako Funtsa eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziorako Laguntza.

Arauak 2022rako funtsaren zuzkidura eta bilakaera erregulatzen ditu, bai orokorra, lehen aipatutako 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluan xedatutakoaren arabera, bai hura osatzen duten zati bakoitzarena.

II. kapituluak Finantzaketa Orokorreko Funtsa arautzen du. Funts horren onuradunak udalak eta kontzejuak dira, eta aipatutako toki-erakunde- en finantza-nahikotasuna bermatzera bideratzen da, beren eskumenak gauzatu eta beren esku dituzten helburuak bete ditzaten, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 259. artikulua ezartzen duen bezala.

Toki-erakundeek Nafarroako tributuetan duten partaidetza banatzeko sistema, 2021eko ekitaldira arte aplikatu dena, urte hori barne, ez da eguneratu 2009tik. Urte hauetan zehar, zenbait akats antzeman dira, eta Finantzaketa Orokorreko Funts berriarekin zuzendu nahi dira.



Lehenik eta behin, aurreko formulak, bere egitura zela eta, balio negatiboak edo zero balioak sortzen zituen kasu batzuetan, udalerrri batek ahalmen fiskala handiagoa zuenean gastu-beharrak baino. Hari eutsiz gero, ukitutako udalerriek ez lukete parte hartuko Nafarroako Ogasun Publikoaren tributu-sarreraren banaketan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluan ezarritakoa urratuz.

Gainera, hainbat klausulak udalerrri eta kontzeju guztiei bermatzen zieten aurreko urtean jasotako zenbatekoa, KPIa gehituta, gehi diferentzial bat, eta horrek, aldi berean, ekarri zuen formulak ez funtzionatzea; izan ere, azken lau urteetan funtsaren % 1 baino ez zen banatu, Kontuen Ganberak 2019ko martxoko txostenean egiaztatu zuen bezala.

Berme-klausula horrek sortutako distortsioek kalte egin diete, batez ere, azken urteotan biztanle kopurua nabarmen handitu duten udalerriei.

Era berean, Iruña sartu da oraingo formularen kalkuluan, 2009an egindako formulak ez baitzuen udalerrri hori kontuan hartzen.

Proposatutako formula berria aurrekoaren eguneratzea da, Nafarroako Unibertsitate Publikoko talde berak egina, estatistika-metodoari jarraipena emanda eta ulertuta erakunde bakoitzaren finantzaketa-beharrak dela gastu-beharrak gehi bere gaitasun fiskalaren alderantzizkoa. Aldagaiak eguneratu dira, eta berriak sartu, eta horien haztapena berrikusi da.

Gastu-beharrak banaketaren % 75 hartzen du, eta gaitasun fiskalaren alderantzizkoak, berriz, gainerako % 25a.

Honako hauek dira gastu-beharrak adierazten dituzten bost aldagaiak: erakunde bakoitzeko biztanleria, hiri-lurzoru publikoaren hedapena, 65 urteko edo gehiagoko biztanleria, pobrezia-arriskuan dagoen biztanleria eta biztanleriaren sakabanatze-indizea. Berritasun gisa, zenbateko finko batzuk sartu dira udalerrri txikientzat.

Gaitasun fiskalaren alderantzizko indizeak % 25eko haztapena du; ehuneko horrek islatzen du indize horretan adierazitako baliabide arrunten batura, udal-gastu osoaren gainean.

Baliabide horiek, zehazki, honako hauek dira: hiri- eta landa-lurraren gaineko kontribuzioak, ekonomia-jardueren gaineko zerga, trakzio mekaniko ibilgailuen gaineko zerga eta ondasun higiezi-nerren errentengatikoko diru-sarrerak eta emakida eta aprobeixamendu bereziak.

I. tituluko III. kapituluak Zerbitzuak Finantzatzeko Funtsa arautzen du zerbitzu jakin batzuk ematen dituzten toki-erakundeak finantzatzeko tresna gisa, banaketa-modulu batzuk finkatuz.

Behin aztertuta haien kostua eta modulizazio gaitasuna prozedura estatistikoaren bidez, aipagarrienak hautatu dira, eta, zehazki, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak, Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak (0-3 urte) eta udal-liburutiak.

IV. kapituluak, bestalde, Montepioen Defizita Finantzatzeko Funtsa arautzen da: defizitaren banaketari lotutako finantzaketa da, aplikatu behar baita martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoaren montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzkoa.

Helburua da toki-erakundeek montepioen defizitetik ordaindu beharreko zenbateko osoa finantzatzea, barnean daudela montepio propioa dutenak, hala nola Iruña, Tuter eta Tafalla, jardunean dauden langileen soldata-masaren % 32 izan ezik.

Montepio orokorraren defizita finantzatzen jarraituko da jardunean dauden mendeko funtzionarioak eta administrariak dituzten toki-erakundeetarako, gainerako finantzazioa gainerako defiziten arabera banatuta, funts honetarako aurreikusitako zenbatekoa agortu arte.

V. kapituluak Lurralde Kohesiorako Funtsa arautzen du beren lurralde-eremuan trakzio-izaera nabarmena duten Nafarroako udalerrriak finantzatzeko tresna gisa, eta aitortzen du udalerrri horiek funtsezko zeregina dutela lurraldea egituratzeko orduan eta funtsezko ekarpena egiten dutela lurraldearen garapen jasagarriaren alde, zerbitzuak modu orekatuan eta solidarioan eskuratzeko aukera sustatuz.

Trantsizio bat da, eredu monozentrista batetik, zeinak Iruña bakarrik hartzen baitzuen kontuan, Hiriburutza Agirian jaso bezala, eredu polizentrista batera, zeinak garapen espazial orekatua ahalbidetzen baitu, Nafarroako Lurralde Estrategiak definitu zuena.

Lurralde Kohesiorako Funtsaren helburua da herritar guztien bizi-kalitateari eustea eta hura hobetzea, lurraldeen artean dauden desberdintasunak murrizteko, jendea bizi den lekua edozein dela ere.

Kohesio Funtsak bateratu egiten ditu Nafarroako Toki Ogasunen araudia erregulatzen duten printzipioak (justizia, proportzionaltasuna, gizarte-kohesioa, lurraldeen arteko oreka eta finantza-nahikotasuna) honako hauekin: irisgarritasuna,

kontserbazioa, lehiakortasuna, gizarte-kohesioa, polizentrismoa eta natura- eta kultura-ondarearen kudeaketa adimenduna, jasota daudenak Nafarroako Lurralde Estrategian eta aplikatzen direnak Nafarroako lurralde antolamenduko planetan eta Europako Lurralde Estrategian.

Horretarako, Nafarroako udalerri guztien Trakzio Gaitasunaren Indizea egiten da, kontuan hartuta zer-nolako zentralitatea, erakargarritasuna, lehiakortasuna, lurraldearen egituraketa eta harremanak sortzeko gaitasuna duten; ondoren, trakzio-izaera handiena dutenak hautatu eta kategorizatu egiten dira, Nafarroako Lurralde Estrategian definitutako azpieremuei lotuta.

Indize hori irizpide bat izanen da Kohesio Funtsa banatzeko; beraz, proportzionaltasuna eta objektibotasuna bilatuko dira.

I. tituluko VI. kapituluak Transferentzia Arrunten Funtsaren behin betiko esleipena eta ordainketa arautzen ditu.

Udalerriei behin betiko esleitzeko, deskribatutako funtsen formuletatik ateratzen den hasierako zenbatekoa kalkulatu ondoren, berme bat aplikatuko da, lurzoru-klausula bat, hain zuzen ere, 2022an 5.000 biztanle edo gutxiago dituzten udalerriei ordaindu beharreko zenbatekoak inoiz ez daitezzen izan 2021ean kontzeptu hauengatik jaso zirenak baino txikiagoak: transferentzia arrunten funtsa, udalbatzako kide-kopuruaren arabera ordainketa eta eskola-kontzentrazioen funtzionamendurako transferentziak.

5.000 biztanletik gorako udalerriek, bestalde, 2022an bermatuta izanen dute 2021ean aurreko paragrafoan zehaztutako kontzeptuengatik jasotako zenbatekoaren % 98, gehi Hiriburutza Agiriaren kontzeptuan jasotakoa, hala badagokio, eta kontzejuek, berriz, 2021ean jasotako zenbatekoa. Gehieneko muga toki-erakunde horiek urte horretan jasotako batez bestekoaren % 150 izanen da, biztanleria-tarteen arabera.

Jaso beharreko gutxieneko zenbatekoak % 1 igoko dira urtero, aurreko ekitaldian jasotakoan aldean.

Kontuan hartuta nolako eragina duen hiri-lurraldearen gaineko egungo kontribuzioaren ondoriozko sarreren haztapenak funtsaren banaketa sisteman, arauan aurreikusita dago udalerriek jaso beharreko zenbatekoak murriztuko direla, baldin eta ekitaldian eguneratu gabe badituzte beraien udal-mugarteetan aplikatzekoak diren balio katasralak, edo hasi gabe badute balio horiek berrikus- teko lege ezarritako prozedura.

Berritasun bat sartu da: toki-erakundeek ez badute bidali banaketaren aurreko bigarren urteko kontu orokorra edo aurrekontu-likidazioa, soluzio bakoitzean ordaindu beharreko zenbatekoaren % 10 atxikiko zaie, baina dokumentazio hori bidaltzeko unean atxikitako zenbatekoak ordainduko zaizkie.

Asmoa da pizgarria izatea, ez penalizatzailea; izan ere, ordainketan atxikipena da, eta ez Transferentzia Arrunten Funtsaren banaketaren ondoriozko zenbatekoaren murrizketa, eta ukitutako toki-erakundeek, hala badagokie, justifikatzen ahalko dute, behar bezala arrazoituz, ezintasun materiala dutela aipatutako betebeharra betetzeko.

Aurreikusita dago, orobat, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari laguntza ordaintzea, 2/1995 Foru Legearen 123. artikulua 4. apartatuaren azken paragrafoan xedatutakoa betez. Horren arabera, Transferentzia Arrunten Funtsa arautzen duen Foru Legeak ekarpen ekonomikoak jaso behar ditu Nafarroako toki-erakundeak ordezkatzeko dituzten elkarte edo federazioentzat, zenbateraino dauden ezarrita Nafarroako Foru Komunitatean, bat etorri Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeren 71. artikuluaekin, zeinak arautzen baitu toki-erakundeek eskubidea dutela federazio edo elkartetan elkartzeko, interes amankomunak babestu eta sustatzeko, baita lege horren 72.2 artikuluaekin ere, zeinak berariaz aurreikusten baititu laguntza ekonomiko horiek.

Ondoren, foru lege honen II. titulua, lehen aipatutako Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 123.7 artikuluan xedatutakoarekin bat, urteko ekarpenaren zenbatekoa, banaketa eta bilakaera arautzen ditu, konpentsazioa emateko ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondoriozko diru-bilketaren galeragatik. Erreforma hori abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak egin zuen, zeinaren bidez Nafarroako Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatu baitzen, eta horren arabera, salbuespen kasu berri bat ezarri zen 1.000.000 eurotik beherako negozio-zifren zenbateko garbia duten subjektu pasiboentzat (hau da, g) letra gehitzea Toki Ogasunei buruzko tributuen gaineko 2/1995 Foru Legearen 150.1 artikuluari).

Arauk, orobat, honako hauek ditu: xedapen gehigarri bakar bat (funtsak mugitzeari buruz toki-erakundeek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren partidetan), xedapen indargabetzaile bat, bi azken xedapen eta bederatzi eranskin, honakoak arautzen dituztenak: Finantzaketa Orokorreko Funtsa

banatzeko formulako aldagaiak eta aplikazio-itu-riak, Trakzio Gaitasunaren Indizea osatzen duten aldagaiak, Trakzio Gaitasunaren Indizearen kodifikazioa, Trakzio Gaitasunaren Indizea udalerrien arabera, udalerrri polizentrikoen zerrenda, Trakzio Gaitasunaren Indizearen balio handiena azpieren arabera duten udalerrien zerrenda, zentraltasunaren araberrako kategoriatan taldekatutako udalerrriak, Lurralde Kohesiorako Funttsaren onuradun diren udalerrriak eta toki-erakundeei bermatutako zenbatekoak.

## I. TITULUA

### Toki-erakundeek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa

#### I. KAPITULUA

### Toki-erakundeek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren arauaren helburua, izaera, zuzkidura, banaketa eta bilakaera

#### 1. artikulua. Arauaren helburua.

Foru lege honek arautzen ditu toki-erakundeek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren (transferentzia arrunten funtsa) zuzkidura eta horren urteko banaketa, bai eta urteroko ekarpena konpentsatzeko ekonomia jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz diru-bilketan izandako galera. Erreforma hori abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak egin zuen, zeinaren bidez Nafarroako Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatu baitzen.

**2. artikulua.** Toki-erakundeek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa.

Toki-erakundeek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa Nafarroako udalerrien eta kontzejuen baliabide propioa da, partaidetzakoa eta dirulaguntzaz bestelakoa, erabilera librekoa eta baldintzarik gabekoa, eta haien autonomia eta finantza-nahikotasuna aitortzen, babesten eta indartzen du.

Hala ere, finalistak izanen dira Montepioen Defizita Finantzatzeko Funtsetik toki-erakundeek funts hori finantzatzeko jasotzen dituzten ekarpenak.

#### 3. artikulua. Funttsaren zuzkidura.

1. Transferentzia Arrunten Funttsaren zuzkidura 257.859.026 eurokoa izanen da 2022ko ekitaldirako.

2. Hurrengo ekitaldietarako, zenbatekoa izanen da aurreko ekitaldiko aurrekontuan Transferentzia Arrunten Funtts gisa jasotakoa, gehi Nafarroako Foru Komunitateak aurreko ekainean daukan urterik urteko Kontsumoko Prezioen Indizean ezarritako zenbatekoa adinakoa, gehi ehuneko bi puntu, bat etorritz Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluan ezarritakoarekin.

#### 4. artikulua. Banaketa eta bilakaera.

1. Honela banatuko da 2022ko ekitaldirako Transferentzia Arrunten Funttsaren zenbatekoa:

– Finantzaketa Orokorreko Funttsa: 196.709.026 euro.

– Zerbitzuak Finantzatzeko Funttsa: 20.000.000 euro.

– Montepioen defizita Finantzatzeko Funttsa: 24.500.000 euro.

– Lurralde Kohesiorako Funttsa: 16.200.000 euro.

– Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziorako laguntza: 450.000 euro.

2. Zerbitzuak Finantzatzeko Funttsa, Lurralde Kohesiorako Funttsa eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziorako laguntza ekitaldi batetik bestera handituko dira, Nafarroako Foru Komunitateak aurreko ekainean daukan urterik urteko Kontsumoko Prezioen Indizean ezarritako zenbatekoa adina.

Urte batean negatiboa baldin bada Nafarroako Foru Komunitateak aurreko ekainean daukan urterik urteko Kontsumoko Prezioen Indizea, aurreko ekitaldiko zenbatekoei eutsiko zaie.

Montepioen Defizita Finantzatzeko Funttsa ekitaldi batetik bestera handituko da, Nafarroako Foru Komunitateak aurreko ekainean daukan urterik urteko Kontsumoko Prezioen Indizean ezarritako zenbatekoa adina, gehi ehuneko bi puntu.

Finantzaketa Orokorreko Funttsari gainerako zenbatekoa gehituko zaio, aurreko artikuluan adierazitako Transferentzia Arrunten Funttsaren gehikuntza osatu arte.

## II. KAPITULUA

### Finantzaketa Orokorreko Funttsa

#### 5. artikulua. Definizioa.

Finantzaketa Orokorreko Funttsa Nafarroako udalerrriak eta kontzejuak finantzatzeko tresna da, beren eskumenak gauzatu eta esleitu zaizkien helburuak bete ditzaten.

**6. artikulua.** Finantzaketa Orokorreko Funtsa udalerrien artean banatzeko formula.

1. Finantzaketa Orokorreko Funtsa (FFG) banatzean, kontuan hartuko dira udalen gastu-beharrak zehazten dituzten bost aldagai eta haien gaitasun fiskala zehazten duten lau aldagai. Lehenengoak, oro har, banaketaren % 75 dira, eta bigarrenak gainerako % 25a.

2. Bost aldagaien pisua honako formula honekin jasotakoa da:

$$\text{FFG} = \% 64,575 \times \text{POB} + \% 7,275 \times \text{SUP} + \% 1,875 \times \text{DIS} + \% 0,675 \times \text{P65} + \% 0,600 \times \text{PRP} + \% 25 \times \text{ICF}.$$

3. Hauek dira aldagai bakoitza banatzeko irizpideak:

– POB: biztanleria.

Hasieran, 30.000 euroko zenbateko finkoa esleituko zaie 1.000 biztanle edo gutxiago dituzten udalerriei, eta 25.000 eurokoa, berriz, 1.000 biztanle edo gehiago eta 2.500 biztanle edo gutxiago dituzten udalerriei.

Gainerako zenbatekoa esleitzeko, kontuan hartuko da udalerrri bakoitzak duen biztanleriak Nafarroako biztanleria guztiaren gainean osatzen duen portzentajea.

– SUP: erabilera publikoko hiri-azalera.

Esleitzeko, kontuan hartuko da erabilera publikoko zenbateko hiri-azalera daukan udalerrri bakoitzak, Nafarroa osoko erabilera publikoko hiri-azalaren gainean.

– DIS: biztanleriaren sakabanaketa-indizea

Esleitzeko, kontuan hartuko da udalerrri bakoitzak zer biztanleriaren sakabanaketa-indize daukan Nafarroa osoko indize horien baturaren gainean. Biztanlegune bakarria duten udalerriek ez dute esleipenik jasoko.

– P65: 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen haztapena.

65 urte edo gehiago dituzten biztanleen arabera esleituko da, udalerrri bakoitzeko zahartze-mailaren arabera haztatuta, Nafarroa osoko mota horretako biztanleak kontuan izanik.

– PRP: pobrezia-arriskuan dauden biztanleen haztapena.

Pobrezia-arriskuan dauden biztanleen arabera esleituko da, udalerrri bakoitzeko pobrezia-tasaren arabera haztatuta, Nafarroa osoko biztanleria horren batura kontuan izanik.

– ICP: gaitasun fiskalaren alderantzizkoa.

Gaitasun fiskalaren alderantzizkoa erlazio bat da, Nafarroako udalerrri guztien batez besteko per capita diru-sarreraren eta udalerrri bakoitzaren per capita diru-sarreraren artekoa, udalerrri bakoitzeko biztanleriaren eta Nafarroako osoko biztanleriaren arteko erlazioaren arabera haztatuta. Ondorio horietarako, gaitasun fiskala formula honen arabera kalkulatu da:

$$\text{GFA} = \% 56,872 \times \text{CT} + \% 10,877 \times \text{EJZ} + \% 19,27 \times \text{IVTM} + \% 12,980 \times \text{IPAC}$$

Azalpena:

CT: Lurraren kontribuzioaren kuota osoa, ehuneko 0,25eko tasa aplikatuz kalkulatu. Kuota kalkulatzeko, katastroko balioa erabiliko da, merkaturako balioetara egokituta balioak zuzentzeko koefiziente baten bidez, merkaturako balioetik zenbat urruntzen diren kontuan izanik.

IAE: Udalerrri bakoitzeko ekonomia-jardueren gaineko zergaren oinarri-kuota, ulertuta oinarri-kuota dela udal, lurralde eta nazio kuoten batura, udal errekarua kenduta.

IVTM: Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak udalerrri bakoitzean.

IPAC: Udalerrri bakoitzean likidatutako eskubi-deak, ondasun higiezinaren errentei eta emakida eta aprobetxamendu berezien produktuei dagozkienak (jasota daude Nafarroako toki-erakundearen aurrekontu-egituraren 54. eta 55. artikuluetan, eta egitura, berriz, irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuan).

4. Udalerrrien arteko banaketa kalkulatzeko behar diren aldagaien balioak foru lege honen I. eranskinean aipatzen diren iturrietatik lortuko dira.

Aldagai guztien erreferentziako urtea izanen da banaketa egiten den urteko maiatzaren 1ean udalerrrietako biztanleriaren datu estatistiko ofizialak daukan urtea.

Erreferentziako urterako daturik ez badago, informazio hori daukan urte berriena erabiliko da.

**7. artikulua.** Hasierako diru-esleipena udalerrri eta kontzejuetarako.

Aurreko artikuluan jasotako formula aplikatuz lortuko da udalerriei dagokien hasierako esleipena.

Kontzejuak dituzten udalerrietan, haiei esleitutako partaidetzatik zati bat kenduko da, eta kontzejuen artean banatuko.

Kontzeju bakoitzari dagokion hasierako esleipena kalkulatzeko, kasuan kasuko udalerrriaren partaidetza bider % 30 egiten da, eta hori berriz

ere bider kontzejuko biztanleen proportzioa, udalerriko biztanleria osoarekin alderaturik ateratakoa.

Gainerakoa udalerriri dagokion hasierako esleipena izanen da, Finantzaketa Orokorreko Funtsaren kontzeptuan.

### III. KAPITULUA Zerbitzuak Finantzatzeko Funtsa

#### 8. artikulua. Definizioa.

Zerbitzuak Finantzatzeko Funtsa udalerririk finantzatzeko tresna bat da, eta horretarako, banaketa-modulu jakin batzuk ezartzen ditu, lotuta daudenak honako zerbitzu hauen kudeaketari:

– Titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak.

– Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak (0-3 urte), titulartasun publikokoak, lankidetzaz hitzarmen bat sinatuta dutenak hezkuntza arloan eskumena duen departamentuarekin, bat etorritik martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuan eta Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduan ezarritakoarekin edo, hala badagokio, horiek ordeztzen dituzten edo aplikatu beharreko xedapenetan ezarritakoarekin.

– Nafarroako Liburutegien Sarean dauden udal liburutegiak.

#### 9. artikulua. Banaketa.

Honela banatuko da Zerbitzuak Finantzatzeko Funtsa:

– % 80, titulartasun publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeengatik.

– % 15, titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako lehen zikloko (0-3 urte) ikastetxeengatik.

– % 5, Nafarroako Liburutegien Sarean dauden udal liburutegiengatik.

**10. artikulua.** Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeei lotutako banaketa.

1. Titulartasun publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe bakoitzaren gastu-premiaren indizea kalkulatu da eskola-unitateen kopuruaren, ikastetxe bakoitzean matrikulatuta dauden bertako eta beste toki-entitate batzuetako ikasleen eta zerbitzu osagarriengatik gastuaren estimazioaren arabera, honako formula honi jarraituz:

$$IColegio = 0,1824 \times N^{\circ} \text{UnidEsc} + 0,0014 \times N^{\circ} \text{AlumMat} + 0,8162 \times \text{ServAux}.$$

2. Foru lege honetan xedatutakoari dagokionez, honako definizioak hartuko dira aintzat:

– IColegio: Ikastetxe bakoitzak banaketan duen indizea. Emaizta udalerrira multzokatuko da.

– N<sup>o</sup>UnidEsc: udalerriri bakoitzeko ikastetxe bakoitzeko eskola-unitateen kopurua. Hezkuntzaren alorrean eskumena duen departamentuak emandako datua, Funtsaren ordainketari dagokion urteko urtarrilekoa.

– N<sup>o</sup>AlumMat: ikasturtean udalerriri bakoitzeko ikastetxe bakoitzean matrikulatutako ikasleak. Hezkuntzaren alorrean eskumena duen departamentuak emandako datua, Funtsaren ordainketari dagokion urteko urtarrilekoa.

– ServAux: beste zerbitzu osagarri batzuetarako zenbatetsitako gastuak, hala nola ikastetxeen zaintzak eta mantentze-lanak, honako taula honen arabera:

Ikasleak	Unitateen kop.	Zerbitzu osagarrien kop.
1 eta 149 bitarte	<9	0.5
150 - 299	<16	1.0
300 - 449	<25	1.5
450 - 599	<31	2.0
600 - 749	<38	2.5
750 - 900	<50	3.0



Ikastetxe bakoitzean, zerbitzu osagarri gehien egozten duen aldagaia aukeratuko da.

3. Udalerrri bakoitzak Funtsak banatutako zenbatekoan duen partaidetza kalkulatzeko, bertako ikastetxeen gastu-premiaren indizea zehazten duen portzentajea erabiliko da, Nafarroa osoko indize guztiak kontuan hartuta.

4. Ikastetxearen gastuak kontzeju batek edo toki-erakunde tradizional edo elkarte-erakunde batek ordaintzen baditu, gastu-beharraren indizea, lehenengo kasuan, kontzejuaren udalerrriari egotziko zaio, eta bigarren kasuan, erakunde tradizionala edo elkarte-erakundea osatzen duten udalerriei, bat etorritz, bi kasuetan, horretarako hartutako erabakiekin, edo, halakorik ezean, biztanleriari erreparatuta.

5. Hezkuntza arloko eskumena duen departamentuak behar bezala justifikatutako eta arrazoitutako kasuetan, udalerrri batek funtzionamendugastuak ordaindu behar baditu bere ikasleak daudelako mugakide diren beste autonomia erkidego batzuetan dauden titulartasun publikoko ikastetxeetan, konpentsazioa jasoko du gastu horiengatik guztiengatik, Zerbitzuak Finantzatzeko Funtsaren kargura.

**11. artikulua.** Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeei lotutako banaketa (0-3 urte).

1. Titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako lehen zikloko (0-3 urte) ikastetxeen gastu-premiaren indizea zenbateko bat izanen da, hain zuzen, udalerrriaren ekarpen gisa ezarri dena hezkuntza arloan eskumena duen departamentuarekin sinatutako lankidetzak hitzarmenean (Funtsaren banaketa kalkulatzeko den urteko ikasturtean indarra daukan horretan), bat etorritz martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuan eta Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Aginduan ezarritakoarekin, edo, hala badagokio, haiek ordeztzen dituzten xedapenetan edo aplikatu beharrekoetan ezarritakoarekin.

2. Hitzarmena kontzeju batek edo toki-erakunde tradizional edo elkarte-erakunde batek sinatzen badu, gastu-premiaren indizea, lehenengo kasuan, kontzejuaren udalerrriari egotziko zaio, eta bigarren kasuan, erakunde tradizionala edo elkarte-erakundea osatzen duten udalerriei, bat etorritz, bi kasuetan, horretarako hartutako erabakiekin, edo, halakorik ezean, biztanleriari erreparatuta.

3. Funtsak banatutako zenbatekoan udalerrri bakoitzak daukan partaidetza portzentaje bat izanen da, hain zuzen Haur Hezkuntzako lehen zikloko (0-3 urte) ikastetxe bakoitzaren beharren indi-

zeak zehazten duena Nafarroako ikastetxe guztien indize guztien gainean.

4. Urtero, hezkuntza arloan eskumena duen departamentuak, urtarrilean, datuak emanen ditu toki-erakundeei dagokien ekarpenari buruz, kasuan kasuko ikasturterako sinatutako hitzarmenekin bat.

**12. artikulua.** Nafarroako Liburutegien Sarean sartuta dauden udal-liburutegiei lotutako banaketa.

1. Nafarroako Liburutegien Sarean dauden udal liburutegien gastu-premiaren indizea kalkulatzeko, kontuan hartuko dira liburutegi bakoitzaren metro karratuak eta zenbatetsitako liburuzainen kopurua, Nafarroako Gobernuak kontratatutako langilerik ez duten liburutegien kasuan.

2. Formula honen arabera kalkulatu da udalerrri bakoitzaren partaidetza:

$$PBiblioteca = 0,7421 \times m^2/m^2 \text{ guztiak} + 0,2579 \times \text{liburuzain kopurua/liburuzain guztiak}$$

Azalpena:

– PBiblioteca: Udalerrriak Funtsak banatutako zenbatekoan duen partaidetzaren ehunekoa.

– M2: udal-liburutegi bakoitzaren azalera, metro koadrotan. Kultura alorrean eskumena duen departamentuak emandako datua, Funtsaren ordainketari dagokion urteko urtarrilekoa.

– Liburuzain kopurua: Nafarroako Gobernuak langilerik ez duten liburutegietarako zenbatetsitako liburuzainen kopurua. Kultura alorrean eskumena duen departamentuak emandako datua, Funtsaren ordainketari dagokion urteko urtarrilekoa.

3. Liburutegiaren gastuak kontzeju batek edo toki-erakunde tradizional edo elkarte-erakunde batek ordaintzen baditu, gastu-beharraren indizea, lehenengo kasuan, kontzejuaren udalerrriari egotziko zaio, eta bigarren kasuan, erakunde tradizionala edo elkarte-erakundea osatzen duten udalerriei, bat etorritz, bi kasuetan, horretarako hartutako erabakiekin, edo, halakorik ezean, biztanleriari erreparatuta.

#### IV. KAPITULUA

##### Montepioen defizita Finantzatzeko Funtsa

**13. artikulua.** Definizioa.

Montepioen Defizita Finantzatzeko Funtsa tresna bat da, Nafarroako toki-erakundeei ordaindu behar dituzten udal-funtzionarioen montepioen klase pasiboen urteko kostu garbi osoa finantzatzeko, aplikatu behar baita Nafarroako administra-



zio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarria.

#### **14. artikulua.** Banaketa.

Honela finantzatu da udalerriek beren gain hartu beharreko udal-montepioen defizita:

1. Lehendabizi, montepio orokorraren defizita zehazteko organo eskudunak banaketa eginen du udalerrien artean, gaia erregulatzen duen araudia betez.

Funtsaren kargura finantzatu da, oso-osorik, jardunean dauden mendeko langile eta administrariengatik udalerrri bakoitzari egotzitako defizitetik ordaindu beharreko zenbatekoa, eta erakunde bakoitzari zenbateko bat deskontatuko zaio, jarduneko langile horien soldata-masaren ehuneko hogeita hamabiren balioidea dena, zeina udalerrriaren kargura izanen baita.

2. Ondoren, Funtsaren gainerakoa erabiliko da, proportzionalki, montepio orokorraren defizitetik udalek ordaindu beharreko zenbatekoa finantzatzeko (defizit hori biztanleria kontuan hartuta banatzen da), bai eta Iruñeko, Tuterako eta Tafallako udalek beren montepioetatik ordaindu behar dituzten zenbatekoak ere, bat etorritz martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin (foru lege horrek Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorra du hizpide).

3. Iruñeko, Tuterako eta Tafallako montepioen defiziten ondoriozko zenbatekoari kenduko zaio, udal bakoitzaren kontura izanen baita, jarduneko menpeko langileen eta administrariaren soldata-masaren ehuneko hogeita hamabi adinako zenbatekoa.

Zenbateko horiek jaso ahal izateko, Iruñeko, Tafallako eta Tuterako udalek ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, non zehaztuko baitituzte beren montepio-araubidean jardunean ari diren mendeko langileen eta administrariaren soldata-masak, aurreko ekitaldikoak.

Ziurtagiri hori urte bakoitzeko maiatza baino lehen aurkeztu beharko da toki administrazioaren eskumena duen zuzendaritza nagusian.

Epea betetzen ez bada, kontzeptu horretan inolako finantzaketarik jasotzeko eskubidea galduko da.

4. Montepioen Defizita Finantzatzeko Funtsean soberakinak badaude, Finantzaketa Orokorreko Funtza handitzeko erabiliko dira.

Montepioen Defizita Finantzatzeko Funtza nahikoa ez baldin bada, lehendabizi finantzatu da menpeko langileei eta administrariei dagokien montepio orokor guztiaren defizita, biztanleria kontuan hartuta banatzen ez dena.

Ondoren, toki-erakunde bakoitzaren ekarpenen arabera murriztuko da, Montepioen Defizita Finantzatzeko Funtsaren gainerako zenbatekoa banatzeko.

### **V. KAPITULUA** **Lurralde Kohesiorako Funtza**

#### **15. artikulua.** Definizioa eta helburuak.

Lurralde Kohesiorako Funtza beren lurralde-eremuan trakzio-izaera nabarmena duten Nafarroako udalerrriak finantzatzeko tresna bat da, eta aitortzen du udalerrri horiek funtsezko zeregina dutela lurraldea egituratzeko orduan eta funtsezko ekarpena egiten dutela lurraldearen garapen jasangarriaren alde, zerbitzuak modu orekatuan eta solidarioan eskuratzeko aukera sustatuz.

Haren helburua da herritar guztien bizi-kalitateari eustea eta hura hobetzea, lurraldeen artean dauden desberdintasunak murrizteko, jendea bizidun lekua edozein dela ere.

#### **16. artikulua.** Oinarrizko printzipioak.

Honako hauek dira Lurralde Kohesiorako Funtsaren oinarrizko printzipioak:

– Justizia, proportzionaltasuna, gizarte-kohesioa, lurraldeen arteko oreka eta finantza-nahikotasuna, Nafarroako toki ogasunak erregulatzeko dituen araudian jasotzen direnak.

– Irisgarritasuna, kontserbazioa, lehiakortasuna, gizarte-kohesioa, polizentrismoa eta natura-eta kultura-ondarearen kudeaketa adimenduna, Nafarroako Lurralde Estrategian jasotzen direnak eta aplikatzen direnak Nafarroako Lurralde Antolamendurako Planetan eta Europako Lurralde Estrategian.

#### **17. artikulua.** Toki-erakunde onuradunak.

1. Udalerrri onuradunak identifikatzeko, trakzio gaitasunaren indize bat prestatuko da, non faktore hauek aztertuko baitira Nafarroako udalerrri bakoitzeko:

a) Zentralitatea: udalaz gaindiko zerbitzuak edo ekipamenduak izateagatik, eta Lurralde Garaipeneko Ereduaren elementuak egoteagatik, erakusten dutenak herritarrek lurraldea erabili dezaketela.

b) Udalerrriaren erakargarritasuna eta lehiakortasuna, zerbitzu publiko eta pribatuen maileri dago-

kienez, eta jarduerak erakartzeko eta enplegua sortzeko gaitasuna, guneko herriak baino proportzio handiagoan.

c) Lurraldea egituratzea eta harremanak izateko gaitasuna: jarduera ekonomiko eta kulturalen aniztasuna ebaluatzen du, espezializazio- eta irisgarritasun-baldintzak kontuan hartuta (ulertzen da irisgarritasuna azpiegituretarako eta ezagutzarako sarbide baliokidea dela), Europako Lurralde Estrategiaren arabera.

Faktore horiek aztertuko dira eta puntuatuko dute foru lege honen II. eta III. eranskinetan zerrendatutako adierazle partzialetan bildutako aldagaien bidez, eta Nafarroako udalerrien Trakzio Gaitasunaren Indizea eginen da, IV. eranskinan jasota dagoena.

2. Nafarroako udalerrien Trakzio Gaitasunaren Indizea egin ondoren, izaera polizentrikoa dutenak hautatuko dira (V. eranskina), bai eta Nafarroako Lurralde Estrategian definitutako azpiero bakoitzean trakzio-indizearen handiena dutenak ere (VI. eranskina).

Azpiero horiek Lurralde Garapeneko Ereduaren elementuen emaitza espazialak dira, hau da, eremu funtzionalak dira, bizi-arroak edo udalaz gaindiko plangintza bateraturako eremuak, eta Estrategiaren beraren barruan eratzen dituzte toki-erakundearen artean dauden harreman funtzionalek.

3. Ondoren, kategorien arabera taldekatuko dira. Kategoria horiek polizentrismoa izanen dute garapen espazial orekatuaren erreferentziatza, eta udalerrri bakoitzak daukan zentralitatea eta trakzio-izaera islatuko dute (VII. eranskina), irizpide hauen arabera (irizpide horiek elkarren bazter-tzaileak izanen dira):

a) Erregioz gaindikoa: Iruñeari dagokio, garrantzi instituzional handiagoa duelako eta Nafarroa osorako zerbitzuak ematen dituelako, eta Nafarroako Foru Komunitatea nazioko eta nazioarteko sare ekonomiko nagusietan integratzen duelako, Nafarroako Lurralde Estrategiaren arabera.

b) Erregiokoa: Foru Komunitatearen bigarren mailako zentralitate nagusiak identifikatzen ditu, lurraldearen gobernantzari dagokionez eta lurraldea egituratzen duten azpiegitura, ekipamendu eta zerbitzuen hornidurari dagokionez. Horretarako, %50etik gorako puntuazioa izan beharko dute zentralitate-faktorean, zeina adierazle partziala baita Lurralde Garapeneko Ereduan eta Foru Administrazioan. Gainera, azken hamar urteetan 5.000 biztanle baino gehiago izan beharko dituzte batez beste.

c) Erregio azpikoa: Foru Komunitatean hirugarren zentralitate-maila duten udalerrriak, jarduerak edo zerbitzuak biltzen dituztelako eta udalaz gaindiko eremu espazialak antolatzen dituztelako. Puntuazioaren heren bat baino gehiago lortu behar dute Lurralde Garapeneko Ereduaren adierazle partzialean, zentralitate-faktorearen barruan.

d) Eskualdekoa: jarduera jakin batzuetarako erakargarriak diren eta hurbileko udalerrietarako trakzio-izaera duten udalerrriak, baina zentralitate geografiko txikiagoak. Gehieneko puntuazioaren % 25etik gorako puntuazioa lortu beharko dute Lurralde Garapeneko Ereduaren adierazle partzialean, eta lortutako gehieneko balioaren % 50etik beherako puntuazioa lortu Trakzio Gaitasunaren Indizearen (TGI) adierazlean.

e) Tokiz gaindikoa: dimentsio edo baldintza jakin batzuk dituzten udalerrriak, beren izaera soziogeografikoa agerian uzten dutenak, baina ondoko udalerrietan zentralitaterik ez dutenak. 1eko balioa izan behar dute, "polizentrismoa" aldagaian.

f) Tokikoa: gainerako udalerrriak.

Adierazitako irizpideak aplikatzearen ondorioz erregioaz gaindikoa, erregioak, erregio azpikoa eta eskualdekoa izanen dira toki-erakunde onuradunak, foru lege honen VIII. eranskinaren arabera.

**18. artikulua.** Lurralde Kohesiorako Funtsa banatzeko formula.

1. Lehenbizi, kategoria bakoitzaren tamaina kalkulatu da gainerakoekin alderatuta, erlazio matematiko bat eginez Trakzio Gaitasunaren Indizean lor daitekeen gehieneko balioaren eta kategoria bakoitzean lortutako gutxieneko balioaren artean.

2. Ondoren, udalerriko Trakzio Gaitasunaren Indizea arestian deskribatutako kasuan kasuko kategoriaren koefizientearekin zatitzen da, eta lortutako zatidura udalerriko biztanleriarekin biderkatzen.

Udalerrri bakoitzaren partaidetza izanen da udalerrri horrek erakunde onuradun guztien gainean duen pisu erlatiboari dagokiona.

3. Erregio azpiko eta tokiz gaindiko kategorietan dauden udalerrientzat, banaketako gutxieneko zenbateko bat ezartzen da, kategoria horietako udalerrien hasierako kalkuluaren batez bestekoa-ren baliokidea dena.

Ezarritako gutxienekoa ordaintzeko behar diren zenbatekoak proportzionalki kenduko dira erre-

gioaz gaindiko eta erregioko kategorietako udalerrien esleipenetatik.

## VI. KAPITULUA

### Transferentzia Arrunten Funtsaren behin betiko esleipena eta ordainketa

**19. artikulua.** Berme klausularen aplikazioa udal eta kontzejuetarako.

1. Transferentzia Arrunten Funtsaren hasierako esleipena egin ondoren, hura banatzen den funtsen ondoriozko zenbatekoak batuta, berme-klausula aplikatuko da eta erakunde bakoitzari dagokion behin betiko zenbatekoa zehaztuko da.

2. 5.000 biztanle edo gutxiago dituzten udalerriek 2022an jaso beharreko zenbatekoa, Transferentzia Arrunten Funtsaren hasierako esleipenari dagokiona, jardunean dauden mendeko langileen eta administrarien montepio orokorren defizita finantzatzeko zenbatekoa kenduta, ez da inolaz ere txikiagoa izanen 2021ean transferentzia arrunten funtsagatik, udalbatzako kideen kopuruaren arabera ordainketagatik eta eskola-kontzentrazioen funtzionamendurako transferentziagatik jasotakoa baino.

2022an, 5.000 biztanletik gorako udalerriek bermatuta izanen dute aurreko paragrafoan zehaztutako kontzeptuengatik 2021ean jasotako zenbatekoaren ehuneko 98, gehi, hala badagokio, Hiriburutza Agiriaren kontzeptuan ordaindutakoa.

3. 2022an, kontzejuek bermatuta izanen dute 2021ean Transferentzia Arrunten Funtsaren kontzeptuan jasotako zenbatekoa, hurrengo taulan ageri den gehieneko mugarekin, biztanleria kontuan izanda.

Kontzejuko biztanleria (Biztanleak)	Gehieneko bermea (euroak).
25, gehienez	4.971
26 - 50 artean	10.007
51 eta 75 artean	11.508
76 - 100 artean	17.151
101 - 150 artean	25.313
151 - 200 artean	29.488
201 - 500 artean	54.235
501 eta 1.000 artean	98.747
1.001 eta 2.000 artean	101.244
2.001 eta 3.000 artean	311.028
3.000 baino gehiago	431.429

4. Aurreko 2. eta 3. apartatueta kontuan hartu beharreko biztanleria izanen da 2021ean Funtsa banatzeko kontuan hartu zena.

5. Lehenago aipatutako bermeen arabera, udalerrri eta kontzejuek 2022an jaso beharreko gutxieneko zenbatekoak IX. eranskinean jasotakoak dira.

Gutxieneko zenbateko horiek urtero % 1 handituko dira aurreko ekitaldian jasotako gainean, salbu eta negatiboa denean Nafarroako Foru Komunitateak aurreko ekainean daukan urterik urteko Kontsumoko Prezioen Indizea; halakoetan, aurreko ekitaldiko zenbatekoei eutsiko zaie.

6. Baldin eta Funtseko partaidetza, udalerrri edo kontzeju bati hasieran esleitu zaiona, ez bada iristen aurreko apartatueta ezarritako zenbateko bermatura, behar diren kopuruak kenduko zaizkie hasiera batean esleitutako kopurua bermatutakotik gorakoa duten udalerriei eta kontzejuei, ekitaldian bermatutako zenbatekotik gora lortu dutenaren proportzioan.

7. Kontzeju edo udalerrriak aldatzeko prozesuek eragina dutenean banaketan kontuan hartu beharreko aldagaien balioetan, berriz kalkulatu da aldagaien zenbatekoa, banaketa gertatzen den uneko egoera administratiboari egokitzeko, betiere egoera administratibo horri buruzko datu ofizialik ez badago.

**20. artikulua.** Katastroko balorazio txostenak gaurkotzea.

Udalerrri bakoitzari dagokion zenbatekoa banatzean, katastroko balioak gaurkotu gabe dituztenei edo udal-mugartean aplikatu beharreko balorazio txostena berrikusteko prozesua indarreko legeriarekin bat hasi gabe dutenei %10 murriztuko zaie transferentzia arrunten kontzeptuan jaso behar duten guztizko zenbatekoa.

Murrizketa horiek proportzionalki banatuko dira Transferentzia Arrunten Funtseko behin betiko esleipena zera baino handiagoa dutenen toki-entitateen artean: urte bakoitzean bermatua den zenbatekoa, kanpo utzirik jarduneko administrazio-langile eta mendeko langileengatik Montepio Orokorreko defizitaren finantzaketari dagokion zenbatekoa.

**21. artikulua.** Kontabilitateko informazioa ez bidaltzearen ondorioak.

Erakunde batek igorri ez badu banaketaren aurreko bigarren urteko kontu orokorra edo aurrekontu-likidazioa, soluzio bakoitzean ordaindu beharreko zenbatekoaren % 10 atxikiko zaie. Atxikipen hori ez-betetzeak irauten duen bitartean

luza daiteke. Aipatutako dokumentazioa igorri z betebekar hori bete ondoren, atxikitako zenbatekoak ordainduko dira.

Baldin eta ukitutako toki-erakundeek behar bezala justifikatzen badute aipatutako betebekar hori ezin dutela bete, toki administrazioan eskumena duen zuzendaritza nagusiak funtsen atxikipena eteten ahalko du, egindako alegazioen arabera, osoko bilkurak edo ukitutako erakunde organo baliokideak eskaera egin ondoren.

## **22. artikulua.** Ordainketa.

1. Transferentzia Arrunten Funtsari dagozkion zenbatekoak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federaziorako laguntza barne, ekitaldi bakoitzean ordainduko dira, bi soluziotan: otsaila eta abuztua amaitu baino lehen, salbu eta jardunean dauden mendeko langileen eta administrarien montepio orokorraren defizitari dagokion zenbatekoa, hura bigarren soluzioan ordainduko baita osorik.

2. Lehen ordainketak aurreko ekitaldian jasotako zenbateko osoaren ehuneko berrogeita hamar izanen dira, kontuan hartu gabe jarduneko mendeko langileen eta administrarien montepio orokorraren defizitari dagokion zenbatekoa.

3. Bigarren ordainketa egin aurretik, urteko behin betiko esleipena kalkulatu da eta lehen soluzioan ordaindutakoa deskontatu ondoren ateratzen den zenbatekoa ordainduko da.

4. Udalerrien eta haien mugarteko kontzejuen artean sinatutako hitzarmenik badago, eta horrela ezarrita baldin badago hitzarmen horietan, sinaturiko hitzarmenean ezarrita dagoen entitateei ordaindu ahalko zaie, deusetan ukatu gabe toki entitate bakoitzari dagokion ekarpenaren zenbatekoa kalkulatzeko.

## **II. TITULUA**

### **Konpentsazioa ekonomia-jardueren gaineko zergaren bidez bildutakoa murrizteagatik**

**23. artikulua.** Konpentsazioa diru-sarrerak galtzeagatik ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren eraginez.

1. Udalerriek urteko ekarpen bat jasoko dute, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondorioz diru-bilketan izandako galera konpentsatzeko (erreforma abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legearen bidez onetsi zen, zeinak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatu baitzuen).

2. Ekarpenaren zenbatekoa urtero zehaztuko du ekonomia eta ogasun arloetan eskudun den departamentuak, ekonomia-jardueren gaineko

zergaren erregistroan aurreko zergaldiari buruz dauden datuetan oinarriturik.

3. Ekarpenaren zenbatekoa, 5.000 biztanleko edo gutxiagoko udalerrri bakoitzarentzat, zergaldi-ko tributu-kuoten ehuneko 100 izanen da, ekonomia-jardueren gaineko zergan jaso beharko zituztenak, salbuespenik egon ez balitz, negozio-zifraren zenbateko garbia 1.000.000 euro baino gutxiagokoa duten zergadunengandik. 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrien kasuan, ekarpen hori ehuneko 95ekoa izanen da.

Tributu-kuota horiek zehazteko, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 154. artikuluan aipatzen diren indizeak izanen dira udal bakoitzak 2020ko ekitaldian aplikaturikoak.

## **24. artikulua.** Konpentsazioaren ordainketa.

1. Aurreko artikuluan jasotako konpentsazioa ekitaldi bakoitzean ordainduko da, bi soluziotan, ekaina eta urria amaitu baino lehen.

2. Lehenengo ordainketaren zenbatekoa izanen da aurreko ekitaldian jasotako zenbateko osoaren ehuneko berrogeita hamar, eta bigarren ordainketan ekitaldiko zenbatekoaren likidazioa egindakoan jasoko da.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Funtsen mugimenduak, toki-erakundeek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren partidetan.

Toki administrazioaren arloan eskumena duen zuzendaritza nagusiaren titularrak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte-hartzearen Funtseko partiden artean, transferentzia arrunten arloan, mugimendu horiek beharrezkotzat jotzen direnean.

## **Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indarrak gabe uzten dira foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko nahiz apalagoko xedapen guztiak.

Bereziki, abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legea indargabetzen da, Iruñeko Hiriburutza Agiria ezartzen duena, zeinaren bidez osagarri berezi bat ematen baitzaio udal hari bere finantzaketa-araubide arruntean.

## **Azken xedapenetako lehena.**

Toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio foru lege honetan ezarritakoa aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.

Zehazki, toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio lau urtean behin erabaki dezan eguneratuak izan daitezela Nafarroako udalerrien Trakzio Gaitasunaren Indizea kalkulatzeko aztertzen diren aldagaien datuak eta foru lege honen eranskinak, Nafarroako Lurralde Behatokiak horretarako hela-

razitako datuen bidez, une bakoitzean indarrean dagoen Lurralde Estrategiari jarraituz.

**Azken xedapenetako bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.



## I. ERANSKINA

### Aldagaiak eta aplikazio-iturriak Finantzaketa Orokorreko Funtza banatzeko formularen

1. Udalerrri bakoitzaren biztanleria. Estatistika-ko Institutu Nazionalak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ari dagokiola, argitaratzen duen zifra ofiziala hartuko da erreferentziatzat.

2. Kontzeju bakoitzaren biztanleria. Nafarroako Estatistika Institutuak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ari dagokiola, argitaratzen duen zifra ofiziala hartuko da erreferentziatzat.

3. Udalerrri bakoitzean 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen haztapena. Nafarroako Estatistika Institutuak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ari dagokiola, argitaratzen duen zifra ofiziala hartuko da erreferentziatzat, zahartze mailaren arabera haztatuta.

Zahartze mailan, 65 urte edo gehiago dituzten biztanleak zehazten dira, udalerrri bakoitzeko biztanleria osoaren gainean; Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratzen du.

4. Erabilera publikoko hiri-azalera: tokiko erabilera publikoko ondasunak dauden hiri-lurzorua azalera da. Nafarroako Gobernuak Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen du datu hori, eta erreferentzia-urtea izanen da udalerrietako populazioari buruzko datuaren urte bera.

5. Pobrezia arriskuan dagoen biztanleriaren haztapena: Nafarroako Estatistika Institutuak, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ari dagokiola, argitaratzen duen ofiziala, pobrezia arriskuaren tasaren arabera haztatuta.

Pobreziaren arriskuaren tasa da udalerrri bakoitzeko pobrezia-atalasearen azpitik dauden pertsonen ehunekoa; Nafarroako Estatistika Institutuak argitaratzen du.

6. Biztanleriaren sakabanaketa-indizea: udalerrri bakoitzeko biztanleriaren kontzentrazio-indizearen alderantzizkoa da, urte bakoitzerako honela kalkulatu dena Nafarroako Estatistika Institutuak emandako datuekin: udalerrri bateko biztanlegune bakoitzeko biztanleek biztanleria osoarekiko duten proportzioaren karratuak batuz. Ez zaie esleipenik eginen biztanlegune bakarria duten erakundeei.

7. Lurraren kontribuzioaren likidazio-oinarria: udalerrri bakoitzeko landa- eta hiri-ondasunen katastro-balioen batura da, azken horiek merkatubalioetara doitzeko koefizientearen bidez eguneratuta egonda. Biak Nafarroako Gobernuak Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak ematen ditu, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistro Fiskale-

ko datuak harturik, udalerrrien biztanleriari dagokion erreferentzia-urte bererako.

8. Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren oinarri kuota: nazio kuoten, lurralde kuoten, lokal finkorik gabeko udal kuoten eta lokal finkoa dutenen udal kuoten batura da, azken horretan udal errekarua kenduta. Datu horiek ekonomia eta ogasun arloan eskudun den departamentuak emanen ditu, Jarduera Ekonomikoaren Erregistroaren bidez.

9. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren eskubide likidatuak: toki-erakundeek toki administrazioaren eskumena duen zuzendaritza nagusiari bidalitako aurrekontu-likidazioetatik lortutako datuak. Hutsik eginez gero informazioa bidaltzean, eskura dagoen azken daturik berria eguneratuko da, urteko 100eko 10eko igoera aplikatuz. Aurreko hiru ekitaldietako daturik ez bada, Nafarroako "per capita" daturik handienaren arabera kalkulatu da, biztanleriaren aldagaia oinarritzat hartuz.

10. Ondareko diru-sarrerak eta herrilurretako aprobetxamenduak: toki administrazioaren eskumena duen zuzendaritza nagusiari bidalitako aurrekontu-likidazioetatik lortutako datuak. Batez besteko mugikor gisa kalkulatu da, ondasun higiezinaren errentetatik eta kontzesio eta aprobetxamendu bereziengatik aitortutako eskubideei buruzko informazioa duten azken 8 urteetarako (errenta eta kontzesio eta aprobetxamendu berezi horiek jasota daude irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuan araututako Nafarroako toki-erakundearen aurrekontu-egituraren 54. eta 55. artikuluetan).

## II. ERANSKINA

### Trakzio Gaitasunaren Indizea eratzten duten aldagaiak

#### A. Zentralitatearen faktorea

Nafarroako Lurralde Estrategiaren Lurralde Garapeneko Eredua (LED) aplikatuz, honako aldagai hauek hartzen dira kontuan:

Atea elementua: Nafarroara fisikoki edo kulturalki iristeko aukera ematen duten eremuak edo guneak dira, edo berezko nortasuna izateagatik kanpoaldearekin harreman zuzena dutenak.

Errotula eta/edo trantsizioa elementua: Harreman-eremuak partekatzeko gaitasunagatik nabarmentzen diren espazioak edo guneak dira, kokapen geografikoagatik edo arlo batean espazio lehiakor gisa eratuta egoteagatik.

Natura- eta landa-ingurunearen izaera egitura-tzailea: Lurraldearen antolamendurako tresnek deskribatutako eremuak dira, non Nafarroako



Lurralde Ereduaren kulturaren eta ondarearen elementuak biltzen baitira.

Lurralde-bokazioak: Nafarroa osoa eta, bereziki, haren zati bat ezaugarritzen duten erregioz gaindiko eremuak dira. Eremu horiek etorkizuneko Lurralde Garapeneko Ereduaren elementuak dira: Nafarroa Atlantikoa, Ebroko Nafarroa eta Pirinioetako Nafarroa. Horiek guztiak erdialdean elkartzen dira, gune artikulatzailea baita.

Polizentrismoarako ekarpena: Biztanleriaren, jarduera ekonomikoaren eta lurralde-funtzioen espazio-konfigurazio orekatua, eskala-ekonomiari aprobetxatzeko bide ematen dutenak eta kontzentrazio-kostuak saihesten dituztenak.

Hiri-azpisisistema: Lurralde Garapeneko Ereduaren elementua, elkarrekin jarduten duten biztanleguneei dagokiena. Biztanleguneeen inguruko lurraldeei gaitasuna ematen die besteen gaineko eskumena izateko herritarren jardueraren batean edo guztietan, bai eta beren lurraldea kudeatzeko ere, zalantzarik gabe.

Udalerriaz gaindiko ekipamenduak, beste toki-erakunde batzuei zerbitzua ematen dien gune batean kokatuak:

Udalerriak espezialitateen osasun-zentroa izatea. Iturria: Nafarroako Datu Espazialei buruzko Azpiegitura (NDEA).

Udalerriak institutu bat izatea, Batxilergokoa, Bigarren Hezkuntzakoa edo Lanbide Heziketakoa. Iturria: Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza.

Udalerriak Foruzaingoaren polizia-etxe bat izatea. Iturria: IDENA.

Udalerriak suhiltzaile-etxe bat izatea. Iturria: IDENA.

Udalerrian Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegoa izatea. Iturria: Navarra de Suelo y Vivienda SA (NASUVINSA)

Udalerriak oinarritzko gizarte-zerbitzuaren egoitza izatea. Iturria: Nafarroako Gobernuaren.

## **B. Erakargarritasuna eta lehiakortasuna.**

Zein den toki-erakundearen kudeaketa ahalmena eta zenbateko gaitasuna duten lurraldeaz eta herritartasunaz harago eragiteko, honako aldagai hauek hartuko dira kontuan:

Turismoko ostatuak. Udalerriak dituen turismo-ostatuaren kopuru absolutua. Iturria: Nafarroako Gobernuaren Garapen Ekonomikoa.

Monumentuak. Udalerriak duen monumentu kopuru absolutua adierazten du. Iturria: Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundearen Kultura Zuzendaritza Nagusia.

Enplegatuak. Udalerriri bakoitzak zenbat enplegatu dituen adierazten duen aldagai erlatiboa, gurutzatzen dena Nafarroako jarduera-tasarekin eta udalerriri bakoitzak potentzialki duen biztanleria aktiboarekin. Guneko biztanleria aktiboa baino enplegu handiagoa, laguntzen duena enplegua sortzen eta jarduera ekonomiko eta sozialetan inbertitzen. Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua (NASTAT).

## **C. Egituratzea eta harremanetarako gaitasuna**

Honako aldagai hauek hartzen dira kontuan:

EJSNak. Udalerriak Ekonomia Jardueraren Sailkapen Nazionalean duen zenbakia adierazten du. Iturria: NASTAT.

Merkataritzako enplegua. EJSN duten enplegatuen ehunekoa adierazten du, udalerrian dauden langile guztien gainean. Iturria: NASTAT.

MECNA mezenasgo-proiektuak. Aldagai erlatiboa, adierazten duena zenbat MECNA proiektu dauden udalerrian hamar mila biztanleko. Iturria: Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundearen Kultura Zuzendaritza Nagusia.

## III. ERANSKINA. Trakzio gaitasunaren indizearen kodifikazioa

Kodea	Deskribapena
PUER	Atearen MDT elementuaren aldagaia. 0 elementu dituzten udalerrietan 0ko balioa hartzen du. 1eko balioa hartzen du, ate elementu 1etik 3ra bitarte. 2ko balioa hartzen du, 3 elementu baino gehiago dituzten udalerrietan. 3ko balioa hartzen du, ate elementuen aniztasuna dela eta. Iruñea "Nafarroako ate" da, ETNren arabera, eta 4ko balioa hartzen du. Iturria: Nafarroako Lurralde Estrategia
ROTU	Errotula MDT elementuaren aldagaia. Errotula-eginkizuna ez duten udalerrietan, 0ko balioa. 1eko balioarekin, gutxienez bi hiri-azpisistema koordinatzen dira. 2ko balioa 3 azpisistema dituzten udalerrietarako da. 3ko balioa Lizarrari eta Tuterari aplikatzen zaie, 4 hiri-azpisistema baino gehiago koordinatzen baitituzte. Iruñea azpisistema askotarako errotula da, eta 4ko balioa hartzen du. Iturria: Nafarroako Lurralde Estrategia
ESTR	Natura- eta landa-ingurunearen izaera egituratzailearen aldagaia. 0ko balioa, ez badu. Egituratzailea bada, 1eko balioa hartzen du. Iturria: Nafarroako Lurralde Estrategia
VOCA	Lurralde-bokazioen MDT elementuaren gaineko aldagaia: Pirinioetako Nafarroa, Nafarroa Atlantikoa, Ebroko Ardatza, Erdialdeko Arroak eta Erdialdeko Eremua. Horietako lauretan izateagatik, 4ko balioa hartzen du. Horietako hiruretan izateagatik, 3ko balioa hartzen du. Bitan izateagatik, 2ko balioa hartzen du, eta batean egoteagatik, 1eko balioa. Ez dago zero baliorik. Iturria: Nafarroako Lurralde Estrategia
POLI	Polizentrismoari egindako ekarpenari buruzko aldagaia. Erregioz gaindiko poloa: 4. Erregioko poloa: 3. Erregio azpiko poloa: 2. Eskualdeko poloa: 1. Azpisistema baten barruan, zentroak tarterik handiena hartzen du beheagoko maila batekiko. Zentralitate handiagoa egotzen zaio zentralitate-maila bakoitzeko erdiguneari: erregioz gaindikoa, erregiokoa, eskualdekoa, etab. Iturria: Nafarroako lurralde estrategia.
SUBS	Hiri-azpisistemaren MDT elementua. Gunekoa izatea eta haren trakzio-gaitasuna, bere azpisistemei eta elementuei dagokienez. 0ko balioa bere udal-mugarteaz harago trakzio-izaera ez duten udalerriei aplikatzen zaie. 1eko balioa, ondoko gunea eta udalerrien gaineko trakzioa beren gain hartzen duten udalerrientzat. 2ko balioa, zentralitatea daukanean lurralde-eremu jakin batean finkatutako azpisistemen gainean. 3ko balioa, bere azpisistemei dagokiena baino zentralitate handiagoa duenean. 4ko balioa erregioko zentralitaterako, non trakzio-izaerak bere azpisistemak eta elementuak gainditzen baititu, eskualdeko lurralde-gobernantza antolatuz. Iturria: Nafarroako lurralde estrategia.
I_MDT-ETN	Lurralde Garapeneko Ereduaren Adierazle Partziala (I_MDT-ETN). Aurreko sei aldagaien batura. 0 eta 21 arteko balioa da.
SALUDESP	Adierazten du espezialitateko osasun-zentrarik duen ala ez. Iruñea barnean dago zerbitzu hori N.U. Ospitalegunearen bidez ematen baitu (0, 1). Iturria: NDEA. 2014
EDUC	Adierazten du Batxilergoko edo Lanbide Heziketako ikastetxerik duen ala ez (0, 1). Iturria: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza. 2020
FORAL	Foruzaingoa duen ala ez adierazten du (0, 1). Iturria: NDEA. 2014
BOM	Adierazten du suhiltzaile-etxerik duen ala ez (0, 1). Iturria: NDEA. 2014
ORVE	Adierazten du Etxebizitza eta Eraikinak Birgaitzeko Bulegorik (EEBB) duen ala ez (0, 1). Iturria: Nafarroako Lurzorua eta Etxebizitzak SA (NASUVINSA) 2020
SSBB	Adierazten du oinarrizko gizarte-zerbitzuak dituen ala ez (0, 1). Iturria: Nafarroako Gobernua. 2020
I_ADMINFORAL	Udalaz gaindiko ekipamenduei buruzko adierazle partziala (I_ADMINFORAL). Aurreko sei aldagai bitarren batura da. 0 eta 6 arteko balioa da.
ZENTRALITASUNA	Zentralitatean oinarritutako trakzio-adierazlea: aurreko bi adierazle partzialen (I_MDT-ETN eta I_ADMINFORAL) baturaren emaitza da. 0 eta 27 arteko balioa da.

Kodea	Deskribapena
Jarduera	Guneko biztanleria aktiboaren goi mailako enplegua neurtzen du. Udalerri bakoitzeko enplegatuen kopurutik udalerri bakoitzeko biztanleria potentzialki aktibora arteko aldea, Nafarroako jarduera-tasaren arabera. Iturria: NASTAT.2020
I_EMPLEO	Udalerriko enpleguaren adierazle partziala (I_ENPLEO), lehiakortasunerako ekarpen gisa. 0 eta 4 arteko balioa da. 0ko balioa edo balio negatiboak dituzten udalerrietan 0ko balioa hartzen du. Udalerriko biztanleria potentzialki aktiboa % 0tik % 25 artekoa bada, jarduera-tasaren arabera, 1eko balioa hartzen du. Biztanleriaren % 25etik % 50era bitartean, 2ko balioa hartzen du. Biztanleriaren % 50etik % 75era bitartean, 3ko balioa hartzen du. Biztanleriaren % 75etik gora, 4ko balioa hartzen du.
Turismoa	Ahalmen turistikoa neurtzen du. Udalerri bakoitzak dituen ostaturen kopurua. Iturria: Nafarroako Gobernu. Garapen Ekonomikoa. 2020
I_TUR	Turismoko plazei buruzko adierazle partziala (I_TUR). Turismo-plazarik ez duten udalerrietan 0ko balioa hartzen du. 0 eta 25 artean, 1eko balioa hartzen du. 25 eta 85 artean, 2ko balioa. 85 eta 150 artean, 3ko balioa. 150 baino gehiago, 4ko balioa hartzen du.
Monumentuak	Udalerri bakoitzak dituen monumentuen kopurua. Iturria: Nafarroako Gobernu. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia. 2021
I_MON	Monumentuetan oinarritutako adierazlea (I_MON). Monumenturik ez duten udalerrien kasuan, 0ko balioa hartzen du. 0 eta 5 artean, 1eko balioa hartzen du. 5 eta 10 artean, 2ko balioa. 10 eta 15 artean, 3ko balioa. 15 baino gehiago, 4ko balioa hartzen du.
ERAKARGARRITASUNA, LEHIAKORTASUNA	Lehiakortasunean eta erakargarritasunean oinarritutako trakzio-adierazlea: Aurreko hiru adierazle partzialen (I_TUR, I_MON eta I_ENPLEO) baturaren emaitza da. 0 eta 12 arteko balioa da.
CNAE_Distinto	Adierazten du zenbat EJSN dituen udalerriak. Iturria: NASTAT. 2020
I_CNAE	EJSNari buruzko adierazle partziala (I_CNAE). 5 EJSN baino gutxiagoko udalerrietan, 0ko balioa hartzen du. 5 eta 30 artean, 1eko balioa hartzen du. 30 eta 55 artean, 2ko balioa. 55 eta 70 artean, 3ko balioa. 70 baino gehiago, 4ko balioa hartzen du.
Merkataritzako enpleguaren %	Adierazten du langileen zer ehunekok diharduen merkataritzan EJSN izanik, udalerrian dauden langile guztien gainean. Iturria: NASTAT. 2020
I_EMPCOM	Merkataritzarekin lotutako enpleguari buruzko adierazle partziala (I_EMPCOM). 10 baino ehuneko txikiagoa duten udalerrien kasuan, 0ko balioa hartzen du. 10 eta 30 artean, 1eko balioa hartzen du. 30 eta 45 artean, 2ko balioa. 45 eta 50 artean, 3ko balioa. 50 baino gehiago, 4ko balioa hartzen du.
MECNA proiektuen kopurua/10.000 bizt.	Adierazten du zenbat MECNA proiektu dituen udalerriak 10.000 biztanleko. Iturria: Nafarroako Gobernu. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia. 2019
I_MECNA	MECNA proiektuei buruzko adierazle partziala (I_MECNA). 0 proiektu duten udalerrietan, 0ko balioa hartzen du. 0 eta 25 artean, 1eko balioa hartzen du. 25 eta 100 artean, 2ko balioa. 100 eta 300 artean, 3ko balioa. 300 baino gehiago, 4ko balioa hartzen du.
Kulturako gastua biztanleko	Adierazten du kulturaren egiten den gastu publikoa, eurotan, udalerriko biztanle bakoitzeko (musika-eskolak, kulturaren administrazio orokorra, liburutegiak, museoak, euskara, aisialdiko instalazioak). Iturria: Nafarroako Gobernu. Toki Administrazioa. 2019
I_GASTCUL	Kultura-gastuari buruzko adierazle partziala (I_GASTCUL). 10 baino gutxiagoko udalerrietan, 0ko balioa hartzen du. 10 eta 50 artean, 1eko balioa hartzen du. 50 eta 80 artean, 2ko balioa. 80 eta 200 artean, 3ko balioa. 200 baino gehiago, 4ko balioa hartzen du.
HARREMANETARAKO GAITASUNA EGITURATZEA	Harremanetan oinarritutako trakzio-izaerako adierazlea: Aurreko lau adierazle partzialen batura da (I_CNAE, I_EMPCOM, I_MECNA, I_GASTCUL). 0 eta 16 arteko balioa da.
TGI. Trakzio-izaeraren adierazlea	Aztertutako hiru dimentsioen batura: zentralitatea, lehiakortasuna eta erakargarritasuna, eta egituratzea eta harremanetarako gaitasuna. 0 eta 55 arteko balioa da.

## IV. ERANSKINA. Trakzio gaitasunaren indizea, udalerrien arabera

Udalerria	Udaleko biztanleria 2020	Trakzio-izaera	Taldeak	Zentralitatea	Erakargarritasuna eta lehiakortasuna	Egituratzeta/harremanak
Abaigar	82	2	Tokikoa	1	1	0
Abartzuza	544	5	Tokikoa	2	2	1
Abaurregaina	127	4	Tokikoa	2	1	1
Aburrepea	31	4	Tokikoa	2	2	0
Aberin	340	3	Tokikoa	1	1	1
Ablitas	2484	8	Tokikoa	1	2	5
Adios	152	4	Tokikoa	2	1	1
Aguilar Kodes	66	4	Tokikoa	2	1	1
Oibar	794	8	Tokikoa	2	1	5
Altsasu	7465	28	Erregiokoa	18	2	8
Allin	874	5	Tokikoa	1	2	2
Allo	960	9	Tokiz gaidikoa	3	4	2
Ameskoabarrena	711	7	Tokiz gaidikoa	3	1	3
Antzin	338	5	Tokiz gaidikoa	3	1	1
Andosilla	2784	7	Tokiz gaidikoa	3	1	3
Antsoain	10836	11	Tokiz gaidikoa	3	1	7
Anue	481	6	Tokikoa	3	1	2
Añorbe	595	7	Tokikoa	2	2	3
Agoitz	2777	23	Erregio azpikoa	15	1	7
Araitz	523	9	Tokikoa	1	1	7
Aranaratxe	70	4	Tokikoa	1	1	2
Arantza	608	7	Tokikoa	1	1	5
Aranguren	11306	19	Tokiz gaidikoa	6	5	8
Arano	116	4	Tokikoa	1	1	2
Arakil	962	8	Tokikoa	2	2	4
Aras	147	4	Tokikoa	1	1	2
Arbizu	1109	8	Tokikoa	2	2	4
Artzibar	262	6	1. Tokikoa	1	2	3
Los Arcos	1127	14	Eskualdekoa	7	2	5
Arellano	148	4	Tokikoa	1	2	1
Areso	283	5	Tokikoa	1	2	2
Arguedas	2287	14	Tokiz gaidikoa	3	7	4
Aria	51	4	Tokikoa	2	2	0
Aribe	32	16	Tokikoa	4	5	7
Armañanzas	52	3	Tokikoa	1	1	1
Arroitz	1038	7	Tokikoa	1	1	5
Arruazu	106	5	Tokikoa	2	1	2
Artaxoa	1691	10	Tokiz gaidikoa	3	2	5
Artazu	111	4	Tokikoa	1	1	2
Atetz	225	5	Tokikoa	2	1	2
Aiegi	2395	8	Tokiz gaidikoa	2	2	4
Azagra	3840	11	Tokiz gaidikoa	3	4	4
Azuelo	26	4	Tokikoa	2	1	1
Bakaiku	360	6	Tokiz gaidikoa	3	1	2
Barasoain	613	10	Tokikoa	2	5	3
Barbarin	49	3	Tokikoa	1	0	2
Bargota	255	5	Tokikoa	1	1	3
Barillas	221	3	Tokikoa	1	0	2
Basaburua	828	7	Tokikoa	2	1	4

Udalerrria	Udaleko biztanleria 2020	Trakzio-izaera	Taldeak	Zentralitatea	Erakargarritasuna eta lehiakortasuna	Egituratzeta/harremanak
Baztan	7850	<b>28</b>	Erregiokoa	15	6	7
Beire	287	<b>4</b>	Tokikoa	1	1	2
Beraskoain	119	<b>4</b>	Tokikoa	1	1	2
Berbintzana	666	<b>4</b>	Tokikoa	1	0	3
Bertizarana	603	<b>9</b>	Tokiz gaidikoa	5	2	2
Betelu	374	<b>11</b>	Tokikoa	1	4	6
Biurrun-Olkoz	223	<b>6</b>	Tokikoa	2	3	1
Buñuel	2195	<b>10</b>	Tokikoa	2	3	5
Auritz	227	<b>17</b>	Eskualdekoa	7	3	7
Burgi	203	<b>8</b>	Tokikoa	2	1	5
Burlata	19541	<b>16</b>	Tokiz gaidikoa	7	1	8
El Busto	54	<b>1</b>	Tokikoa	1	0	0
Cabanillas	1351	<b>7</b>	Tokikoa	1	2	4
Cabredo	87	<b>3</b>	Tokikoa	2	0	1
Cadreita	2045	<b>7</b>	Tokikoa	2	1	4
Caparroso	2801	<b>12</b>	Eskualdekoa	5	2	5
Cárcar	1104	<b>7</b>	Tokikoa	1	1	5
Zarrakaztelu	2502	<b>11</b>	Eskualdekoa	6	2	3
Cascante	3952	<b>14</b>	Eskualdekoa	6	2	6
Kaseda	951	<b>7</b>	Tokikoa	2	2	3
Castejón	4251	<b>14</b>	Eskualdekoa	6	1	7
Gazteluberri	13	<b>1</b>	Tokikoa	1	0	0
Cintruénigo	8026	<b>15</b>	Eskualdekoa	8	2	5
Ziordia	350	<b>8</b>	Tokikoa	3	0	5
Zirauki	480	<b>7</b>	Tokikoa	2	2	3
Ziritza	153	<b>3</b>	Tokikoa	2	0	1
Zizur	3924	<b>12</b>	Tokiz gaidikoa	5	3	4
Corella	8100	<b>16</b>	Eskualdekoa	8	3	5
Cortes	3178	<b>12</b>	Eskualdekoa	6	2	4
Desoio	76	<b>2</b>	Tokikoa	1	0	1
Deikaztelu	591	<b>5</b>	Tokikoa	1	2	2
Donamaria	442	<b>6</b>	Tokikoa	1	2	3
Etxalar	827	<b>6</b>	Tokikoa	1	2	3
Etxarri	75	<b>4</b>	Tokikoa	2	1	1
Etxarri Aranatz	2497	<b>13</b>	Eskualdekoa	6	1	6
Etxauri	649	<b>7</b>	Tokikoa	1	1	5
Eguesibar	21418	<b>16</b>	Tokiz gaidikoa	8	2	6
Elgorriaga	220	<b>4</b>	Tokikoa	1	1	2
Noain (Elortzibar)	8354	<b>23</b>	Tokiz gaidikoa	9	6	8
Eneritz	292	<b>5</b>	Tokikoa	2	1	2
Eratsun	150	<b>7</b>	Tokikoa	1	1	5
Ergoiena	370	<b>3</b>	Tokikoa	1	1	1
Erro	793	<b>9</b>	Tokikoa	3	2	4
Ezkaroze	314	<b>5</b>	Tokikoa	2	1	2
Eslaba	105	<b>7</b>	Tokikoa	2	0	5
Espartza Zaraitzu	72	<b>3</b>	Tokikoa	2	0	1
Esprontzedea	101	<b>4</b>	Tokikoa	2	1	1
Lizarra	13991	<b>31</b>	Erregiokoa	19	4	8
Esteribar	2726	<b>15</b>	Eskualdekoa	6	3	6
Etaiu	61	<b>3</b>	Tokikoa	1	2	0

Udalerrria	Udaleko biztanleria 2020	Trakzio-izaera	Taldeak	Zentralitatea	Erakargarritasuna eta lehiakortasuna	Egituraztea/harremanak
Eulate	282	4	Tokikoa	1	1	2
Ezkabarte	1811	10	Tokikoa	2	4	4
Ezkurra	138	3	Tokikoa	1	1	1
Ezporogi	44	6	Tokikoa	1	2	3
Faltzes	2336	9	Tokiz gaidikoa	3	1	5
Fitero	2080	9	Tokikoa	2	2	5
Fontellas	993	13	Tokikoa	3	4	6
Funes	2444	6	Tokikoa	1	1	4
Fustiñana	2483	6	Tokikoa	1	1	4
Galar	2290	15	Tokiz gaidikoa	5	5	5
Galipentzu	94	8	Tokikoa	2	2	4
Galoze	94	7	Tokikoa	2	2	3
Garaioa	94	6	Tokikoa	2	2	2
Garde	142	4	Tokikoa	2	1	1
Garinoain	498	9	Tokikoa	2	2	5
Garralda	191	6	Tokikoa	2	3	1
Genevilla	66	4	Tokikoa	2	1	1
Goizueta	689	9	Tokikoa	2	2	5
Goñerri	157	4	Tokikoa	2	1	1
Gorza	36	2	Tokikoa	2	0	0
Gesalatz	421	10	Tokiz gaidikoa	4	2	4
Girgillao	83	3	Tokikoa	1	1	1
Uharte	7278	19	Tokiz gaidikoa	6	5	8
Uharte Arakil	789	9	Tokikoa	3	3	3
Ibargoiti	248	11	Tokikoa	1	2	8
Iguzkitza	318	4	Tokikoa	1	1	2
Imotz	430	4	Tokikoa	2	1	1
Irañeta	169	5	Tokikoa	2	1	2
Izaba	403	12	Eskualdekoa	8	2	2
Ituren	507	4	Tokikoa	1	2	1
Iturmendi	411	7	Tokikoa	2	1	4
Itza	1262	9	Tokikoa	1	4	4
Itzagaondoa	172	5	Tokikoa	1	2	2
Itzaltzu	37	4	Tokikoa	1	2	1
Jaurrieta	186	5	Tokikoa	2	1	2
Xabier	128	6	Tokikoa	1	2	3
Txulapain	568	4	Tokikoa	2	1	1
Beintza-Labaien	217	5	Tokikoa	1	1	3
Lakuntza	1275	13	Tokikoa	3	5	5
Lana	163	5	Tokikoa	2	1	2
Lantz	152	9	Tokikoa	2	3	4
Lapoblación	122	9	Tokikoa	1	4	4
Larraga	2123	4	Tokikoa	1	1	2
Larragoa	96	5	Tokikoa	1	1	3
Larraun	928	11	Tokikoa	2	2	7
Elizagorria	185	6	Tokikoa	2	1	3
Leatxe	33	2	Tokikoa	1	1	0
Legarda	125	8	Tokikoa	2	0	6
Legaria	115	4	Tokikoa	1	2	1
Leitza	2965	16	Eskualdekoa	8	2	6



Udalerrria	Udaleko biztanleria 2020	Trakzio-izaera	Taldeak	Zentralitatea	Erakargarritasuna eta lehiakortasuna	Egituratzeari harremanak
Leotz	224	7	Tokikoa	3	2	2
Lerga	46	4	Tokikoa	1	0	3
Lerin	1746	6	Tokikoa	1	1	4
Lesaka	2744	15	Tokikoa	4	4	7
Lezaun	238	4	Tokikoa	1	2	1
Ledea	295	10	Tokikoa	3	3	4
Lizoainibar-Arriasgoiti	294	7	Tokikoa	2	1	4
Lodosa	4837	16	Eskualdekoa	8	2	6
Longida	297	7	Tokikoa	3	2	2
Irunberri	1299	16	Eskualdekoa	6	6	4
Lukin	131	3	Tokikoa	1	1	1
Mañeru	426	5	Tokikoa	2	1	2
Marañón	51	3	Tokikoa	1	1	1
Martzilla	2864	15	Eskualdekoa	7	4	4
Mélida	731	10	Tokikoa	2	5	3
Mendabia	3526	11	Eskualdekoa	6	1	4
Mendaza	291	4	Tokikoa	1	1	2
Mendigorría	1094	6	Tokikoa	1	1	4
Metauten	283	4	Tokikoa	1	1	2
Milagro	3450	15	Eskualdekoa	6	3	6
Mirafuentes	55	1	Tokikoa	1	0	0
Miranda Arga	863	5	Tokikoa	1	2	2
Elo	472	4	Tokikoa	1	1	2
Monteagudo	1093	5	Tokikoa	1	1	3
Morentin	115	4	Tokikoa	1	0	3
Mues	73	3	Tokikoa	1	1	1
Murchante	4131	7	Tokikoa	1	1	5
Murieta	338	7	Tokikoa	1	5	1
Murillo el Cuende	673	5	Tokikoa	2	1	2
Murillo el Fruto	662	4	Tokikoa	1	1	2
Muruzabal	235	7	Tokikoa	2	2	3
Nabaskoze	126	5	Tokikoa	3	2	0
Nazar	30	2	Tokikoa	1	1	0
Obanos	940	8	Tokikoa	2	1	5
Oko	75	3	Tokikoa	1	2	0
Otsagabia	501	10	Eskualdekoa	5	3	2
Odieta	355	6	Tokikoa	2	1	3
Oiz	128	4	Tokikoa	1	1	2
Olaibar	392	6	Tokikoa	2	3	1
Olazti	1490	11	Tokiz gaidikoa	4	1	6
Olexoa	49	1	Tokikoa	1	0	0
Erriberri	3981	16	Tokiz gaidikoa	5	4	7
Oloritz	204	6	Tokikoa	1	4	1
Oltza Zendea	1860	12	Tokikoa	2	6	4
Ollaran	422	6	Tokikoa	1	1	4
Orbaizeta	192	5	Tokikoa	2	2	1
Orbara	32	4	Tokikoa	2	2	0
Orisoain	79	8	Tokikoa	1	2	5
Orontze	48	4	Tokikoa	2	1	1

Udalerrria	Udaleko biztanleria 2020	Trakzio-izaera	Taldeak	Zentralitatea	Erakargarritasuna eta lehiakortasuna	Egituraztea/harremanak
Orotz-Betelu	147	4	Tokikoa	2	1	1
Oteitza	930	4	Tokikoa	1	0	3
Iruña	203944	44	Erregioz gaidikoa	26	10	8
Azkoien	5951	21	Erregio azpikoa	10	3	8
Petilla Aragoi	31	14	Tokiz gaidikoa	4	1	9
Piedramillera	37	5	Tokikoa	1	0	4
Pitillas	502	7	Tokikoa	2	1	4
Gares	2889	17	Erregio azpikoa	9	3	5
Puiu	361	6	Tokikoa	2	1	3
Ribaforada	3738	6	Tokikoa	1	0	5
Erromantzatua	171	5	Tokikoa	2	1	2
Erronkari	211	9	Tokiz gaidikoa	3	3	3
Orreaga	18	15	Tokiz gaidikoa	3	6	6
Zare	135	5	Tokikoa	1	2	2
Saldias	116	3	Tokikoa	2	0	1
Jaitz	109	3	Tokikoa	1	1	1
San Adrián	6344	17	Erregio azpikoa	9	3	5
Zangoza	4933	29	Erregiokoa	19	3	7
San Martin Unx	389	6	Tokikoa	2	2	2
Santsol	97	4	Tokikoa	1	1	2
Santakara	870	5	Tokikoa	1	1	3
Doneztebe	1763	16	Erregio azpikoa	9	3	4
Sartze	60	4	Tokikoa	1	1	2
Sartaguda	1281	5	Tokikoa	2	0	3
Sesma	1161	6	Tokikoa	1	2	3
Sorlada	57	5	Tokikoa	1	4	0
Sunbilla	665	4	Tokikoa	1	1	2
Tafalla	10621	29	Erregiokoa	18	3	8
Tebas-Muru Artederreta	636	10	Tokikoa	2	3	5
Tirapu	42	5	Tokikoa	2	1	2
Torralba del Río	96	4	Tokikoa	2	2	0
Torres del Río	124	4	Tokikoa	1	2	1
Tutera	37042	34	Erregiokoa	22	5	7
Tulebras	132	5	Tokikoa	1	1	3
Ukar	176	5	Tokikoa	2	0	3
Uxue	175	9	Tokikoa	2	3	4
Ultzama	1674	10	Tokikoa	3	3	4
Untzitibar	209	7	Tokikoa	2	2	3
Untzue	154	11	Tokikoa	3	1	7
Urdazubi	356	16	Tokikoa	1	6	9
Urdiain	661	7	Tokikoa	2	2	3
Urraulgoiti	137	5	Tokikoa	2	2	1
Urraulbeiti	317	8	Tokikoa	3	3	2
Urrotz-Hiria	386	6	Tokikoa	1	1	4
Urroz	184	5	Tokikoa	2	1	2
Urzainki	87	8	Tokikoa	1	1	6
Uterga	163	4	Tokikoa	2	1	1
Uztarroze	144	4	Tokikoa	2	1	1

Udalerrria	Udaleko biztanleria 2020	Trakzio-izaera	Taldeak	Zentralitatea	Erakargarritasuna eta lehiakortasuna	Egituratzeari/harremanak
Luzaide	323	<b>12</b>	Tokikoa	5	1	6
Valtierra	2430	<b>9</b>	Tokikoa	2	2	5
Bera	3753	<b>21</b>	Eskualdekoa	7	6	8
Viana	4260	<b>21</b>	Erregio azpikoa	8	5	8
Bidankoze	85	<b>4</b>	Tokikoa	1	1	2
Bidaurreta	164	<b>4</b>	Tokikoa	2	0	2
Alesbes	2883	<b>9</b>	Tokikoa	2	2	5
Villamayor de Monjardín	120	<b>4</b>	Tokikoa	1	2	1
Hiriberri Aezkoa	100	<b>5</b>	Tokikoa	2	2	1
Villatuerta	1220	<b>9</b>	Tokikoa	1	5	3
Atarrabia	10245	<b>15</b>	Tokiz gaidikoa	6	1	8
Igantzi	631	<b>5</b>	Tokikoa	1	1	3
Deierri	1543	<b>8</b>	Tokikoa	1	3	4
Esa	285	<b>6</b>	Tokikoa	2	2	2
Zabaltza	301	<b>4</b>	Tokikoa	2	0	2
Zubieta	302	<b>4</b>	Tokikoa	1	1	2
Zugarramurdi	217	<b>8</b>	Tokikoa	1	3	4
Zuñiga	99	<b>4</b>	Tokikoa	2	1	1
Barañain	20167	<b>14</b>	Tokiz gaidikoa	6	1	7
Berriobeiti	7457	<b>16</b>	Tokiz gaidikoa	5	4	7
Berriozar	10651	<b>16</b>	Tokiz gaidikoa	6	1	9
Irurtzun	2247	<b>18</b>	Erregio azpikoa	10	1	7
Beriain	4113	<b>14</b>	Tokiz gaidikoa	4	4	6
Orkoien	4145	<b>14</b>	Tokiz gaidikoa	5	5	4
Legebiltzarreko Erregelamenduko 138. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Toki Inbertsioen Plana arautzen duen Foru Lege proiektuaren irizpena, Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsia. Foru lege proiektu hori 2022ko urtarrilaren 27ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### IRIZPENA

Lurralde Kohesiorako Batzordeak 2022ko martxoaren 9an eta 11n egindako bileran onetsia.

## Toki Inbertsioen Plana arautzen duen Foru Lege proiektua

### AURKIBIDEA

Hitzaurrea

#### I. TITULUA. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea, helburua eta denbora eremua.
2. artikulua. Toki Inbertsioen Plana: definizioa eta edukia.
3. artikulua. Toki Inbertsioen Planaren urteko zuzkidura eta aurrekontu tratamendua.
4. artikulua. Toki Inbertsioen Planaren zuzkidura ekonomikoaren banaketa.
5. artikulua. Bateragarritasuna.

#### II. TITULUA. Inbertsioen programak eta toki programazioa

##### 1. KAPITULUA. Inbertsio programak

6. artikulua. Inbertsio Programen izaera.
7. artikulua. Inbertsio motak.
8. artikulua. Inbertsio finantzarriak.
9. artikulua. Uraren goi-horniduraren inguruko azterketak eta proiektuak.
10. artikulua. Inbertsioen finantzaketaren gehieneko ehunekoak.
11. artikulua. Inbertsioak sartzeko prozedura.

12. artikulua. Inbertsioak erreserbako zerrendan sartzeko prozedura.

##### 2. KAPITULUA. Toki programazioa

13. artikulua. Inbertsio motak.
14. artikulua. Inbertsio finantzarriak.
15. artikulua. Inbertsioen finantzaketaren gehieneko ehunekoak.
16. artikulua. Inbertsioak behin-behinean sartzeko prozedura.
17. artikulua. Inbertsioak behin betiko sartzeko prozedura.
18. artikulua. Zeharbideen urbanizaziorako inbertsioak sartzeko prozedura.
19. artikulua. Eskaerak hautatu eta lehenetsia.
20. artikulua. Inbertsioak erreserbako zerrendan sartzeko prozedura.

##### 3. KAPITULUA. Inbertsio programei eta toki programazioari buruzko xedapen komunak

21. artikulua. Inbertsioen betebeharrak orokorrak.
22. artikulua. Proiektuak hobetzea eta aldatzea.
23. artikulua. Hasiera baimena.
24. artikulua. Larrialdiko prozedura.
25. artikulua. Ekarpene ekonomikoaren ordainketa eta justifikazioa.
26. artikulua. Ez-betetzeak eta diru-itzulketak.
27. artikulua. Erakundeen ondorengotza eta titulartasun aldaketak.
28. artikulua. Jarraipena.

##### III. TITULUA. Determinazio Libreko Programa

29. artikulua. Determinazio Libreko Programaren izaera.
30. artikulua. Onuradunak eta zenbatekoen banaketa.
31. artikulua. Jasotako ekarpenen kontrola.

Lehen xedapen gehigarria

Bigarren xedapen gehigarria.

Lehen xedapen iragankorra.

Bigarren xedapen gehigarria.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Azken xedapenetako lehena.

Azken xedapenetako bigarrena.

I. ERANSKINA: Zenbatekoen hasierako banaketa Inbertsio Programetan eta Toki Programazioan

II. ERANSKINA: Zenbateko lagungarria kalkulatzeko oinarria eta gehieneko ekarpenaren mugak, toki erakunde bakoitzeko, Toki Programazioaren atalean

III. ERANSKINA: Toki Programazioaren ataleko eskaerak hautatu eta lehenestea

IV. ERANSKINA: Determinazio Libreko Programa-ko banaketa irizpideak

V. ERANSKINA: Inbertsio Programei dagozkien jarduketan zerrenda.

### HITZAURREA

Konstituzioaren 142. artikulua ezartzen duenez, toki ogasunek behar adinako baliabideak izanzen dituzte legeak udalbatzei esleitzen dizkien eginkizunak betetzeko eta, funtsean, beren tributuez eta Estatukoetan eta autonomia erkidegoetakoetan duten partaidetzaz hornituko dira.

Nafarroako Foru Komunitateak eskumena du toki ogasunen arloan, Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 46. artikulua araberak.

Era berean, Toki Autonomiaren Europako Gutunak, 1985eko urriaren 15ekoak (Espainiak 1988ko urtarrilaren 20an berretsia), eskubidea aitortzen die toki erakundeei "behar adinako baliabide propioak izateko, eta haietaz libreki baliabidezko, beren eskumenak betetzean", eta adierazten du, halaber, finantza baliabide horiek Konstituzioak edo legeak aurreikusitako eskumenen arabera izan beharko dutela.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak toki ogasunei buruzko VIII. tituluaren xedatzen duenez, 259. artikuluan zehazki, Nafarroako toki erakundeek dituzten eskumenak erabili eta haien esku utzitako helburuak bete ditzaten, toki ogasunei behar adina baliabide emanen zaizkie; Nafarroako toki araubide berekiko gaia den aldetik, baliabide horiek toki ogasunei buruzko foru lege baten bidez arautuko dira, hau da, mamitu eginen da Konstituzioaren 142. artikuluan, lehen aipatutakoan, jasotzen den finantza nahikotasunaren printzipioa.

Horrez gain, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen

260. eta 261. artikuluetan ezartzen da ezen toki ogasunen baliabide-iturriak izanzen direla, besteak beste, beren tributu propioak eta Foru Komunitatekoetan eta Estatukoetan duten partaidetza.

Horren inguruan, arauaren 61. artikulua ezartzen du ezen, Nafarroako Gobernuak, hartarako gaikuntza ematen dion foru lege baten esparruan, inbertsio planak ezarriko dituela, toki erakundeekin lankidetzan aritzeko tresna gisa, Foru Komunitateko lurralde osoan nahitaezko udal zerbitzuak bermatzea helburu.

Beste alde batetik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen hitzurreak behin betiko finkatzen du Nafarroako Toki Ogasunen Funtsaren izaera, partaidetzakoa eta dirulaguntzaz bestelakoa, Espainiako autonomia erkidegoen artean aitzindaria izan zen sistema bat ezarri eta atzean utziz toki ordenamenduan ordura arte izandako toki ogasunen funtsen izaera, banaketa hutsera bideratua.

Aipatutako 2/1995 Foru Legearen 123. artikulua ezartzen du, batetik, Nafarroako toki erakundeek partaidetza izanzen dutela Foru Komunitateko Ogasun Publikoaren zerga-sarreretan, toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zuzkiduraren bitartez, eta bestetik, funts horren urteko zuzkidura egituratzeko, transferentzia arruntan funts bat eta kapital-transferentzien funts bat ezarriko direla, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformak eragindako diru-bilketaren galera konpentsatzeko urteko ekarpen batekin ere osatuta.

Arau horren bosgarren apartatuak, xedatzen du ezen Kapital Transferentzien Funtsaren zuzkidurak 30.000.000 euroko zenbatekoa izanzen dela 2022ko ekitaldirako eta, hurrengo ekitaldientarako, zenbatekoa aurreko ekitaldiko aurrekontuan Kapital Transferentzien Funts gisa jasotakoa izanzen dela, gehituta aurreko ekaineko Nafarroako Foru Komunitatearen urtearteko KPI-Kontsumoko Prezioen Indizea; eta, halaber, kapital-transferentzietarako aurreikusitako zenbatekoaren banaketa (seigarren apartatua) eginen dela Toki Inbertsioen Planari buruzkoak diren kasuan kasuko foru legeetan zehazten den moduan.

Toki erakundeek Nafarroako tributu diru-sarreretan izan beharreko parte-hartzeak, 123. artikuluan araututakoak, ez du galarazten funtsak beste ekarpen batzuk izatea, edo Nafarroako toki erakundeek Foru Komunitateko Administrazioetik edo beste administrazio publiko batzuetatik finantzaketa osagarria jasotzea, halaxe xedatzen baita aipatutako artikulua hamargarren apartatuan.

Gaur egun, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen 18/2016 Foru Legearen indarraldia luzatuta dago arau berri bat egin arte, eta, beraz, foru lege berri bat onetsi beharra dago, toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa, kapital transferentziei dagokiona, nola banatu arau dezan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluen seigarren apartatuan xedatutakoa betez.

Foru lege honen oinarrian dauden printzipioak hauek dira: lurralde kohesioa, toki autonomia, administrazioen arteko lankidetzeta eta leialtasuna.

Arauren egituran daude atariko bat, hiru titulu, bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen; horrez gain, bost eranskin ditu. I. tituluan foru legearen xedapen orokorrak biltzen dira eta, zehazki, haren helburua, xedea eta denbora-eremua, Toki Inbertsioen Planaren definizioa eta edukia, urteko zuzkidura eta aurrekontu tratamendua, haren banaketa ekonomikoa eta beste laguntzekiko bateragarritasuna.

Alde horretatik, nabarmendu beharra dago Toki Inbertsioen Plana, definizioz, azpiegiturak eta zuzkidurak jarri, hobetu eta berritzeko inbertsioen multzoa dela, hiru atal handi hauetan banatuta: Inbertsio Programak, Toki Programazioa eta Determinazio Libreko Programak.

Inbertsio Programaren atalean sartzan dira toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak proposatutako inbertsioak, uraren ziklo integralaren plan gidariei eta Nafarroako Hondakin Planari dagozkionak hain zuzen ere.

Plan gidari horiek nahitaez bete beharrekoak dira eta tokiz gaindiko interesa dute.

Toki Programazioaren atalean, berriz, toki erakundeek eskatutako inbertsioak daude, arlo hauek: hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak; zoladura-lanak sareekin; zoladura-lanak sarerik gabe; zeharbideen urbanizazio-lanak eta toki zuzkidurak.

Azkenik, Determinazio Libreko Programan sartuta daude toki erakunde onuradunek beraiek erabakitzen dituzten inbertsioak toki autonomiaz baliatuz.

Foru legean arautzen da 2022, 2023, 2024, 2025, 2026, 2027 eta 2028ko ekitaldietarako Toki Inbertsioen Planaren denbora programazioa, horrek galarazi gabe lehen xedapen iragankorrean xedatutakoa, arauaren indarraldia luzatzen baitu Toki Inbertsioen Plana arautzen duen foru lege

berri bat onetsi arte; horrek aukera ematen du denbora plangintza eta jarduketari berriak egiteko Inbertsio Programen, Toki Programazioaren eta Determinazio Libreko Programen ataletan.

Inbertsio Programak eta Toki Programazioa hiru edo lau urterako planifikatuko dira, eta Determinazio Libreko Programak, aldiz, urteroko banaketa izanen du.

Toki Inbertsioen Planerako zuzkidura 30 milioi eurokoa izanen da 2022ko ekitaldirako, eta hurrengo ekitaldietan gehitu egingen da Nafarroako Foru Komunitatearen aurreko ekaineko urtearteko KPI-Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera, jarraiturik Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeko 123. artikulua kapital-transferentzien funtserako xedatzen duenari, lehen esan den bezala. Zuzkidura hori halaber handitzen ahalko da atxikitako diruzaintza-gerakinetik eginiko ekarpen gehigarriekin, toki-erakundeei eskatutako diru-itzulketetatik heldutako diru-sarreekin edo izaera bereko beste kreditu batzuekin.

Horrela, Toki Inbertsioen Planei eta, horrenbestez, Nafarroako toki erakundeei, orain arte ez bezalako egonkortasuna ematen zaie beren finantzaketan, halako moldez non urtero onetsiko diren Nafarroako aurrekontuei buruzko foru legeek bat etorri beharko baitute aipatu arauan ezarritakoarekin, inbertsio programak, toki programazioa eta determinazio libreko programak exekutatzeko. Kapital-transferentzien funtsaren urteko zuzkiduraren egonkortasunari eta Determinazio Libreko Programaren erregulazio berriari esker urrats erabakigarria eta kualitatiboa egiten da Toki Autonomiari buruzko 1985eko urriaren 15eko Europako Gutunaren 9. artikuluan xedatutakoa betetzeko bidean, Nafarroako toki erakundeek beren eskumenak eta helburuak betetzeko autonomia eta finantza nahikotasuna babestu eta indartzen baitira.

Toki Inbertsioen Planen urteko zuzkidura horren hasierako banaketa honela egingen da: % 30, Inbertsio Programetarako; % 40, Toki Programaziorako; eta % 30, Determinazio Libreko Programarako. Nolanahi ere, 2022rako, hasiera batean, toki inbertsio planen zuzkidura zati berdinetan banatuko da Inbertsio Programen eta Determinazio Libreko Programaren artean.

Arau batzuk ere ezartzen dira Inbertsio Programei eta Toki Programaziorari ekitaldi bakoitzean hasiera batean esleitutako zenbatekoak aldatu ahal izateko, horretarako arrazoiak daudenean, aurrekontuaren betearazpenerako dauden aurreikuspenen arabera; halere, plangintza aldi bako-

tzaren bukaeran, programa bakoitzean erabilitako zenbateko orokorrak bat etorriko dira hasiera batean esleitu zitzaizkien zuzkiduren baturarekin.

Arautzen dira, halaber, hiru programetako bakoitzean zenbatekoen hasierako banaketa egiteko sistema eta ekitaldiren batean gerta daitezkeen ekarpen gehigarrien tratamendua.

Horrez gain, ekitaldi bakoitzeko zenbatekoen % 3 gordetzen da, gehienez ere, Inbertsio Programetarako eta Toki Programaziorako, behin betiko sartzan diren inbertsioetarako eta larrialdiko prozeduraren bidezko ordainketetarako.

I. titulua bukatzeko, agindu batek ezartzen du Toki Inbertsioen Planetako ekarpenak bateragarriak izanen direla bai haien artean bai beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako laguntzekin.

II. tituluaren helburua Inbertsio Programak eta Toki Programazioa arautzea da: 1. kapitulua Inbertsio Programei buruzkoa da eta, zehazki, xehatzen du zein den haien izaera, zer inbertsio motak sartzan diren, zein diren finantzarriak eta finantzaketaren gehieneko ehunekoak, bai eta inbertsioak behin betiko sartzeko prozedura eta inbertsioak erreserbako zerrendan sartzeko prozedura ere.

Aipatu behar da atal honetako inbertsioak uraren goi-hornidurakoak, hiri hondakinen tratamendukoak eta uraren goi-hornidurako proiektuetakoak direla, eta 8. artikuluan zehazten dela zein diren inbertsio finantzarriak eta 10. artikuluan zein diren finantzaketaren gehieneko ehunekoak.

2022-2025 aldirako Inbertsio Programen atalean inbertsioak sartzeko proposamena hamabost egun naturaleko epean aurkeztu beharko da, foru lege honek indarra hartu eta biharamunetik hasita, eta 2026-2028 aldirako proposamena, berriz, 2025eko lehen hiruhilekoan egin beharko da.

Nabarmendu beharreko berritasun bat da behin-behinean sartutako lehentasunezko inbertsioen exekuzioa hasten ahalko dela behin betiko sartu eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatu aurretik, behin-behinean sartzeari buruzko ebazpena argitara eman ondoren, baina horrek ez du bestelako eskubiderik sortuko toki erakundearentzat, inbertsioaren exekuzioa hastekoa ez denik.

Ezartzen da gehienez ere 6 hilabeteko epea egonen dela, dokumentazio osoa aurkezten denetik hasita, inbertsioak behin betiko sartzeari buruzko ebazpena eman eta jakinarazteko eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatzeko.

Epe hori igarotzen bada berriazko ebazpenaren jakinarazpena egin gabe, toki erakundeak ulertzen ahalko du bere asmoa ezetsi egin dela administrazio-isiltasunez.

Inbertsioak behin betiko sartzeari buruzko ebazpenean zehaztuko da zer ekitalditan aurkeztu beharko den inbertsioaren justifikazioa, eta beti izanen da gastua konprometituta dagoen azken ekitaldia.

Arautzen da, halaber, Inbertsio Programetako inbertsioak behin-behinean sartuko direla erreserbako zerrendan toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak emandako ebazpen baten bidez, ezarritako ordenaren arabera adierazita, eta aurrekontuko baliabideak kontuan hartuz, inbertsioak behin betiko sartzeko eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatzeko oro har ezartzen den prozedura betez.

II. tituluko 2. kapitulua Toki Programazioari buruzkoa da, eta bertan zehazten dira inbertsio motak edo lerroak (hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak, zoladura-lanak sareekin, sarerik gabeko zoladura-lanak, zeharbideen urbanizazio-lanak eta udal eta kontzejuetako zuzkidurak); jarduketa horien definizioa ere jasotzen da, esanez toki inbertsioak direla, dagozkien finantza ekarpenez hornitzen direnak foru legean eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritako hautatze eta leheneste irizpideak eta kudeaketa araubidea aplikatuz.

Ondoren, inbertsio lerro bakoitzean inbertsio finantzarriak aletzen dira, bai eta beste gastu finantzarri batzuk eta inbertsioen finantzaketarako gehieneko ehunekoak ere.

Inbertsioak behin betiko sartzeko prozeduran aurreikuspen espezifiko batzuk jasotzen dira zeharbideen urbanizazioaren atalerako; izan ere, lan horien berezitasuna dela eta, inbertsioa gauzatzeko beharrezkoa izanen da beti lankidetz hitzarmen bat izenpetzea herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiarekin.

Inbertsioak behin betiko sartzeko prozedura orokorra abiatzen da toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak emandako ebazpen baten bidez, non, horrekin batera, zenbatekoen hasierako banaketa egiten baita inbertsio lerroen artean eta inbertsioak hautatu eta lehenesteko baldintzak onartzen baitira, arauan ezarritako prozedurarekin bat.

2023-2025 aldirako, ebazpen hori hamabost egun naturaleko epean aurkeztu beharko da, foru lege honek indarra hartu eta biharamunetik hasita,



eta 2026-2028 aldirako, berriz, 2024ko azken hiru hilekoan.

Inbertsioak behin-behinean sartzeko prozedura tramitatzean, toki erakundeek aurkeztu beharreko dokumentazioa arautzen da. Toki Programazioko eskaerak hautatu eta lehenesteko formula bat erabiltzen da, baloratzen duena inbertsiorako beharraren maila eta toki erakundeak beste Toki Inbertsioen Plan batzuetatik jaso dituen ekarpen bolumena.

Inbertsiorako beharraren maila aldagai bat da, eskaerak honela sailkatzen dituena: premiazko inbertsioak, epe laburrean beharrezkoak diren inbertsioak, komenigarriak diren inbertsioak edo lehentasunik gabeko inbertsioak.

Ekarpen-bolumena, bestalde, aldagai bat da, zeina neurtzen baita toki-inbertsioen azken bi planetan edo plangintza-aldietan exekutatu diren inbertsioen onuradun izan den toki erakundeari dagokion per capita ekarpenaren alderantzizko proportzioan. Eskaerak, bakoitzaren hautatze eta leheneste koefizientearen balioa kontuan hartuz, handienetik txikienera ordenatuko dira inbertsio lerro bakoitzean, eta honakoak onetsiko dira: aurrekontu baliabideen kargura behin-behinean sartutako inbertsioen zerrenda, 6,95 puntu edo gehiago dituztenena, erreserbako inbertsioen zerrenda eta foru lege honetan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik onargarriak ez diren inbertsioen zerrenda.

Gainerako eskaerak erreserban sartuko dira, eta zerrenda bakar bat onetsiko da inbertsio lerro guztiekin, hautatze eta leheneste koefizienteak ezartzen duen ordenan.

Inbertsio Programaren atalean bezala, inbertsioaren exekuzioa hasten ahalko da behin-behinean sartzeari buruzko ebazpena argitara eman ondoren, behin betiko sartu eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatu aurretik.

Bestalde, aukera ematen da behin-behinean sartzeari buruzko ebazpenaren ordean inbertsio lerro bakoitzeko ebazpen independenteak emateko, baina hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak eta zoladura-lanak sareekin egiteko inbertsio lerroen kasuan ebazpen bateratu bat onetsi beharko da beti.

Horren ondotik ezartzen da toki erakundeek zer dokumentazio aurkeztu behar duten Toki Programazioko inbertsioak behin betiko sartzeko, aurkezteko epea eta dokumentazioa epez kanpo aurkezteak edo ezarritako epean ez zuzentzeak dituen ondorioak, delako inbertsioa behin-behinean sartutako inbertsioen zerrendatik kanpo gelditu

eta erreserbako zerrendaren azken tokian jarriko baita.

Orobat adierazten da zer prozedura bete beharko den erreserbako inbertsioak behin-behinean eta behin betiko sartzeko, aurrekontuko baliabideen arabera betiere, erreserbako inbertsioen zerrenda bakarrean duten ordenarekin bat.

II. tituluko 3. kapituluan Inbertsio Programetarako eta Toki Programaziorako xedapen komun batzuk jasotzen dira.

Kapitulua hasierako aginduak inbertsioen betebeharrak arautzen ditu, eta horietako bat da ezin direla inbertsioak hasi behin-behinean sartutako inbertsioen zerrendak argitaratu aurretik, non ez diren aurreko Toki Inbertsioen Planaren indarraldian emandako hasiera baimenen babesean hasi edo bukatu diren inbertsioak, larrialdikotzat deklaraturako inbertsioak edo hasiera baimean dutenak.

Era berean, kasu guztietan inbertsioek toki erakunde eskatzaileak ematen dituen zerbitzuekin lotutakoak izan behar dute, eta posible izanzen da eskuordetzeaz jardutea, baldin eta lotura hori frogatzen bada, toki araubideari buruzko oinarriko legerian xedatutakoari jarraikiz.

Kontzejuaren intereserako besterik ez diren inbertsioak ere sartzan ahal dira, kontzejuak bere gain hartutakoak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 39. artikulua 2. apartatuan xedatutakoaz baliatuz.

Aurreikusten da, halaber, inbertsioak Nafarroako Gobernuarekin lankidetzara araubidean egiteko aukera, eta lankidetzara hitzarmenak izenpetzea toki erakunde batzuen artean batera egin beharreko obren kudeaketarako.

Zenbait inbertsio ezin izanzen dira sartu, besteak beste, bizilagun iraunkorrik ez duten biztanleguneetarako direnak.

Horrekin batera, aurreikusten da ekarpenak jasotzen dituzten toki erakunde onuradunek Nafarroako Toki Inbertsioen Planaren kargura finantzaturako inbertsioen publikitate egin beharko dutela, hau da, inbertsioei buruz egiten den publikitate guztian finantzaketa hori aipatu beharko dela.

Foru lege honek jasotzen du orobat, Toki Programazioaren eta Inbertsio Programaren arau komunen barruan, beste agindu bat, zeinaren arabera ezin baitzaio inbertsioen xedeari hobekuntzarik gehitu adjudikazio prozedura baten ondorioz.

Proiektuen baldintza teknikoak aldatzen ahalko dira ustekabeko beharreatatik, hobekuntza teknologikoengatik edo bestelako arrazoi objektiboenatik, aldatzen ez badira eskaeraren xede den inbertsioaren ezaugarriak, eta horretarako ezartzen den gehieneko zenbateko lagungarria gainditu gabe.

Halaber, aurreikusten da erakundeen ondorengotzaren aukera eta inbertsioen titulartasuna aldatzekoa, bai eta hasiera baimenaren figura ere, zeina eskatzen ahalko baita kasu tasatuetan, erreserbako inbertsioen zerrendetan dauden inbertsioetarako eta uraren goi-hornidurako eta hiri hondakinen tratamenduko inbertsioetarako eta Toki Programazioko inbertsioetarako, zerbitzu eskudunak premiazkoztat jotzen baditu.

Baimen horrek obrak ezarritako epetik kanpo hasteko eskubidea besterik ez du sortuko, eta urtebeteko epea du, emateko ebazpena jakinarazten denetik hasita.

Ezartzen da, halaber, larrialdiko prozedura bat, hondamendien eta arrisku handia dakarten egoeren ondorioz kaltetutako azpiegiturak eta zuzkidurak berrezartzeko edo segurtasunari edo osasun publikoari eragiten dioten beharreatatik behar diren lanei heltzeko.

Ordainketari dagokionez, arau orokor gisa, gehieneko ekarpen ekonomikoaren % 65 ofizioz ordainduko da inbertsioak behin betiko sartzeari buruzko ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita 2 hilabeteko epean, baldin eta inbertsioa edo haren zati bat ekitaldi horretarako konprometuta badago.

Gastua etorkizuneko ekitaldietarako konprometita baldin badago, gastua konprometita dagoen lehen ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen eginen da ordainketa.

Ekarpenaren gainerakoa inbertsioa justifikatu ondoren ordainduko da.

Obra bukaerako ordainketa eskatu eta inbertsioa justifikatzeko agiriak aurkezteko epea azaroaren 20an bukatuko da, inbertsioak behin betiko sartzeari buruzko ebazpenean zehazten den ekitaldikoan, eta ekitaldi hori beti izanen da gastua konprometita dagoen azken ekitaldia. Salbuespeneko inguruabarrak direla eta, behar bezala justifikatuta, inbertsioaren exekuzioa justifikatzeko epea luzatzen ahalko da, behin bakarrik, hurrengo ekitaldiko azaroaren 20ra arte.

Kasu espezifiko batzuetan, bestalde, inbertsioak gauzatuta egon daitezke behin-behinean sartuta daudelako edo hasiera baimena dutelako, eta ordainketarako eskaera egin daiteke inber-

tsioak behin betiko sartzeari buruzko ebazpenak zehazten duenaren aurreko ekitaldian.

Inbertsio bati dagokion ekarpen ekonomikoaren % 65 ordaintzeko aurrekontu baliabiderik ez badago, ekitaldiko aurrekontu mugara iristeagatik, ehunekoa murrizten ahalko da, eta dagokion ekarpenaren gainerako zatia hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoan ordainduko da.

Inbertsioaren exekuzioa justifikatzeko, obra amaierako ordainketa eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak zein diren aipatzen da, eta, ondoren, zehazten da noiz itzuli beharko diren ordaindutako diru kopuruak, osorik edo zati batean, edo noiz galduko den emandako ekarpena osorik edo zati batean kobratzeko eskubidea.

Arauek errespetatzen dute proporzionaltasunaren printzipioa, eta nabarmendu beharra dago ezen, toki erakunde onuraduna osorik betetzetik gertu dagoenean eta konpromisoak betetzeko zalantzarik gabe jardun duela frogatzen badu, ez-betetzea partzialtzat joko dela eta ekarpenaren itzulketa edo galera ere partziala izanen dela, egin edo justifikatu ez den inbertsio lagungarriaren zatiari dagokion ehunekoa adinakoa.

Osorik betetzetik gertu dagoela ulertuko da gauzatutako obraren zatia behar bezala justifikatu denean eta aurreikusitako erabilera publikorako erabiltzeko moduan dagoenean.

Toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren izaera juridikoa dela eta, Konstituzioan euskarria eta Nafarroako toki araubidearen oinarritzko lege instituzionaletan aitortza dituela frogatzen baitu, eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 123. artikuluko 11. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik, partaidetzako eta dirulaguntzaz bestelako baliabidea izanik, toki erakundeek kapital-transferentzien kontzeptuan jasotzen dituzten diru kopuruak itzuli behar badira, berandutza interesak ez dituzte sortuko ordaintzen direnetik, baizik eta itzultzeko epea mugaeguneratzen den egunetik, hala gertatzen bada.

Oro har, Toki Inbertsioen Planak betearazteko toki erakundeek eskatzen zaizkien diru-itzulketetatik datozen kopuruak kapital-transferentzien funts gisa hartuko dira eta funts horren hasierako zuzkidurari gehituko zaizkio sarrera egin eta hurrengo ekitaldian.

III. tituluaren Determinazio Libreko Programaren arauak jasotzen dira; Nafarroako udalerrri guztiak izanen dira ekarpen horien onuradun, IV. eranskinaren ezarritako banaketa irizpideak aplikatuz eta



funtsaren urteko zuzkidura kontuan hartuz, dagoen zenbatekoa jasoko baitute.

Udalerrri konposatuetan, kontzejuak ere determinazio libreko ekarpenen zuzeneko onuradunak izanen dira, eta adosten ahalko dute udalerrriekin udalerrria izatea zenbatekoen hartzailea eta onuraduna.

2022an kontzeju bakoitzak jasoko duen gutxieneko zenbatekoa 3.000 eurokoa izanen da, eta 1.800 eurokoa 2023. urtean eta hurrengoetan; ordainketa, oro har, ekitaldi bakoitzeko bigarren hiruhilekoan eginen da.

Jasotako diru-kopuruak toki erakundearen aurrekontuari atxikita geldituko dira, bakoitzak, bere toki autonomiaz baliatuz, erabakitzen dituen inbertsioak finantzatzeko.

Horrenbestez, Nafarroako toki erakundearen toki autonomia indartzen da, eta aurrerapauso bat da norabide horretan, beren toki autonomiaz baliatuz libreki ezartzen ahalko dutelako inbertsioen erabilera kapital-transferentzien funtsaren zati garrantzitsu baten ekarpenen bidez, beren inbertsioak erabaki eta planifikatzeko udalerrri bakoitzean dauden interesak eta beharrak aintzat hartuz, egoki iruditzen zaien ekitaldian edo ekitaldietan, zenbateko horiek atxikitako gerakin gisa gelditzen baitira toki erakundearen aurrekontuan kasuan kasuko inbertsioa edo inbertsioak egitea erabaki arte.

Toki erakunde onuradunek jasotako ekarpenen kontabilitate kontrola egin beharko dute, ekitaldi bakoitzean zehazteko inbertsioen finantzaketan erabili den zenbatekoa eta, halakorik bada, erabiltzeko dagoena; beharturik egonen dira, halaber, eskatzen zaien informazio guztia ematera eta toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren iritziz egin beharreko egiaztapen eta jarraipen lan guztiak onartzera.

Arauen bukaeran honakoak daude: bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen, haietako lehenak toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiko titularrari ahalmena ematen diona foru lege honetan ezarritakoa aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.

Arauen bost eranskin daude:

I. eranskinean Inbertsio Programen eta Toki Programazioaren zenbatekoen hasierako banaketak aurreikusten da.

II. eranskinean jasotzen dira Toki Programazioaren lerroetako zenbateko lagungarria eta toki erakunde bakoitzari dagokion gehieneko ekarpenaren mugak kalkulatzeko oinarriak.

III. eranskinean, berriz, osatzen dira Toki Programazioaren ataleko eskaerak hautatu eta lehenesteko irizpideak, foru legearen 19. artikuluan xedatutakoa garatuz. Ondorio horietarako, baloratzen da, batetik, inbertsiorako behararen maila eta, bestetik, toki erakundeak lehenagoko Toki Inbertsioen Planetatik jaso dituen ekarpenen bolumena.

Inbertsio lerro bakoitzerako zehazten da jarduketan sailkapen orokor bat, inbertsiorako behararen maila oinarri hartuz egina.

Ekarpenen bolumenaren kontzeptuan, puntuazioa emanen zaio eskaera bakoitzari inbertsioaren onuradun den toki erakundearen arabera, hau da, inbertsioa gauzatuko den lurraldeko toki erakundearen zein den kontuan hartuz, berezitasun batzuekin halere.

IV. eranskinean arautzen dira Determinazio Libreko Programa banatzeko irizpideak, haren zenbatekoa, lehen esan bezala, biztanleguneen bizilagun kopuruaren eta sakabanaketa geografikoaren aldagaietan oinarrituz banatuko baita, eta horrela, udalerrri konposatuek (udal-mugartean kontzejuak dituztenak) eta biztanleguneak atxikiak dituzten udalerrri bakunak zenbateko gehigarri bat jasoko dute.

Udalerrri konposatu bakoitzari esleitutako ekarpenetik zati bat kenduko da udal-mugartean dituen kontzejuen artean banatzeko. Udalerrri konposatu bakoitzeko kontzejuari dagokien zenbatekoa kalkulatzeko, kasuko udalerrriari dagokion zenbatekoaren % 50 biderkatuko da udalerrriko biztanleria osoaren gainean kontzejuetako bizilagunen kopuruak egiten duen proportzioarekin. Kontzejuari dagokien zenbatekoaren % 50 zati berdinetan banatuko da, udalerrri konposatuko kontzeju guztien artean. Gainerako % 50a kontzeju bakoitzeko populazioaren proportzioan banatuko da. Bukatzeko, V. eranskinean Inbertsio Programen jarduketara zerrenda bat ezartzen da, eta hori da, hain zuzen ere, 2022-2025 aldiaren behin-behinean sartu beharreko inbertsioen proposamenean jaso beharko den gutxieneko edukia.

## I. TITULUA Xedapen orokorrak

**1. artikulua.** Xedea, helburua eta denbora eremua.

1. Foru lege honen xedea da arautzea nola banatu Nafarroako toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa, kapital-transferentzien zatian, Toki Inbertsioen Planen bitartez.

2. Arauaren helburu nagusia da nahitaezko udal zerbitzuak bermatzea Nafarroako Foru Komunitate osoan.

3. Foru lege honek Toki Inbertsioen Planaren denbora programazioa arautzen du, 2022, 2023, 2024, 2025, 2026, 2027 eta 2028ko ekitaldietarako, foru lege honen lehen xedapen iragankorren ezarritakoa galarazi gabe.

**2. artikulua.** Toki Inbertsioen Plana: definizioa eta edukia.

1. Toki Inbertsioen Plana azpiegiturak eta zuzkidurak jarri, hobetu eta berritzeko inbertsioen multzoa da, atal hauetan sailkatuta:

A. Inbertsio Programak: atal honetan sartzen dira toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak proposatutako inbertsioak, 2019-2030 aldirako Uraren Ziklo Integralaren Plan Gidariari eta 2017-2027 aldirako Nafarroako Hondakinen Planari dagozkionak.

B. Toki Programazioa: atal honetan sartzen dira toki erakundeek eskatutako inbertsioak, arlo hauetakoak: hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak; zoladura-lanak sareekin; zoladura-lanak sarerik gabe; zeharbideen urbanizazio-lanak eta toki zuzkidurak.

C. Determinazio Libreko Programa: atal honetan sartzen dira toki erakunde onuradunek beraiek zehazten dituzten inbertsioak, beren toki autonomiaz baliatuz.

Inbertsio Programen ataleko plangintza lau urtekoa izanen da 2022-2025 aldirako eta hiru urtekoa 2026-2028 aldirako eta hurrengoetarako, hala badagokio.

Toki Programazioaren ataleko plangintza hiru urtekoa izanen da 2023-2025 aldirako, 2026-2028 aldirako eta hurrengoetarako, hala badagokio.

Determinazio Libreko Programa urtero banatuko da.

2. Toki Inbertsioen Planean sartutako jarduketak gauzatu beharko dira foru lege honetan eta, halakorik bada, legea garatzen duten xedapenetan aurreikusitako baldintzak, programazioa, araubide ekonomiko-finantzarioa eta kudeaketa araubidea betez.

3. Nafarroako toki erakundeek Toki Araubideko Foru Batzordearen bitartez hartuko dute parte Toki Inbertsioen Planaren jarraipenean eta kudeaketaren kontrolean.

**3. artikulua.** Toki Inbertsioen Planaren urteko zuzkidura eta aurrekontu tratamendua.

1. Toki Inbertsioen Planaren zuzkidura 30.000.000 eurokoa izanen da 2022ko ekitaldirako.

Hurrengo ekitaldietarako, urteko zenbatekoa izanen da aurreko ekitaldiko aurrekontuan Kapital Transferentzien Funts gisa jasotakoa, handitua Nafarroako Foru Komunitateak aurreko ekainean daukan urtearteko KPI-Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera, bat etorritik Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluan ezarritakoarekin.

Zuzkidura hori handitzen ahalko da atxikitako diruzaintza gerakinetik datozen ekarpen gehigarriekin, toki erakundeek eskatutako diru-itzulketetatik datozen sarrerekin edo izaera bereko beste kreditu batzuekin.

2. Toki Inbertsioen Planeko kredituak, Nafarroako aurrekontu orokorretan kapital-transferentzia gisa ageri direnak, urte anitzekoak izanen dira eta Nafarroako ekitaldi bakoitzeko aurrekontu orokorretan dagokien programan jasota egonen dira.

3. Toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak gastua baimendu eta konprometitzen ahalko du Toki Inbertsioen Planaren ekitaldi bakoitzean eta etorkizuneko ekitaldien kargura, urterako ezarritako mugaraino, edo artikuluko honen 1. apartatuan aurreikusten diren sarre gehigarriek egiten duten mugaraino.

Konpromiso ekonomikoak egotziko zaizkio foru lege honetan xedatutakoa aplikatuz dagokion ekitaldiari edo ekitaldiei, inbertsioak gauzatzeko aurreikuspenaren eta aurrekontu baliabideen arabera, eta urte anitzeko gastua izanen dira ondorio guztietarako.

Konpromiso horien egozpena aldatzen ahalko da, eta ekitaldi desberdinetara esleitu eta partiden arteko funts mugimenduak egin Toki Inbertsioen Planaren barruan, zerbitzu eskudunak horretarako justifikazio txostena eman ondoren betiere.

Inbertsioen urtekoaren aldaketa ofizioz eginen da toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak emandako ebazpen baten bidez.

4. Toki erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren kapital-transferentzietako diru baliabideak, betebeharraren aitorzaren xede izan ez direnak, jatorria ekitaldi itxietako ekonomietan dutenak, bai eta Toki Inbertsioen Planaren araudia aplikatuta itzulitako kopuruak ere, funts horri atxikitako diruzaintza gerakintzat hartuko dira.

Atxikitako gerakin horrekin handitzen ahalko da hurrengo ekitaldietako kredituen zuzkidura, funts horri egotz dakizkiokkeen aurrekontu betebeharrak betetzeko erabiliko diren kredituena, hain zuzen.

**4. artikulua.** Toki Inbertsioen Planaren zuzkidura ekonomikoaren banaketa.

1. Toki Inbertsioen Planaren urteko zuzkidura honako portzentaje hauen arabera banatuko da hasiera batez:

A. Inbertsio-programak: % 30

B. Toki-programazioa: % 40

C. Determinazio Libreko programa: % 30

Aurrekoa galarazi gabe, 2022ko ekitaldirako, hasiera batean Toki Inbertsioko Planaren zuzkidura zati berdinetan banatuko da Inbertsio Programen eta Determinazio Libreko Programaren artean. 2. Ekitaldi bakoitzean, hasiera batean Inbertsio Programei eta Toki Programazioari esleitutako zenbatekoak aldatzen ahalko dira toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak emandako ebazpen baten bidez, eta bi programen artean berriz esleitu, aurrekontuaren betearazpenerako dauden aurreikuspenen arabera, zerbitzu eskudunak justifikaziorako txostena eman ondoren betiere.

2. Nolanahi ere, plangintzaaldi bakoitzaren bukaeran, programa bakoitzari esleitutako zenbateko orokorrak bat etorriko dira hasiera batean Inbertsio Programei eta Toki Programazioari esleitutako zuzkiduren baturarekin, artikuluko honen 1. apartatuan adierazitakoari jarraikiz.

3. Ekarpene gehigarriak dauden aurrekontu ekitaldietan, horiek erabiliko dira Inbertsio Programei, Toki Programaziorako eta Determinazio Libreko Programarako zenbatekoak proportzionalki handitzeko, non ez den berariaz beste erabilera bat ezartzen.

4. Zenbatekoen hasierako banaketa hiru programen artean toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendari nagusiaren ebazpenetan ezarriko da, hain zuzen ere foru lege honetako 11. artikuluko 1. apartatuan, 16. artikuluko 1. apartatuan eta 30. artikuluan aipatzen diren ebazpen horietan, Inbertsio Programen eta Toki Programazioaren kasuan I. eranskinean adierazten diren ehunekoak betez eta, Determinazio Libreko Programaren kasuan, IV. eranskinean adierazitako irizpideei jarraikiz.

Zenbatekoen hasierako banaketa hori, Inbertsio Programen eta Toki Programazioaren artekoa, aldatzen ahalko da gerora, Toki Administrazio zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez,

zerbitzu eskudunak justifikaziorako txostena eman ondoren betiere, eta arau hauek betez:

A. Inbertsio Programetan, obrak gauzatzeko aurreikuspenen arabera.

B. Toki Programazioan, arrazoi hauetako batengatik:

a. Eskaerak hautatu eta lehenesteko prozeduraren emaitzan oinarrituta, foru lege honen 19. artikuluan adierazitakoari eta III. eranskineko irizpideei jarraikiz.

b. Inbertsioak gauzatzeko aurreikuspenaren ondoriozko beharrak kontuan hartuz.

c. Zeharbideen urbanizaziorako inbertsio lerroaren kasuan, herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren aurrekontu plangintza kontuan hartuz.

5. Hasiera batean, ekitaldi bakoitzean Inbertsio Programei eta Toki Programazioari esleitutako zenbatekoen % 3 gordeko da foru lege honen 24. artikuluan deskribatutako larrialdiko prozeduraren bidez behin betiko sartzen diren inbertsioei eta ordainketei aurre egiteko.

Aurreko paragrafoaren arabera gordetako kopuruetatik ekitaldi bakoitzeko azaroaren 20a baino lehen konprometitu ez direnak erabiltzen ahalko dira Inbertsio Programetako eta Toki Programazioko beste konpromiso batzuei erantzuteko.

**5. artikulua.** Bateragarritasuna.

1. Toki Inbertsioen Planen ekarpenak bateragarriak izanen dira haien artean eta beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik datozen laguntzekin.

2. Toki Inbertsioen Planaren kargurako ekarpena, beste erakunde publiko edo pribatuetatik datozen laguntzekin batuta, inbertsioaren kostu osoa baino handiagoa bada, lehenbizikoa murriztuko da, kostu horrekin bat etorri arte.

## II. TITULUA

### Inbertsioen programak eta toki programazioa

#### 1. KAPITULUA

##### Inbertsioen programak

**6. artikulua.** Inbertsio Programen izaera.

1. Inbertsio Programak 2019-2030 aldirako uraren ziklo integralaren plan gidarian eta 2017-2027 aldirako Nafarroako hondakinen planean jasotako aurreikuspenen arabera gauzatuko dira.

2. 2019-2030 aldirako Nafarroako hiri erabilerrako uraren ziklo integralaren plan gidariaren hel-

burua da, uraren goi-horniduraren arloan, ur eska-riaren kudeaketa egokia egitea, kantitateari nahiz kalitateari dagokionez, biztanleguneak hornidura iturri sendo eta askotarikoak baliatuz hornitzeko.

3. 2017-2027 aldirako Nafarroako hondakinen planaren helburua da Foru Komunitatean hondakinen sorrerari aurrea hartzea eta haien kudeaketa hobetzea, gai hauek landuz, besteak beste: etxeko eta merkataritzako hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa, eta haien birziklatzea, balorizazioa eta deuseztatzea.

4. Toki erakundeen jarduera koordinatzearen ondorioetarako, plan gidari horien tokiz gaindiko interesaren deklarazioa eta aginduzko izaera mantentzen dira.

#### 7. artikulua. Inbertsio motak.

Inbertsio Programen atalean inbertsio lerro hauek daude:

- A. Uraren goi-hornidura.
- B. Hiri hondakinen tratamendua.
- C. Uraren goi-horniduraren inguruko azterketak eta proiektuak

#### 8. artikulua. Inbertsio finantzagarriak.

Inbertsio Programen barruan, honakoak dira inbertsio finantzagarriak:

##### 1. Obra finantzagarriak:

##### A. Uraren goi-hornidura:

Plan gidariarekin bateragarriak diren inbertsioak, hauen ingurukoak: ura hartzea eta erregulatzea, goi-hornidurarako hoditeriak, urak tratatzeko edo edangarri bihurtzeko instalazioak, teleaginte eta telekontrolleko instalazioak, ponpaketa estazioak eta ur-biltegiak, denak biztanlegu- neen hornidurarako. Ezin dira finantzatu ustiapen eta mantentze lanetako gastuak.

##### B. Hiri hondakinen tratamendua:

Plan gidariarekin bateragarriak diren inbertsioak, etxeko eta merkataritzako hondakinetarako azpiegiturei dagozkienak; transferentziaguneak, garbiguneak, biohondakinen tratamendurako, ontziak sailkatzeko eta errefuserako plantak eta hondakin ez-arriskutsuen zabortegiak.

2. Obren proiektua idazteko eta zuzendaritzako ordainsariak, ikus-onetsiak eta beharrezkoak diren

gainerako laguntza teknikoak, alde batera utzita ukipenen kudeaketa.

3. Kalte-ordainen gastuak, ondasun eta eskubi- deak ukitzeagatik, haien titularrak jarduketaren onuradun diren toki erakundeek bestelako per- tsona fisiko edo juridikoa direnean.

4. Nafarroako Toki Inbertsioen Planak inber- tsioa finantzatzen duela aditzera ematen duen kartela, foru lege honen 21. artikulua 7. aparta- tuan adierazitakoarekin bat.

**9. artikulua.** Uraren goi-horniduraren inguruko azterketak eta proiektuak.

Toki Administrazioaren arloko eskumena duen Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartuko du Toki Inbertsioen Planeko kredituetatik uraren goi-horni- durari buruzko azterlan eta proiektuak finantza- tzeko direnak kudeatzeko lana, dela ente instru- mental bati enkargua eginez, dela kontratu publikoei buruzko foru legeriaren arabera kon- tratazio baten bidez, horren barne delarik haiek garatu eta gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu, inbertsio eta jarduketekin lotura duen edozein gastu. Edozein kasutan, ulertuko da gas- tuen aurrekontuan kudeaketa horretarako aitor- tzen diren betebeharrak Toki Inbertsioen Planaren gastu propio direla.

**10. artikulua.** Inbertsioetarako finantzaketaren gehieneko ehunekoak.

1. Uraren goi-horniduraren eta hiri hondakinen tratamenduaren arloan, hauek dira inbertsioak finantzatzeko gehieneko ehunekoak:

a. Zenbateko lagungarriaren % 80 (BEZik gabe), jasandako BEZaren kenkarirako eskubidea sortzen duten inbertsioetarako.

b. Zenbateko lagungarriaren % 95 (BEZik gabe), jasandako BEZaren kenkarirako eskubide- rik sortzen ez duten inbertsioetarako.

2. Finantzaketaren gehieneko ehunekoa inber- tsio lagungarriaren zenbatekoaren gainean aplika- tuko da, zeina hauek batuz lortuko baita:

a. Obra lagungarria: finantzatutako xedea lor- tzeko behar diren inbertsioak.

b. Ordainsari lagungarriak: obra lagungarriaren gaineko ehuneko zehatz batera mugatuak, taula honen arabera:

Kontrata bidezko exekuzioaren aurrekontua, BEZik gabe	Kanpoko kontratazioa	Baliabide berekiak
500.000 eurokoa edo txikiagoa	% 8	% 6
500.000 eurotik gorakoa eta 1.000.000 eurokoa edo txikiagoa	% 7	% 5
1.000.000 eurotik gorakoa	% 6	% 4

c. Ukipean lagungarriak: behar diren gastuak, jarduketaren onuradun diren toki erakundeez bestelako pertsona fisiko edo juridikoen titulartasuneko ondasun eta eskubideak ukitzeagatik ordainketak egiteko, bai eta legez eskatzen diren argitalpenak ere, horien barne dela obrek ukitutako lurren kudeaketarako laguntza teknikoaren gastua, II. eranskinean adierazi bezala.

#### 11. artikulua. Inbertsioak sartzeko prozedura.

Inbertsio Programen atalean, inbertsioak sartzeko prozedura tramite hauei lotuko zaie:

1. Toki Araubidearen Foru Batzordeak txostena egin ondoren, toki administrazioaren eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ebazpen baten bidez onetsiko da zenbatekoen hasierako banaketa inbertsio lerroen artean, eta proposamen bat eginen da Inbertsio Programetan behin-behinean sartu beharreko inbertsioei buruz, honakoak bilduz:

a. Behin-behinean sartu beharreko lehentasunezko inbertsioen zerrenda bat.

b. Erreserbako inbertsioen behin-behineko zerrenda bat, lehentasun ordenaren arabera.

2022-2025 aldirako, proposamena aurkeztu beharko da 15 egun naturaleko epean foru lege honek indarra hartu eta biharamunetik hasita. Aldi horretarako inbertsioen proposamenean jasoko dira, gutxienez, foru lege honen V. eranskinean adierazitako jarduketak.

2026-2028 aldirako, proposamena 2025eko lehen hiruhilekoan egin beharko da.

2. Ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara jendaurreko informaziorako eta alegazioak aurkezteko, argitaratu eta biharamunetik hasita 20 egun naturaleko epean.

Era berean, aipatutako epean, toki erakunde interesdunek, horretarako arrazoiak emanda, lankidetzara araubidea eskatzen ahalko dute beste toki erakunde batzuekin eta/edo Nafarroako Gobernuarekin, eta haiek ente instrumentalen esku uzten ahalko dute exekuzioa.

3. Aurreko apartatuan adierazitako epea iraganik, eta, alegaziorik aurkeztu bada, horiek ebatzi ondoren, toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ebazpen baten bidez onetsiko dira Inbertsio Programetan behin-behinean sarturik dauden inbertsioen zerrendak, honakoek osatuta:

a. Aurrekontu baliabideen kargura behin-behinean sartutako lehentasunezko inbertsioen zerrenda bat.

b. Erreserbako inbertsioen zerrenda bat, lehentasun ordenaren arabera.

Ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara, eta horrek jakinarazpen ondorioak izanen ditu, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoarekin bat.

4. Behin-behinean sartutako inbertsioei buruzko ebazpen hori argitaratu ondoren, toki erakunde onuradunek behin-behinean sartutako lehentasunezko inbertsioen exekuzioari ekiten ahalko diote, behin betiko sartu eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatu aurretik.

Toki erakundearentzat ez da beste eskubiderik sortuko, inbertsioaren exekuzioa hastekoa ez denik.

Inbertsioak behin betiko sartzeko eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatzeko, nolnahi ere, foru lege honetan eta, halakorik bada, legea garatzen duten xedapenetan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

5. 6 hilabeteko epe luzaezinean, artikuluko honen 3. apartatuan aurreikusitako argitalpena egin eta biharamunetik kontatzen hasita, behin-behinean sartutako lehentasunezko inbertsioen titular diren toki erakundeek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a. Erantzukizunpeko adierazpena, inbertsioen planak hartzen ez duen inbertsio zatirako finantzaketa izateari buruzkoa.

b. Exekuzio proiektua.

Proiektua eta obra batera kontratatzen badira, aurreproiektua edo antzeko agiria eta klausula plegua, kontratu publikoari buruzko foru legerian ezarritakoarekin bat.

c. Organo eskudunak exekuzio proiektua onetsi izanaren ziurtagiria.

d. Inbertsioa artikuluko honen 3. apartatuan aipatzen den ebazpena argitaratu aurretik hasi ez izana frogatzen duen ziurtagiria, salbu eta lehengo, obra hasierako baimena ematen duen ebazpen baten babesean, hasitako inbertsioen kasuan. Azken kasu horretan, dagokion zuinketa akta eta obra hasierakoa aurkeztu beharko da.

e. Inbertsioa laburbiltzen duen agiria, administrazioa jakinaren gainean egoteko aurrekontua eta inbertsioaren exekuziorako plangintza, urtez urtekoa, barne direla.

Artikuluko honen 3. apartatuan aipatzen den ebazpenean emanen dira argitara eran-



tzukizunpeko adierazpenerako, ziurtagirietarako eta inbertsioa laburbiltzen duen agirirako ereduak.

6. Dokumentazioa adierazitako epetik kanpo aurkezten bada edo ezarritako epean zuzentzen ez bada, toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak emandako ebazpen baten bidez kasuan kasuko inbertsioa baztertu eginen da behin-behinean sartutako lehentasunezko inbertsioen zerrendatik eta erreserbako zerrendako azken tokian jarriko da.

7. Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunek txosten tekniko, ekonomiko eta juridikoak emanen dituzte proiektuaren egokitasunaz eta, halaber, Toki Inbertsioen Planak hartzen ez duen inbertsio zatiaren finantzaketa izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpenaren egokitasunaz ere, foru lege honetan eta legea garatzen duten xedapenetan xedatutakoarekin bat.

Txosten guztiak aldekoak badira, toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak emandako ebazpen baten bidez inbertsioa behin betiko sartuko da Toki Inbertsioen Planean eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatuko da, gastua konprometituz dagokion urtekoaren edo urtekoen kargura, aurrekontu baliabideekin bat.

Inbertsioak Toki Inbertsioen Planean behin betiko sartzeari eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatzeari buruzko ebazpena eman eta jakinarazteko epea 6 hilabetekoa izanen da gehienez, artikuluko 5. apartatuan aipatzen den dokumentazio guztia aurkezten denetik hasita.

Epe hori amaitzen bada berariazko ebazpena jakinarazi gabe, toki erakunde interesdunak ezeztizat hartuko du bere eskaera, administrazio-isiltasunaren ondorioz.

8. Inbertsioak behin betiko sartzeari buruzko ebazpenean zehaztuko da zein ekitalditan aurkeztu beharko den inbertsioaren justifikazioa, eta beti izanen da gastua konprometituta dagoen azken ekitaldia, foru lege honen 25. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

9. Inbertsioak behin betiko sartzaren direnean, aukera egonen da gehieneko ekarpen ekonomikoa handitzeko, behin-behinean sartzeari finkatutako ekarpenaren % 20 gehienez ere, horretarako arrazoi teknikoak baldin badaude.

Gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatuta dagoelarik ezin izanen da handitzeko aldatu.

Gutzitzeko aldatuko da adjudikazioaren egiazko zenbatekoa lizitazioarena baino txikiagoa dene-

an eta obra finantzarria gauzatzeko kostu erreala adjudikaziorako zenbatekoa baino txikiagoa denean.

Inbertsioen lizitazioa eta adjudikazioa loteka egiten denean, lizitazio eta adjudikazio zenbatekoak osotara kalkulatu dira, lote bakoitzaren zenbatekoak batuz.

**12. artikulua.** Inbertsioak erreserbako zerrendan sartzeko prozedura.

1. Inbertsioak erreserbako zerrendan behin-behinean sartzeko, administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak ebazpen bat emanen du eta bertan jasoko dira, ezarritako ordenan eta aurrekontu baliabideekin bat.

2. Inbertsioak behin betiko sartzeko eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatzeko, aurreko artikuluko 5. apartatuan eta hurrengoetan ezarritako tramiteak beteko dira. 5. apartatuan aipatzen den 6 hilabeteko epea inbertsioak behin-behinean sartzeari buruzko ebazpena jakinarazi eta biharamunean hasiko da kontatzen.

## 2. KAPITULUA Toki programazioa

**13. artikulua.** Inbertsio motak.

1. Toki Inbertsioen Planeko Toki Programazio-ko jarduketak toki inbertsioak dira, dagozkien finantza ekarpenez hornitzen direnak foru lege honetan eta legea garatzen duten xedapenetan ezarritako hautapen eta lehenespen irizpideak eta kudeaketa araubidea aplikatuz.

2. Toki Programazioaren atalean inbertsio lerro hauek daude:

- a. Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak:
- b. Zoladura-lanak sareekin.
- c. Zoladura-lanak sarerik gabe.
- d. Zeharbideen urbanizazio-lanak.
- e. Udal eta kontzejuetako dotazioak.

**14. artikulua.** Inbertsio finantzarriak.

Toki Programazioaren atalean, inbertsio finantzarriak honakoak dira:

1. Obra finantzarriak:

A. Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak:

Ur edangarria banatzeko sareak, 30 urte edo gehiago dituztenak, berritzeko inbertsioak, erregulazio biltegietatik hasi eta etxeetako harguneeta-

raino, bai eta ur beltzen saneamenduko sareak berritzekoak ere, etxeetako harguneetatik araztegiaren aurreko hustubide orokorreraino; ur beltzen eta euri-uren baterako sareen ordeztu sare bereizleak jartzeko inbertsioak, hirigunearen barruan sortutako euri-uren sareak berritu edo jartzekoak eta hiri drainatze jasangarrirako inbertsioak.

#### B. Zoladura-lanak sareekin.

Eraikigintzak finkatutako hiri eremuetan bide publikoen zoladura-lanetarako inbertsioak, horietan, aldi berean, aurreko apartatuko sareak berritzeko inbertsio finantzarri bat ere egitea aurreikusten denean.

#### C. Zoladura-lanak sarerik gabe.

Foru lege honen ondorioetarako, sarerik gabeko zoladura-lanak honako inbertsio hauek dira:

a. Bide publikoen zoladura-lanak eraikigintzak finkatutako hiri eremuetan.

b. Bide publikoen zoladura-lanak, sarbidea emateko toki erakundeko bizilagunen interes orokorreko zerbitzuak ematen dituzten instalazioei edo bizilagun iraunkorrak dituzten etxebizitzetara, horien xede nagusia bada oinezkoen eta/edo zerbitzu publikoen ibilgailuen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea.

c. Lur publikoei eusteko hormak, aurreko paragrafoan aipatzen diren bideetako batean daudenean.

Ez da onartuko sarerik gabeko zoladura-lanak egiteko eskaera proiektatutako bideetan 30 urteko edo gehiagoko hornidurako eta saneamenduko sareak daudenean.

#### D. Zeharbideen urbanizazio-lanak.

Zeharbideen urbanizaziorako inbertsioak, udal eskumeneko azpiegiturei dagokienez, herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiarekin koordinatuta egin beharrekoak.

Finantzarriak izanen dira soilik toki erakunde eskatzailearen eta herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren arteko lankidetzaren hitzarmen baten bidez egiten diren inbertsioak.

Foru lege honen ondorioetarako, zeharbideak hauxe dira: errepide baten hiri barneko tartea, bi bazterretako batean gutxienez herri edo hiriko hiri-bilbaduraren parte diren eraikin finkatuak dituenak.

#### E. Udal eta kontzejuetako dotazioak.

Atal honetan, finantzarriak izanen dira honako inbertsio hauek:

a. Erabilera anitzeko zentro, udaletxe edo kontzeju-etxe gisa erabiliko diren eraikinak egiteko obrak, halako instalaziorik ez duten toki erakundeetan edo horiek birgaitzerik ez dagoenean arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik.

b. Eraikinak edo barrutiak birgaitzea edo erreformatzea, kirol, gizarte, kultura, jolas zentro edo erabilera anitzeko zentro gisa nahiz hilerri, udaletxe, kontzeju-etxe gisa erabiltzeko eta alokatzeko etxebizitzak egiteko, inbertsioaren helburu nagusia hauetako bat edo batzuk direnean:

– Ingurutzaila termikoa hobetzea.

– Ingurutzaila hobetzea hezetasunaren kontra babesteko.

– Egitura egokitzea.

– Irisgarritasuna egokitzea.

– Segurtasuna egokitzea suteen aurrean.

– Energia efizientzia etxeko ur beroa sortzeko.

– Energia efizientzia klimatizazioan.

– Energia efizientzia eraikinaren barruko argi instalazioetan.

– Efizientzia uraren erabilera iturgintzako eta saneamenduko instalazioak berrituz.

– Amiantoa kentzea.

– Berritzea eta/edo handitzea egokitzapen funtzionalerako.

– Igerilekuen eta hilerrien arloan nahitaez bete beharreko araudi espezifikorako egokitzea.

Alokairurako etxebizitzetan egiteko birgaitze edo erreforma lanak finantzarriak izanen dira soilik 500 biztanle edo gutxiago dituzten toki erakundeentzat. Ondorio horietarako, kontuan hartuko da toki erakundeko bizilagunen zifra ofiziala foru lege honen 16. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den ebazpena argitara ematen den egunean.

2. Obren proiektua idazteko eta zuzendaritzako ordainsariak, ikus-onetsiak eta beharrezkoak diren gainerako laguntza teknikoak, alde batera utzita ukipenen kudeaketa.

3. Kalte-ordainen gastuak, onuradun diren toki erakundeez bestelako pertsona fisiko edo juridikoen titulartasuneko ondasun eta eskubideen gaineko ukipena dela eta.

4. Nafarroako Toki Inbertsioen Planak inbertsioa finantzatzeko duela aditzera ematen duen kartela, foru lege honen 21. artikuluko 7. apartatuan adierazitakoarekin bat.



**15. artikulua.** Inbertsioen finantzaketaren gehieneko ehunekoak.

1. Toki Programazioaren barruan, hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareetarako, zoladura-lanak sareekin egiteko eta zeharbideak urbanizatzeko inbertsioak finantzatzeko gehieneko ehunekoak honakoak izanen dira:

a. Zenbateko lagungarriaren % 70 (BEZik gabe), jasandako BEZaren kenkarirako eskubidea sortzen duten inbertsioetarako.

b. Zenbateko lagungarriaren % 85 (BEZik gabe), jasandako BEZaren kenkarirako eskubiderik sortzen ez duten inbertsioetarako.

2. Toki Programazioaren barruan, sarerik gabeko zoladura-lanak egiteko eta udal eta kontzeju zuzkiduretarako inbertsioak finantzatzeko gehieneko ehunekoak honakoak izanen dira:

a. Zenbateko lagungarriaren % 60 (BEZik gabe), jasandako BEZaren kenkarirako eskubidea sortzen duten inbertsioetarako.

b. Zenbateko lagungarriaren % 75 (BEZik gabe), jasandako BEZaren kenkarirako eskubiderik sortzen ez duten inbertsioetarako.

3. Finantzaketaren gehieneko ehunekoa inbertsio lagungarriaren zenbatekoaren gainean aplikatuko da, zeina hauek batuz lortuko baita:

a. Obra lagungarria: obrak sartzeko erabakigarria izan den egoera zuzentzeko beharrezkoak diren inbertsioak, II. eta III. eranskinetan xedatutakoari jarraikiz.

b. Ordainsari lagungarriak: obra lagungarriaren gaineko ehuneko zehatz batera mugatuak, taula honen arabera:

Kontrata bidezko exekuzioaren aurrekontua, BEZik gabe	Kanpoko kontratazioa	Baliabide berekiak
500.000 eurokoa edo txikiagoa	% 8	% 6
500.000 eurotik gorakoa eta 1.000.000 eurokoa edo txikiagoa	% 7	% 5
1.000.000 eurotik gorakoa	% 6	% 4

c. Ukipen lagungarriak: behar diren gastuak, onuradun diren toki erakundeez bestelako pertsona fisiko edo juridikoen titulartasuneko ondatsun eta eskubideak ukitzeagatik ordainketak egiteko, bai eta legez eskatzen diren argitalpenak ere, horien barne dela obrek ukitutako lurren kudeaketarako laguntza teknikoaren gastua.

**16. artikulua.** Inbertsioak behin-behinean sartzeko prozedura.

Inbertsioak behin-behinean sartzeko prozedurak tramite hauek bete beharko ditu:

1. Toki Araubidearen Foru Batzordeak txostena egin ondoren, toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak emandako ebazpen baten bidez onetsiko da zenbatekoen hasierako banaketa egitea inbertsio lerroen artean eta, horrekin batera, inbertsioak hautatu eta lehenesteko baldintzak, Toki Inbertsioen Planeko Toki Programazioaren atalean sartzeko, 19. artikuluan eta III. eranskinean zehazten diren irizpide orokorreki jarraikiz.

2023-2025 aldirako, ebazpena aurkeztu beharko da 15 egun naturaleko epean foru lege honek indarra hartu eta biharamunetik hasita.

2026-2028 aldirako, ebazpena 2024ko lehen hiruhilekoan egin beharko da.

2. Toki erakunde interesdunek bi hilabeteko epean aurkeztu beharko dituzte inbertsioak Toki Programazioaren atalean sartzeko eskaerak, aipatutako ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

3. Zoladura-lanak sareekin egiteko inbertsio-lerroan, soilik onartzen ahalko dira hornidurako, saneamenduko eta euri-uren sareetako inbertsio batekin batera gauzatzekoak diren obretarako eskaerak.

4. Inbertsioak Toki Programazioaren atalean sartzeko eskaerak honako dokumentazio honekin batera aurkeztu beharko dira, galarazi gabe kasuan kasuko ebazpenean ezartzen dena:

a) Inbertsio lerro bakoitzari dagokion eskabide-orria, barne direla denbora programaziorako proposamen bat, inbertsioaren lehentasun ordena, halakoa bada, eta kasuan kasuko ebazpenean ezartzen diren egiaztagiria, eskaerak hautatu eta lehenesteko III. eranskinean zehazten diren irizpide orokorrekin bat.

b. Memoria tekniko baloratua, teknikari esku-dunak izenpetua.

c. Erantzukizunpeko adierazpena, toki erakundearen ordezkariak emana, foru lege honetan ezarritako baldintzak betetzeari eta jasandako BEZaren kenkariari buruzkoa.

d. Eskumenak eskuordetzan ematen direnean, horren egiaztagiria.

e. Kontzejuko komunitatearen interes eskusiboko inbertsioak direnean, kontzejuek Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 39. artikuluko 2. apartatuan xedatutakoaz baliatuz bere gain hartutakoak, foru lege honen 21. artikuluko 2. apartatuan xedatutako betetzeari buruzko egiaztagiria.

Artikulu honen 1. apartatuak aipatzen duen ebazpenarekin batera emanen dira argitara ereduak, eskabide-orriarena, erantzukizunpeko adierazpenarena eta kasuan kasuko egiaztagiriarenak.

5. Eskaerak aurkezteko epea, aurreko artikuluko 2. apartatuan aipatzen dena, bukatu ondoren, inbertsioak hautatu eta lehenetsiko dira, foru lege honen 19. artikuluan eta III. eranskinean adierazten diren irizpideekin bat.

6. Toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ebazpen baten bidez eta eskaerak aurkezteko epea bukatu eta 6 hilabeteko gehieneko epean, onetsiko da Toki Inbertsioen Planeko Toki Programazioaren atalaren inbertsio zerrenda bat, 19. artikuluan adierazitakoari jarraikiz, honako hauek osatua:

a. Aurrekontu baliabideen kargura behin-behinean sartutako lehentasunezko inbertsioen zerrenda bat.

b. Erreserban dauden inbertsioen zerrenda bat.

c. Foru lege honetan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik onartu ezin diren eskaeren zerrenda bat.

Ebazpen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara, eta horrek jakinarazpen ondorioak izanen ditu, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoarekin bat.

7. Aurreko apartatuan aipatzen den ebazpenaren ordean ebazpen independenteak ematen ahaliko dira inbertsio lerro bakoitzeko. Nolanahi ere, baterako ebazpen bat onetsiko da hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako inbertsioen lerro-erako, bai eta zoladura-lanak sareekin egiteko inbertsioetarako ere.

8. Toki erakundeek hasiera ematen ahalko diote behin-behinean sartutako inbertsioen exekuzioari, behin argitaratuta daudela aurreko 6. eta 7. apartatuetan aipatzen den ebazpena edo ebazpenak, inbertsioak behin betiko sartu eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatu aurretik, baina toki

erakundearentzat inbertsioaren exekuzioa haste-koaz beste eskubiderik ez da sortuko.

Inbertsioak behin betiko sartzeko eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatzeko, nolani ere, foru lege honetan eta, halakorik bada, legea garatzen duten xedapenetan ezarritako baldintzak bete beharko dira.

**17. artikulua.** Inbertsioak behin betiko sartzeko prozedura.

Toki Programazioaren atalean, inbertsioak behin betiko sartzeko prozedurak tramite hauek bete beharko ditu, alde batera utzita zeharbideen urbanizazio-lanen atala:

1. 4 hilabeteko epe luzaezinean, aurreko artikuluko 6. eta 7. apartatuetan aipatzen den ebazpena edo ebazpenak argitaratu eta biharamunetik hasita, behin-behinean sarturik dauden inbertsioen titular diren toki erakundeek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

a. Erantzukizunpeko adierazpena, inbertsioen planak hartzen ez duen inbertsio zatirako finantzaketa izateari buruzkoa.

b. Exekuzio proiektua, kontratu publikoei buruzko foru legerian ezarritakoari jarraikiz.

c. Organo eskudunak exekuzio proiektua onetsi izanaren ziurtagiria.

d. Inbertsioa behin-behinean sartzeari buruzko ebazpena edo ebazpenak argitaratu aurretik haren exekuzioa hasi ez izana frogatzen duen ziurtagiria, salbu eta lehenago, obra hasierako baimena ematen duen ebazpen baten babesean, hasitako inbertsioen kasuan. Azken kasu horretan, dagokion zuinketa akta eta obra hasierakoa aurkeztu beharko da.

e. Inbertsioa laburbiltzen duen agiria, administrazioa jakinaren gainean egoteko aurrekontua eta inbertsioaren exekuziorako plangintza, urtez urtekoa, barne direla.

f. Udal eta kontzejuetako zuzkiduren lerroari dagozkion inbertsioen kasuan, erantzukizunpeko adierazpena, inbertsioa proiektatzen den zuzkidurak edo lurak erabilgarri izateari buruzkoa.

g. Alokatzeko etxebizitzetarako birgaitze edo erreforma inbertsioak direnean, toki erakundearen konpromisoa etxebizitza ez besterentzeko gutxienez ere 30 urteko epean, eta alokairuan emateko gutxienez ere 15 urtez.

Aurreko artikuluen 6. eta 7. apartatuetan aipatutako ebazpenean edo ebazpenetan emanen dira argitara dokumentaziorako ereduak: eran-

tzukizunpeko adierazpenarena, ziurtagirienak eta inbertsioa laburbiltzen duen agiriarena.

2. Dokumentazioa adierazitako epetik kanpo aurkezten bada edo ezarritako epean zuzentzen ez bada, toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak emandako ebazpen baten bidez kasuan kasuko inbertsioa baztertu eginen da behin-behinean sartutako lehentasuneko inbertsioen zerrendatik eta erreserbako zerrendako azken tokian jarriko da.

3. Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiko zerbitzu eskudunek txosten tekniko, ekonomiko eta juridikoak emanen dituzte proiektuaren egokitasunaz eta, halaber, Toki Inbertsioen Planak hartzen ez duen inbertsio zatiaren finantzaketa izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpenaren egokitasunaz ere, foru lege honetan eta legea garatzen duten xedapenetan xedatutakoarekin bat.

Txosten guztiak aldekoak badira, toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak emandako ebazpen baten bidez jarduketa behin betiko sartuko da Toki Inbertsioen Planeko Toki Programazioaren atalean, eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatuko da, gastua konprometitzu dagokion urtekoaren edo urtekoen kargura, aurrekontu baliabideekin bat.

Inbertsioak Toki Inbertsioen Planean behin betiko sartzeari eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatzeari buruzko ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilabetekoa izanen da, artikuluko 1. apartatuan aipatzen den dokumentazio guztia aurkezten denetik hasita.

Epe hori amaitzen bada berariazko ebazpena jakinarazi gabe, toki erakunde interesdunak ezeztatzat hartuko du bere eskaera, administrazio-isiltasunaren ondorioz.

4. Inbertsioak behin betiko sartzeari buruzko ebazpenean zehaztuko da zein ekitalditan aurkeztu beharko den inbertsioaren justifikazioa, eta beti izanen da gastua konprometituta dagoen azken ekitaldia, foru lege honen 25. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

5. Inbertsioak behin betiko sartzen direnean baimena egonen da gehieneko ekarpen ekonomikoa handitzeko, inbertsioa behin-behinean sartzean finkatutakoaren % 10 gehienez, horretarako arrazoi teknikoak baldin badaude.

Gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatuta dagoelarik ezin izanen da handitzeko aldatu.

Gutzitzeko aldatuko da adjudikazioaren egiazko zenbatekoa lizitazioarena baino txikiagoa dene-

an eta obra finantzarria gauzatzeko kostu erreala adjudikaziorako zenbatekoa baino txikiagoa denean.

Inbertsioen lizitazioa eta adjudikazioa loteka egiten denean, lizitazio eta adjudikazio zenbatekoak osotara kalkulatu dira, lote bakoitzaren zenbatekoak batuz.

**18. artikulua.** Zeharbideen urbanizaziorako inbertsioak sartzeko prozedura.

Zeharbideen urbanizaziorako inbertsioak sartzeko prozedura aurreko artikuluetan aurreikusitakoa izanen da, berezitasun hauekin:

1. Zeharbideen urbanizaziorako inbertsioak behin-behinean sartzeko eskaerekin batera 16. artikuluko 4. apartatuan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Dokumentazio horri erantsiko zaio toki erakundeak, zeharbidea erreformatzeko asmoa duela komunikatzeko, herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusian aurkeztutako eskabidearen kopia, edo, aplikatu beharreko araudiarekin bat, zuzendaritza nagusiaren adostasuna lortu izana frogatzen duten agiriak, dagokionean.

2. Toki erakundeek hasiera ematen ahalko diote behin-behinean sartutako inbertsioen exekuzioari, 16. artikuluko 8. apartatuan aurreikusitakolari jarraikiz, soilik formalizatu baldin bada inbertsioa gauzatzeko dagokion lankidetzaren hitzarmena herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiarekin.

3. Inbertsioa gauzatzeko dagokion lankidetzaren hitzarmena herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiarekin izenpetu eta 2 hilabeteko epe luzaezinean, behin-behinean sartutako inbertsioen titular diren toki erakundeek 17. artikuluko 1. apartatuan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Dokumentazio horrez gain, herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiarekin formalizatutako lankidetzaren hitzarmena aurkeztuko da.

**19. artikulua.** Eskaerak hautatu eta lehenestea.

1. Toki Programazioaren ataleko eskaerak hautatu eta lehenesteko honako formula hau erabiliko da:

$$CSP=0,85GNI+0,15VAP$$

Azalpena:

CSP eskaerak hautatu eta lehenesteko koefizientea da.

GNI: inbertsiorako beharraren maila.

VAP: toki erakundeak aurreko Toki Inbertsioen Planetatik jaso dituen ekarpenen bolumenaren adierazlea.

2. Inbertsiorako beharraren maila neurtzen duen aldagaiak honela kalifikatzen ditu eskaerak: premiazko inbertsioak, epe laburrera beharrezkoak diren inbertsioak, inbertsio komenigarriak edo lehentasunik gabeko inbertsioak; haietako bakoitzari balio hauetako bat esleitzen dio:

GNI = 10 premiazko inbertsioei.

GNI = 8 epe laburrean beharrezkoak diren inbertsioei.

GNI = 4 komenigarri diren inbertsioei.

Ez zaie baliorik esleitu lehentasunik gabeko inbertsioen kalifikazioa dutenei, eta ez dira onartuko ez lehenetsiko.

Inbertsiorako beharraren maila ezartzen duten kalifikazioak ezarriko dira III. eranskineko irizpideen eta sailkapen orokorraren arabera, eta esleitu-ko dira oinarri hartuta toki erakundeek igorritako informazioa eta toki azpiegituren arloko eskumena duen zerbitzuko teknikariek egindako ikuskapen bisitak; zerbitzu horrek behar diren azterketak egiten ditu, beste zuzendaritza nagusi eta erakunde batzuetako pertsona batzuen parte-hartzearekin, hala nahi badu, eta aldagaia zehazteko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketa guztiak egiten ahalko ditu.

3. Ekarpeneen bolumenaren adierazlea 1etik 10era doan eskala bateko balioak esleitzen dituen aldagai bat da, hiru dezimalera ekarrita, kalkulatu-ko direnak alderantzizko proportzioa eginez azken bi toki inbertsio planetan edo plangintza aldietan Toki Programazioaren eta zeharbideen urbanizazio-lanen ataletan inbertsioen onuradun izan den toki erakundeak izandako per capita ekarpenarekin.

1eko balioa esleitu-ko zaio per capita ekarpen handiena duen toki erakundeari eta 10eko balioa, berriz, per capita ekarpen txikiena duen toki erakundeari. Gainerako puntuazioak balioen interpolazio lineala eginez aterako dira.

Aldagai honen kalkulua foru lege honen III. eranskinean adierazitakoarekin bat eginen da.

4. Eskaerak handienetik txikienera ordenatuko dira, inbertsio lerro bakoitzean bakoitzak duen hautapen eta lehenespen koefizientearen balioaren arabera.

Bi eskaerak edo gehiagok puntuazio bera badute, biztanle kopuru txikiena duen toki erakundearen alde ebatziko da. Berdinketa hori toki era-

kunde batek aurkeztutako bi eskaeraren edo gehiagoren artean gertatzen bada, toki erakundeak bere eskaeran adierazitako lehentasun ordenaren arabera ebatziko da.

Eskaerak ez dira behin-behinean sartuko Toki Inbertsioen Planaren finantzaketarik ez badagokie, foru lege honen II. eranskinean esleitutako gehieneko ekarpen ekonomikoaren muga gainditzeagatik.

5. Hautapen eta lehenespen koefizientearen balioak ezarritako ordena kontuan hartuz zehaztu-ko dira 6,95 puntu edo gehiago izanik inbertsio lerro bakoitzean behin-behinean sartzen ahal diren inbertsioak, aurrekontu baliabideen kargura eta I. eranskinean ezarritako hasierako bateko ehunekoekin bat etorritz.

6,95 puntu edo gehiago izanik, aurrekontu baliabiderik ez dagoelako behin-behinean sartu ezin diren eskaerak eta 6,95 baino puntu gutxiago dituztenak erreserbako inbertsioen zerrendetan sartuko dira, hautapen eta lehenespen koefizientearen balioak eskaera bakoitzari ezarritako ordena kontuan hartuz.

**20. artikulua.** Inbertsioak erreserbako zerrendan sartzeko prozedura.

1. Foru lege honen 16. artikuluko 6. eta 7. apartatuetan aipatzen den ebazpena edo ebazpenak onetsi ondoren, toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ebazpen baten bidez onetsiko da erreserban dauden inbertsioen zerrenda bakar bat, eskaera bakoitzaren hautapen eta lehenespen koefizienteak ezartzen duen ordenarekin.

Inbertsio lerro desberdinetako eskaeren artean berdinketa gertatzen bada puntuazioan, inbertsioak honekin bat ordenatuz ebatziko da:

a. Lehenengo eta behin, hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareetarako inbertsio bat, halakorik bada, zoladura-lanak sareekin egiteko inbertsioarekin eta euri-uretako sarearen inbertsioarekin, batera egitekoak.

b. Bigarrenik, udal eta kontzejuetako zuzkiduren ataleko inbertsio bat.

c. Hirugarrenik, zeharbideen urbanizaziorako inbertsio bat.

d. Laugarrenik, sarerik gabeko urbanizaziorako inbertsio bat.

Berdinketak irauten badu, behar den guztietan errepikatuko da ordena hori.

2. Inbertsioak erreserbako zerrendan behin-behinean sartzeko, toki administrazioaren arloko

eskumena duen zuzendaritza nagusiak ebazpen bat emanen du, aurrekontu baliabideak kontuan hartuz, eta erreserban dauden inbertsioen zerrenda bakarraren ordenan.

Inbertsioak sartuko dira foru lege honen 4. artikuluko 1. apartatuan Toki Programaziorako ezarritako mugara iritsi arte, behar den zenbatekoa gordeirik aurre egiteko larrialdiko prozeduraz sar daitezkeen inbertsioei, 4. artikuluko 5. apartatuan adierazitakoarekin bat, eta 17. artikuluko 5. apartatuan arautzen diren gehikuntzei.

3. Inbertsioak behin betiko sartzeko eta gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatzeko, foru lege honen 17. artikuluan edo, kasua bada, 18. artikuluan ezarritako tramiteak beteko dira. 17. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den 4 hilabeteko epea inbertsioak behin-behinean sartzeari buruzko ebazpena jakinarazi eta biharamunean hasiko da kontatzen.

4. Erreserban dauden inbertsioen zerrenda bakarra toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren web orrian edo nafarroa.eus atarian emanen da argitara, eta etengabe eguneratuko.

5. Erreserbako inbertsioak behin-behinean sartzeko ahalko dira plangintza aldi bakoitzeko azken ekitaldiko uztailearen 31 arte. Egun horretatik aurrera erreserbako inbertsioen zerrenda bakarrak ez du ondorioz izanen.

### 3. KAPITULUA

#### Inbertsio programei eta toki programaziorari buruzko xedapen komunak

**21. artikulua.** Inbertsioen betebeharrak orokorrak.

1. Inbertsioen exekuzioa ezin izanen da hasi behin-behinean sartutako inbertsioen zerrendak argitaratu aurretik, salbu eta honakoetan:

A. Toki inbertsioen aurreko planaren indarraldian emandako hasiera baimenen babesean hasi edo amaitutako inbertsioak.

B. Larrialdiko inbertsioetat hartzen direnak.

C. Hasiera baimena duten inbertsioak, foru lege honen 23. artikuluan adierazitakoarekin bat.

2. Inbertsioek toki erakunde eskatzaileak ematen dituen zerbitzuekin lotuta egon beharko dute. Eskuordetza eginez gero, lotura hori frogatu beharko da. Eskuordetak toki araubideari buruzko oinarritzko legeetan xedatutakoarekin bat etorri beharko du.

Kontzejuko komunitatearen interes eksklusiborako inbertsioak sartzeko ahalko dira, haiek bere

gain hartuta dituztenak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legeko 39. artikuluko 2. apartatuan xedatzen diren ondorioz.

Halakoetan, kontzejuk adierazpen bat eskatu beharko dio bere udalari, obra edo zerbitzu horiek egin edo ematen dituen adierazteko, eta eskabidearekin batera aurkeztu. Kontzejuk 10 egun balioduneko epean erantzunik jasotzen ez badu, ulertuko da udalak ez duela kasuko lan edo zerbitzu hori egiten edo ematen.

3. Inbertsioak Nafarroako Gobernuarekin lankidetzara araubidean egiteko, beharrezkoak diren lankidetzara hitzarmenak formalizatu beharko dira.

4. Lankidetzara hitzarmenak izenpetzen ahalko dira zenbait toki erakunde batera gauzatu behar dituzten obren kudeaketarako.

5. Ez dira zerrendan sartuko honako inbertsio hauek:

a. Bizilagun iraunkorrik ez duten biztanlegunetarako inbertsioak.

b. 15 urte baino gutxiagoko antzinatasuna duten azpiegiturak konpondu edo berritzeko obrak, eta 30 urte baino gutxiagokoak, hornidura eta saneamendu-sareetako inbertsioen kasuan.

Ez da antzinatasunaren irizpidea aplikatuko inbertsioen xede nagusia denean energia auzuetako jarduketak eta/edo irisgarritasun arlokoak egitea.

c. Osorik nahiz zati batean lagapenean edo errentan dauden edo partikularrei erabilera pribaturako lagapenean edo errentan eman nahi zaizkien ondasun publikoetan (higiezinak edo guneak) egin beharreko inbertsioak. Aurrekoa ez da aplikatuko etxebizitzak alokairuan emateko gaitu edo erreformatzeko inbertsioetan.

d. Aplikatu beharreko hirigintza araudiaren arabera jabeek edo sustatzaileek ordaindu beharreko urbanizazio lanak.

e. Industrialdeetarako edo merkataritza-guneetarako inbertsioak.

f. Administrazioak, auzolanek eta/edo baliabide propioekin gauzatu beharreko inbertsioak.

6. Eskaren zuzenketak eta dokumentazio eskeak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean oro har ezarritakoaren arabera egiten dira.

7. Ekarpenean onuradun diren toki erakundeek Nafarroako Toki Inbertsioen Planaren kargura



finantzatutako inbertsioen publizitatea egin behar-ko dute.

Era berean, toki erakundeek inbertsioez egiten duten publizitate orotan jaso behar-ko da finantzaketa horren aipamena.

Horrez gain, obrak gauzatu bitartean, jendeak argi ikusteko toki batean jarri behar-ko da kartel bat, gutxienez ere 290 x 190 cm-ko neurrikoa, toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendari nagusiaren ebazpenetan zehazten den ereduaren arabera (ebazpen horiek 11. artikuluko 3. apartatua eta 16. artikuluko 6. apartatua aipatzen dira, hurrenez hurren).

**22. artikulua.** Proiektuak hobetzea eta aldatzea.

1. Inbertsioen xedeei ezin izanen zaie hobekuntzarik gehitu adjudikazio prozedura baten ondorioz.

2. Proiektuak gauzatzeko baldintza teknikoak aldatzen ahalko dira ustekabeko beharreatatik, hobekuntza teknologikoengatik edo bestelako arrazoi objektiboengatik, horren ondorioz aldatzen ez badira eskaeraren xede den inbertsioaren ezaugarriak, eta horretarako ezartzen den gehieneko zenbateko lagungarria gainditu gabe. Proiektuan administrazio espedientea behar duen edozein aldatzea egiteko, haren berri eman behar-ko zaio aldeztu aurretik toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiari.

**23. artikulua.** Hasiera baimena.

1. Hasiera baimena eskatzen ahalko da honelakoetan:

A. Erreserbako inbertsioen zerrendetan dauden inbertsioak, foru lege honen 11. artikuluko 3. apartatua eta 16. artikuluko 6. apartatua aipatzen diren ebazpenak argitaratu eman ondotik.

B. Uraren goi hornidurako eta hiri hondakinen tratamenduko inbertsioak eta Toki Programazioko inbertsioak, zerbitzu eskudunak premiazkotzat jotzen dituenak.

2. Hasiera baimena eskatzen duten toki erakundeek dokumentazio hau aurkeztu behar-ko dute eskaerarekin batera:

A. Aurreko ataleko A letrako inbertsioetarako:

a. Erantzukizunpeko adierazpena, inbertsioaren finantzaketa osoa izateari buruzkoa.

b. Exekuzio proiektua.

Proiektua eta obra batera kontratatzen badira, aurreproiektua edo antzeko agiria eta klausula

plegua, kontratu publikoei buruzko foru legerian ezarritakoarekin bat.

c. Organo eskudunak exekuzio proiektua onetsi izanaren ziurtagiria.

d. Zeharbideen urbanizazio-lanen lerroko inbertsioetarako, herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiarekin behar bezala formalizatutako lankidetzaren hitzarmena.

B. Aurreko ataleko B letrako inbertsioetarako, aurreko ataleko A letrako dokumentazioaz gain honakoa ere aurkeztuko dute:

a. Uraren goi-hornidurako eta hiri hondakinen tratamenduko inbertsioetarako, premiazko izaera arazoituz justifikatzen duen txosten teknikoak.

b. Toki Programazioko inbertsioetarako, foru lege honen 16. artikuluko 4. apartatua a letrak aipatzen duen eskabide-orria.

3. Toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiko zerbitzuek txosten tekniko, ekonomiko eta juridikoak emanen dituzte, zehazteko bai proiektua bai inbertsioaren finantzaketa osoa izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpena bat datorren foru lege honetan eta legea garatzen duten xedapenetan ezarritakoarekin.

Artikulu honen 1. apartatua B letran jasotzen den hasiera baimenaren eskaerak direnean, zerbitzu eskudunak emanen du txosten bat inbertsioaren premiazko kalifikazioari buruz.

Premiazkotzat hartuko dira uraren goi-hornidurako eta hiri hondakinen tratamenduko eskaerak, plangintza aldi berri bat hasi arte atzeratu ezin direnak, eta Toki Programazioko eskaerak, premiazkotzat jotzen direnak inbertsiorako behar-rraren maila ezartzen duen aldagaiaren arabera, foru lege honen 19. artikuluan eta III. eranskinean xedatutakoarekin bat.

Txosten guztiak aldekoak baldin badira, toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak hasiera baimena emanen du ebazpen baten bidez.

4. Hasiera baimenak ez du eskubiderik sortzen, obrak ezarritako epeez kanpo hastekoa ez denik.

5. Hasiera baimena urtebetara iraungiko da, hura emateko ebazpena jakinarazten denetik hasita. Obren hasierako data zuzentzea eta obra hasierako aktan jasotzea izanen da.

**24. artikulua.** Larrialdiko prozedura.

1. Arau honen ondorioetarako, ulertuko da larrialdiko jarduketak direla foru lege honen 8. eta 14. artikuluetan aurreikusten diren azpiegiturak eta zuzkidurak lehengoratzeko behar direnak, hondamendien, arrisku larria dakarten egoeren edo segurtasunari edo osasun publikoari eragiten dioten beharren ondorioz.

2. Toki Inbertsioen Planean sartzen ahalko dira prozedura horren bidez larrialdiko kontratazioa baliatuz egindako inbertsioak kontratu publikoei buruzko foru legeriarekin bat.

3. Toki erakundeak larrialdiko jarduketaren kalifikazioa eskatuko du hamar egun balioduneko gehieneko epean hura gertatzen den edo haren berri izaten den egunetik aurrera, dokumentazio hau erantsita:

a. Larrialdiko egoeraren argazki zehatzak, edozein esku-hartze baino lehenagokoak.

b. Jarduketa larrialdikotzat hartzeko bide ematen duten inguruabarrak egiaztatzen dituen txostena, kausak azalduz, ezagunak badira, eta balizko ondorioak.

c. Kokapenaren plano orokor georreferentziatua.

d. Egin beharreko jarduketaren hasierako aurreikuspen baloratua.

4. Zerbitzu eskudunak, ikuskapeneko bisita egin ondoren, txosten lotesle bat egingen du jarduketa, artikuluko honen ondorioetarako, larrialdikotzat hartzea onartu edo ukatzeari buruz, eta zehaztuko du zein diren Toki Inbertsioen Planean sartzen ahal diren jarduketak.

5. Toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiak emandako ebazpen baten bidez larrialdiko kalifikazioa emanen zaio jarduketari, lehen aipatutako txostena aldekoa bada.

6. Toki erakundeak justifikatu beharko du inbertsioa gauzatu duela, gehienez ere urtebeteko epean larrialdiko kalifikazioari buruzko ebazpena jakinarazten denetik, dokumentazio hau aurkeztuz:

a. Organo eskudunak kontratazioa onartu izanaren ziurtagiria, Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu zela adierazita.

b. Egindako jarduketaren deskribapena eta horien dokumentazio grafikoa.

c. Likidazioa atalez atal, edo faktura xehatua.

d. Fakturak eta ordainketen bankuko frogagiriak.

e. Laguntza jaso izanaren ziurtagiria.

f. Nafarroako kontratu publikoei buruzko foru legeria bete izanaren ziurtagiria.

7. Toki erakundeek eskatzen ahalko dute larrialdiko inbertsioak gauzatu izana justifikatzeko epea luzatzea, foru lege honen 25. artikuluko 7. apartatuan zehaztutakoari jarraikiz.

8. Toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ebazpen baten bidez finkatuko da gehieneko ekarpen ekonomikoa, 10. eta 15. artikuluetan eta II. eranskinean xedatutakoarekin bat, artikuluko honen 6. apartatuan aipatzen den dokumentazioa oinarri harturik, eta gastua dagokion urtekoaren kargura konprometituko da, aurrekontu baliabideak kontuan hartuz.

9. Gehieneko ekarpen ekonomikoa osorik ordainduko da ofizioz, aurreko apartatuan aurreikusitako ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, inbertsio ekitaldi horretarako konprometiturik badago.

Gastua etorkizuneko ekitaldi baterako konprometiturik badago, ordainketa ekitaldi horretako martxoaren 31 baino lehen egingen da.

10. Larrialdiko izaeraren kalifikazioa iraungi egingen da obrak benetan hasi ez badira urtebeteko epean inbertsioa larrialdikotzat jotzen duen ebazpena jakinarazten denetik hasita. Inguruabar horren egiaztapena egingen dute zerbitzu eskuduneko teknikariek, ikuskapeneko bisita eginez.

**25. artikulua.** Ekarpeneko ekonomikoaren ordainketa eta justifikazioa.

1. Gehieneko ekarpen ekonomikoa toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren ebazpen baten bidez ordainduko da.

Oro har, ordainketa bi zatitan egingen da:

a. Gehieneko ekarpen ekonomikoaren % 65 ordainduko da ofizioz, bi hilabeteko epean inbertsioa behin betiko sartzeari buruzko ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita, inbertsioa edo haren zati bat ekitaldi horretarako konprometiturik badago.

Gastua etorkizuneko ekitaldietarako konprometituta baldin badago, gastua konprometituta dagoen lehen ekitaldiko martxoaren 31 baino lehen egingen da ordainketa.

b. Ekarpenearen gainerakoa inbertsioa justifikatu ondoren ordainduko da. Obra bukaerako ordainketa eskatu eta inbertsioa justifikatzeko



dokumentazioa aurkezteko gehieneko epea azaroaren 20an bukatuko da, inbertsioa behin betiko sartzeko ebazpenean ezartzen den ekitaldikoan, eta ekitaldi hori izanen da gastua konprometituta dagoen azkena, foru lege honen 11. eta 17. artikuluetan aurreikusita dagoen bezala.

3. Behin-behinean sartuta daudelako edo hasiera baimena dutelako gauzatuta dauden inbertsioak direnean, ordainketa bakarra egiten ahalko da, inbertsioa justifikatu ondoren, eta aurrekontu baliabideak gonez gero.

4. Inbertsioaren justifikazioari dagokion ordainketa eskatzen bada inbertsioa behin betiko sartzeko ebazpenean ezartzen dena baino lehenagoko ekitaldi batean, ordainketa egiten ahalko da baldin eta bermaturik badaude ekitaldi horretako konpromisoak ordaintzeko behar diren zenbatekoak.

5. Inbertsio bati dagokion ekarpen ekonomikoaren % 65 ordaintzeko aurrekontu baliabiderik ez badago, ekitaldiko aurrekontu mugara iritsi delako, ehunekoia jaisten ahalko da, eta gainerakoa hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoan ordainduko da.

6. Obra bukaerako ordainketa egiteko eskaerarekin batera ondotik aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da inbertsioa gauzatu dela justifikatzeko, eta osatzen ahalko da foru lege honen 11. artikuluko 3. apartatua eta 16. artikuluko 6. apartatua aipatzen diren ebazpenetan jasotzen denarekin:

a. Nafarroako Kontratazioaren Atarian adjudikazioa argitaratu zen eguna eta URL helbidea.

b. Idazkaritzako titularraren ziurtagiria, obraren proiektua idazteko eta zuzendaritzako ordainsarien adjudikazioa egiaztatzen duena, adierazita izena edo sozietate-izena, identifikazio fiskaleko datuak eta adjudikazioaren zenbatekoa.

c. Zuinketa eta obra hasierako aktaren kopia.

d. Obraren harrera aktaren kopia.

e. Jatorrizkoaren azken ziurtagiria, gutxienez ere jabetzak eta obra zuzendaritzak izenpetutako neurketa xehatuekin.

f. Prezio kontrajarrien akta.

g. Obra bukaerako memoria eta bukaerako egoeraren planoak.

h. Fakturen kopia.

i. Bankuko ordainketen frogagiriak; obra bukaerako ordainketaren jakinarazpena egin eta bi hilabetera aurkezten ahalko dira gehienez ere.

j. Idazkaritzako titularraren egiaztatzea, obren finantzaketari buruzkoa, berariaz adierazita jasotako edo onartutako dirulaguntzak edo laguntzak.

k. Idazkaritzako titularraren egiaztatzea, kontratazio publikoari buruzko foru legeria betetzeari buruzkoa.

l. Uraren goi-hornidurako inbertsioetarako, plano georreferentziatuak, emandako formatuan.

Toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendari nagusiaren ebazpenetan, 11. artikuluko 3. apartatua eta 16. artikuluko 6. apartatua aipatzen direnetan, hurrenez hurren, argitara emanen dira finantzaketari eta kontratuen foru legeria betetzeari buruzko ziurtagiriaren ereduak.

7. Behar bezala justifikatutako salbuespeneko inguruabarrak direla eta, toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, inbertsioa gauzatu izanaren frogagiriak aurkezteko epea luzatzen ahalko da, behin bakarrik, hurrengo ekitaldiko azaroaren 20ra arte; horretarako, toki erakundeak eskaera arrazoitua aurkeztu beharko du aurretik, dagokion ekitaldiko azaroaren 2a baino lehen.

Edonola ere, toki erakundearen eskaera eta luzapenari buruzko erabakia kasuan kasuko epea mugaeguneratu aurretik egin beharko dira. Ez da inola ere luzatuko mugaeguneraturik dagoen epe bat. Epeak luzatzeko erabakien edo luzapenari uko egitekoen kontra ez da errekurtsorik aurkezten ahal, bai ordea prozedurari bukaera ematen dion ebazpenaren kontra.

## **26. artikulua.** Ez-betetzeak eta diru-itzulketak.

1. Ondotik aipatzen direnak gertatuz gero, ordaindutako zenbatekoak osorik edo zati batean itzuli beharko dira, edo onartutako ekarpena osorik nahiz zati batean kobratzeko eskubidea galduko da, betiere dagokion espedientea tramitatu ondoren eta interesdunei entzutea emanda 10 egun balioduneko epean:

a. Inbertsioa Toki Inbertsioen Planean sartzeko erabakigarriak izan diren baldintzak ez betetzea, edo baldintza horiei buruzko informazioa faltsutu edo ezkutzea.

b. Emandako dirua jarduketa finantzarrietarako ez beste xede baterako erabiltzea.

c. Ekarpeneren xedea bete izana justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo nahikoa ez justifikatzea.

d. Ekarpinari Toki Inbertsioen Planaren beste ekarpen batzuk edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen laguntzak gehituz gero, zenbate-

koa inbertsioaren kostu osoa baino handiagoa izatea. Halakoetan, ekarpena gutxituko da eta, hala badagokio, inbertsioaren kostuaren gainetik lortutakoa itzultzeko eskatuko da.

e. Obrak planean sartu eta gerora gertatutakoen inguruko inbertsioaren exekuzioa bukatzerik ez izatea.

f. Inbertsioak gehieneko ekarpen ekonomikoa finkatzen duen edo, hala badagokio, epea luzatzen duen ebazpenean ezarritako datan ez justifikatzea.

2. Inbertsioa Toki Inbertsioen Planean sartzeko erabakigarriak izan diren baldintzak ez betetzeak, edo haiei buruzko informazioa faltsutu edo ezkutatzeak, bai eta inbertsio finantzarria osorik ez gauzatzeak edo justifikatzeko betebeharrak ez betetzeak ere, kobratzeko eskubidea osotara galtzea ekarriko du eta, hala badagokio, jasotako ekarpena osorik itzuli behar izatea.

3. Toki erakunde onuraduna exekuzioa osorik betetzetik gertu dagoenean eta konpromisoak betetzeko zalantzarik gabe jardun duela frogatzen badu, ez-betetzea partzialtzat joko da eta ekarpenaren itzulketa edo galera ere partziala izanen da, egin edo justifikatu ez den inbertsio lagungarriaren zatiari dagokion ehunekoa adinakoa.

Exekuzioa osorik betetzetik gertu dagoela ulertuko da gauzatutako obraren zatia behar bezala justifikatu denean eta aurreikusitako erabilera publikorako erabiltzeko moduan dagoenean. Hala-koetan, jatorrizkoaren obra ziurtagiria onartuko da, obra bukaerako ziurtagiriaren ordean, betiere jabetzak, obra zuzendaritzak eta enpresa kontratistak izenpetuta, eta ez da beharrezkoa izanen harrera akta aurkeztea.

4. Inbertsioaren justifikazioa atzeratzen bada, artikuluko honen 1. apartatuko f letran aurreikusi bezala, ekarpenaren itzulketa edo galera partziala zehaztuko da proportzionaltasun printzipioa aplikatuz, zenbat egun atzeratu den kontuan hartuz.

Atzerapen egun natural bakoitzeko zenbatekoa 50 eurokoa izanen da, gehienez ere sei hilabete arte.

Atzerapena sei hilabetetik gorakoa denean jasotako ekarpen osoaren itzulketa exijituko da.

5. Itzulketa eskatzeko ebazpena toki erakunde-ari jakinaraziko zaio, sarrera egiteko tokia, modua eta epea adieraziz, eta ohartaraziko zaio ezen, itzulketa epean egin ezean, premiamendu bidezko bilketarako prozedura aplikatuko dela, Nafarroako Ogasun Publikoa arautzen duen legerian aurreiku-

sitakoarekin bat, foru lege honen kontra ez doan guztian.

6. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 123. artikuluko 11. apartatuan ezarritakoari jarraikiz, kapital-transferentzien funtsetik jasotako kopuruak itzultzeko eskatzen bada, berandutze-interesak sortuko dituzte itzulketarako ezarritako epea mugaeguneratzen denetik aurrera, eta ez ordainketatik aurrera, partaidetzako baliabideak baitira, dirulaguntza izaerarik gabekoak.

Eskatutako itzulketetatik datozen zenbatekoek kapital-transferentzien funtsaren izaera izanen dute eta funts horren hasierako zuzkidurari gehituko zaizkio sarrera egin eta hurrengo ekitaldian.

**27. artikulua.** Erakundeen ondorengotza eta titulartasun aldaketak.

1. Toki erakunde onuradun baten ondorengotza hartzen badu beste erakunde batek kasuan kasuko eskumenak betetzeko, bigarrena lehena- ren eskubide eta betebeharretan subrogatuko da Toki Inbertsioen Planari dagokionez.

2. Inbertsioen titulartasun aldaketak Toki Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiaren ebazpen baten bidez eginen dira, justifikatzeko txostena egin ondoren betiere.

**28. artikulua.** Jarraipena.

Toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiko Toki Azpiegituren Zerbitzuari ahalmena ematen zaio egiaztapen eta jarraipen lanak egiteko eta toki erakunde onuradunei beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatzeko, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 1eko 39/2015 Legearen xedatutakoarekin bat.

### III. TITULUA

#### Determinazio Libreko Programa

**29. artikulua.** Determinazio Libreko Programaren izaera.

Toki Inbertsioen Planeko determinazio libreko atalari dagokion ekarpenak, hurrengo artikuluan aurreikusitakoaren arabera banatzen direnak, toki erakunde onuradun bakoitzak, bere toki autonomiaz baliatuz, erabakitzen dituen inbertsioen finantzaketari atxikiko zaizkio.

**30. artikulua.** Onuradunak eta zenbatekoen banaketa.

1. Determinazio Libreko Programaren onuradunak Nafarroako udalerririk guztiak izanen dira, bakoitzak diru kopuru bat jasoko baitu, dagokiona biz-

tanle kopurua eta biztanleguneen sakabanaketa geografikoakoa kontuan hartuz eta urte bakoitzean funtsak duen zuzkiduraren arabera, foru lege honen IV. eranskinean ezarritako banaketa irizpideak aplikatuta.

2. Udalerrri konposatueta, kontzejuak dagozkien ekarpenen zuzeneko onuradunak izanen dira. Horretarako, udalerrri konposatupei esleitutako zenbateko osoaren zati bat kenduko da, IV. eranskinean ezarritakoarekin bat, salbu eta kontzejuak adosten badute beren udalerriarekin udalerrria izatea diru-kopuru horien jasotzaile eta onuradun.

Azken kasu horretan, toki erakunde interesdunek horren berri eman beharko diote toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiari, hilabeteko epean, artikuluko honen 3. apartatuan aipatutako ebazpena argitaratzen denetik hasita.

3. Ekitaldi bakoitzaren lehen hiru hilabeteetan, toki administrazioaren arloko zuzendaritza nagusiaren ebazpen baten bidez, udal eta kontzeju onuradunen eta jaso behar dituzten zenbatekoen zerrenda onetsiko da.

2022. ekitaldian, ebazpen hori onetsi beharko da 2 hilabeteko epean foru lege honek indarra hartu eta biharamunetik hasita.

4. Zenbatekoak ekitaldi bakoitzaren bigarren hiru hilabeteetan ordainduko dira.

### **31. artikulua.** Jasotako ekarpenen kontrola.

Toki erakunde onuradunek jasotako ekarpenen aurrekontu eta kontabilitate kontrola egin beharko dute, ekitaldi bakoitzean zehazteko inbertsioen finantzaketan erabili den zenbatekoa eta, halakorik bada, erabiltzeko dagoena, zeina aurrekontuaren likidazio espedientean agertu beharko baita.

Jaso diren ekitaldia ixtean finantzatu beharreko gastu proiektuetan erabili ez diren ekarpenak diruzaintzako gerakinean sartuko dira, baliabide atxikiaren izaerarekin, zeina hurrengo ekitaldietan inbertsioak egiteko erabili beharko baita.

Toki erakunde onuradunak beharturik egonen dira eskatzen zaien informazio guztia ematera eta toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiaren iritziz egin beharreko egiaztapen eta jarraipen lan guztiak onartzera.

### **Lehen xedapen gehigarria.**

Kapital-transferentzien funtseko ekarpenak, arau honetan arautzen direnak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legaren eta hura garatzen edo ordeztzen duten xedapenen

aplikazio esparrutik kanpo daudela deklaritzen da berariaz.

### **Bigarren xedapen gehigarria.**

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio etorkizuneko plangintza-aldietan inbertsio-lerro berri bat txertatzeko, argiteria publikoari buruzkoa, toki-programazioko apartatuaren barrenean. Horretarako, onetsi eginen dira finantzatzeko modukoak diren obrak eta inbertsio-premiaren norainokoa zehaztuko dituzten irizpideak, gehieneko finantzaketa-portzentajeak, laguntzeko moduko zenbatekoaren kalkulu-oinarria eta toki-erakunde bakoitzeko ekarpenaren mugak.

### **Lehen xedapen iragankorra.**

1. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoa galaziti gabe, foru lege honen indarraldia helduko da Toki Inbertsioen Plana arautzen duen foru lege berri bat onesten den arte, eta haren araubidepean egonen dira Inbertsio Programen, Toki Programazioaren eta Determinazio Libreko Programazioaren ataletan aldi horretan egiten diren denbora-plangintza eta jarduketa berriak, bai eta plangintza eta jarduketa horiei dagozkien gastu-konpromisoen baimentzea eta egozpena eta ordainketa-betebeharren egitea.

### **Bigarren xedapen iragankorra.**

Baldin, toki-administrazioaren alorreko zuzendaritza nagusi eskudunaren ebazpen baten bidez, Foru lege honen indarraldia hasi baino lehen inbertsio batzuk jo badira aurrekontu esku-ragarriaren kargura finantzatzeko modukotzat eta Toki Inbertsioen 2017-2019 Planean sartzeko modukotzat, izapidetu eta ebatziko dira 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeak ezartzen duenari jarraikiz.

Foru lege honen indarraldiaren hasiera-eguna baino lehenago aurkezturiko larrialdiko eskaerak izapidetu eta ebatziak izanen dira 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeak ezartzen duenari jarraikiz. Azken arau hori halaber aplikatuko zaie larrialdikotzat kalifikaturiko obrak burutzeko beharrezkoak diren jarduera osagarriari, aipatu eskaeretatik eratorriak direnean.

Jarduketa horiei dagozkien baimena, gastu-konpromisoen egozpena eta ordainketa-betebeharren egitea finantzatzeko dira Toki Inbertsioen Planeke kredituen kargura, kreditu horiek handituta aurreko ekitaldietako diruzaintza-gerakin atxikiarekin, foru lege honetako 3 eta 4. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indarrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetako lehenengoa.**

Toki administrazioaren arloko eskumena duen zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio foru

lege honetan ezarritakoa aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.

**Azken xedapenetako bigarrena.**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

**I. ERANSKINA.****Zenbatekoen hasierako banaketa Inbertsio Programetan eta Toki Programazioan**

Inbertsio Programetan eta Toki Programazioan, zenbatekoen banaketa ehuneko hauen arabera eginen da hasiera batean:

Inbertsio Programak	
Uraren goi-hornidura	% 80
Hiri hondakinen tratamendua	% 19
Uraren goi-horniduraren inguruko azterketak eta proiektuak	% 1
Toki Programazioa	
Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak	% 30
Zoladura-lanak sareekin	% 32
Sarerik gabeko zoladura-lanak	%12
Zeharbideen urbanizazio-lanak	% 8
Udal eta kontzejuetako zuzkidurak	%18

**II. ERANSKINA**

**Zenbateko lagungarria kalkulatzeko oinarria eta gehieneko ekarpenaren mugak, toki erakunde bakoitzeko, Toki Programazioaren atalean**

**1. Zenbateko lagungarriaren kalkulurako oinarria.**

**A.** Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak:

Diruz lagungarriak izanen dira honakoak: hodiak, obra zibila, fabrikako obrak, pieza bereziak, balbulak, bentosak, hidranteak, presio-multzak, ur-harguneak, zorrotanak eta instalazioaren funtzionaltasuna bermatzen duten gainerako elementuak, bai eta behin-behineko sareak jartzea eta ukitutako ondasun eta zerbitzuak lehengoratzeara ere.

Diruz lagungarriak izanen dira, halaber, berritutako sarearen efizientzia hobetzen duten jarduketak, sektORIZAZIOA ezartzea, kasu, 30 urtetik gorako kontagailuak berritzea; kontagailuak paratzea halakorik ez badago; emari, presio eta kloro neurgailuak; presioa erregulatzeko elementuak; teleaginduak, erregistroak jaso eta transmititzeko elementuak; beharrezkoak diren ekipoak jartzeko behar den obra zibila, eta, oro har, kudeaketa efizientea ziurtatzeko helburuarekin sarearen diagnostikoa egiteko behar diren elementu guztiak.

Era berean, diruz lagungarriak izanen dira hiri drainatze jasangarrirako jarduketak osagarri guztiak.

Trazadura orokorrak eta banakako deribazioek edateko uraren kontsumorako eskariari eta sanea-

menduko instalazioei erantzunen diete bizitegitarako eraikinetako etxebizitzetan eta bulegoetan, industriako edo erabilera tertziarioko eraikinetan, salbu eta baratzeetan eta erantsiak dituzten eraikinetan, eta aurri-egoeran edo zerbitzuz kanpo dauden eraikinetan. Ez dira diruz lagungarriak izanen industrialdeetako eta merkataritzaguneetako sareak eta lur partikularren gaineko banakako deribazioak, ez eta, oro har, interes partikular hutseko sare guztiak ere.

Eskaerarik ez badago sareetako obrekin batera zoladura-lanak sareekin egiteko, zenbateko lagungarrietan sartuko da zangak lehengoratzeari dagokiona.

**B.** Zoladura-lanak sareekin.

Diruz lagungarria izanen da zoladura zurrinak edo malguak egitea, telekomunikazioen eta argindarraren etxeko hornidurarako eta argiteria publikorako lur azpiko kanalizazioen obra zibila, ukitutako instalazioak lehengoratzeari eta eustormak, betiere baldintza hauekin:

a. Fatxaden artean edo lerro eraikigarrien artean, batez besteko zabalera 8 metrokoa edo txikiagoa duten bideak: diruz lagungarria izanen da bidearen zabalera osoa, salbu eta zoladura egoera onean badago eta sareetako obra finantzagarriek oso ukipen txikia eragiten badiote. Halakoetan, sareen berrikuntzak ukitzen duen kalearen zatia baizik ez da finantzatuko.

b. Fatxaden artean edo lerro eraikigarrien artean, batez besteko zabalera 8 metrotik gorakoa duten bideak: diruz lagungarria izanen da bidearen zabalera osoa, zoladura egoera txarrean edo txar samarrean badago, telekomunikazioen eta

argindarraren etxeko hornidurarako eta argiteria publikorako lur azpiko kanalizazio obrak proiektatzen badira eta/edo sareak berritzeko obrek ukipen nabarmena eragiten badute zoladuran. Zoladura egoera onean dagoenean eta sareetako obra finantzagarriek ukipen txikia dutenean haren gainean, sareen berrikuntza lanek ukitutako kalearen zatia baizik ez da finantzatuko.

Zoladura mota	Galtzadaren gehieneko kostua euroak/m <sup>2</sup>	Espaloi gehieneko kostua euroak/m <sup>2</sup>
Zoladura-lanak "interes kultureko ondasun" deklaraturako alde zaharretan	135	201
Zoladura-lanak garrantzi historiko artistikoa duten alde zaharretan	108	143
Gainerako hiriguneak	50	76

Espaloiaren kostu unitarioa soilik aplikatuko da galtzada eta espaloia fisikoki bereizirik daudenean. Ez da aplikatuko galtzada eta espaloia kota berean daudenean eta eraikuntzako sekzio bera dutenean.

Galtzada eta espaloietako metro koadroko kostu unitarioan ez dago sartuta aurreko zoladura eraisteko lanen kostua.

Zenbateko lagungarria kalkulatzeko, eustormaren metro lineal bakoitzeko kostu unitarioan sartuta daude honakoak: hondeatze lana, zimenduak eta estradosa egiteko, zapata, kofratuak, altxaerak, iragazgaiztea, drainatzea, betelanak eta akaberak; kostua ez da zenbateko hauetatik gorakoa izanen:

Hormaren altuera	Gehieneko kostua euroak/metroa
Metro bateko altuera bitarteko hormak	370
Metro eta erdiko altuera bitarteko hormak	550
Bi metro bitarteko hormak	730
Bi metro eta erdiko altuera bitarteko hormak	910
Hiru metroko altuera bitarteko hormak	1.090

Hiru metrotik gorako altuerako hormetan, gehieneko kostu unitarioa 180 euro handituko da metro erdiko.

Telekomunikazioen eta argindarraren etxeko hornidurarako eta argiteria publikorako lur azpiko kanalizazioen obra zibilean sarturik daude honakoak: zangak zulatzea, hormigoizko betegarriak edo pikortsuak, sareak hedatzeko hodiak, seinalizazio elementuak, fabrikako obrak eta argiteria publikorako luminarien zutoinetarako zimenduak.

Diruz lagungarria izanen da barandak jartzea altueratik erortzeko arriskua mugatzeko edo ibilbi-

Zenbateko lagungarria kalkulatzeko, zoladuren metro koadro bakoitzeko kostu unitarioan sartuta daude honakoak: zabalgunea prestatzea, oinarria eta azpioinari pikortsu trinkotua, hormigoizko lauza edo asfaltozko errodaduraren geruza, akaberak, elementu osagarriak eta hiri drainatze jasangarrirako jarduketak; kostua ez da zenbateko hauetatik gorakoa izanen:

de irisgarriak errazteko, baldin eta egiten badira zoladuretako edo zeharbideak urbanizatzeko obra diruz lagungarri baten barruan, metro lineal bakoitzeko kostu unitarioa 120 eurokoa izanik gehienez ere.

Aipaturako prezio guztiak exekuzio materialari dagozkie.

### C. Zoladura-lanak sarerik gabe.

a. Eraikigintzak sendotutako hiri eremuetako jarduketetarako, diruz lagungarriak izanen dira honakoak: zoladura zurrinak nahiz malguak egitea, eustormak, altueratik erortzeko arriskua mugatzeko edo ibilbide irisgarriak errazteko barandak jartzea, hirigunean sortutako euri-urak biltzeko instalazioak edo hiri drainatze jasangarrirako sistemak eta ukitutako ondasun eta zerbitzuak lehengoratztea.

b. Eraikigintzak finkatutako hiri eremuetatik kanpoko bide publikoetako jarduketetarako, diruz lagungarriak izanen dira honakoak: zoladura berritzea, egokitzea edo sendotzea, barne direla euri-urak husteko jarduketak, zeharkako drainatze-lanak, zorrotzenak eta hormigoizko arekak, luiziak konpontzea eta lurrak finkatzea.

Ez dira diruz lagungarriak izanen hornidurarako eta saneamenduko sareei eragindako ukipenak, halakorik balego.

Zenbateko diruz lagungarria kalkulatzeko, zoladuren, hormen eta baranden kostu unitarioen mugak zoladura-lanak sareekin batera egiteko obren atalean aplikatutako berberak izanen dira.

### D. Zeharbideen urbanizazio-lanak.

Diruz lagungarria izanen da honakoak egitea: espaloiak, etxebizitza, etxabe, lokal eta garajeetarako sarbideak, aparkalekuetako zoladura, hornidurarako eta saneamenduko sareak berritzea, euri-



uren bilketa, telekomunikazioen eta argindarraren etxeko horniduretarako eta argiteria publikorako lur azpiko hodian obra zibila, ukitutako zerbitzuak lehengoratzeari, eustormak, barandak, hesiak edo babesak, oinezkoentzako pasabide goratuak eta seinale horizontalak nahiz bertikalak.

Obra diruz lagungarriaren kalkulua eginen da hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareen inbertsio lerroetan eta zoladurak sareekin batera egitekoetan adierazitakoarekin bat, aplikagarria den guztian.

Ez dira diruz lagungarriak izanen herri-lanen arloko eskumena duen departamentuak finantzagarriz hartzen dituen obrak, aplikatu beharreko araudiarekin bat.

#### **E. Udal eta kontzejuetako dotazioak.**

Obra diruz lagungarriaren kalkulurako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

a. Kirol erabilerrako eraikinak edo barrutiak: diruz lagungarriak izanen dira kirol arloko jarduera ludikorako eta jostetarako instalazioetan egiten diren inbertsioak.

Ez dira diruz lagungarriak izanen kirol lehiaketarako eremu espezifikotan egindako inbertsioak, igerilekuetan nahitaez bete beharreko araudiari dagokiona salbu.

b. Gizarte, kultura eta aisialdiko erabilera duten eraikinak edo barrutiak: diruz lagungarriak izanen dira biztanleguneko bizilagunen aisialdirako eta gizarte eta kultur harremanetarako erabiltzen diren titulartasun publikoko eraikin edo barruti hauetan egiten diren inbertsioak: zentro zibikoak, kultur etxeak, gaztelekuak, erretiratuentzako zentroak, ludotekak, liburutegiak, erabilera anitzeko lokalak (erakusketak, arte jarduerak, prestakuntza jarduerak eta antzekoak).

Ez dira diruz lagungarriak izanen batez ere aisialdirako elkarte edo ostatu gisa erabiltzen diren lokaletan egiten diren inbertsioak.

c. Erabilera anitzeko eraikinak: diruz lagungarriak izanen dira aurreko apartatuan azaldutako erabilerrerako batzuetarako erabiltzen diren eraikinetan egindako inbertsioak.

d. Hilerria: diruz lagungarriak izanen dira handitzeko edo erreformatzeko obretarako inbertsioak, eragiten dietenak itxiturei, kanpoko nahiz barruko urbanizazioari, barruko argiteriako instalazioei, hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako instalazioei eta eraikin osagarriari.

Ez da diruz lagungarria izanen nitxoak eta kolunbarioak jartzea.

e. Alokatzeko etxebizitzak: diruz lagungarriak izanen dira etxebizitza ohiko bizileku izateko inbertsioak, alde batera utzita erabilera turistikoak.

f. Udaletxea: diruz lagungarriak izanen dira erabilera hauetarako lokaletan egiten diren inbertsioak: alkatetza, kontu-hartzaitza eta idazkaritzako bulegoak, hautetsien eta udal taldeen bulegoak, bilkura aretoa, bulegoak, jendeari arreta emateko eremuak, artxiboa, biltegia, komunak, udaltzaingoaren lokalak eta nahitaezko zerbitzuak ematearekin zerikusia dutenak.

g. Kontzeju-etxea: diruz lagungarriak izanen dira lokaletako inbertsioak, horiek erabiltzen badira kontzejuko batzordeak bilerak egiteko, bulego administratibo, artxibo, biltegi eta komunetarako.

Ekipamenduak ez dira diruz lagungarriak izanen.

#### **F. Ukipenak.**

Obrek ukitutako lurren kudeaketarako laguntza teknikoaren gasturako zenbateko diruz lagungarria ez da 130 euro baino handiagoa izanen okupatutako finka bakoitzeko, BEZik gabe.

### **2. Ekarpenaren mugak toki erakunde bakoitzeko.**

Toki Inbertsioen Planeko Toki Programazioko inbertsioei esleitutako baliabideek lurraldean banaketa egokiagoa izan dezaten, gehieneko ekarpen ekonomikoaren muga hauek ezartzen dira inbertsio lerro bakoitzean eta plangintza aldi bakoitzerako:

**A. Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak.**

Toki erakunde bakoitzeko, gehieneko ekarpen ekonomikoa ez da izanen haren populazio tarteari eta hornidura eta saneamendu zerbitzua ematen duen erakunde motaren arabera dagokion zenbatekoa baino handiagoa:

Populazio tartea	Euroak mankomunitateko
1.000 biztanle bitarte	400.000,00
1.001 eta 7.000 biztanle artean	700.000,00
7.001 eta 35.000 biztanle artean	900.000,00
35.001 eta 100.000 biztanle artean	1.200.000,00
100.000 biztanle baino gehiago	1.500.000,00

  

Populazio tartea	Euroak mankomunatu gabeko erakunde bakoitzeko
1.000 biztanle bitarte	200.000,00
1.001 eta 5.000 biztanle artean	350.000,00



5.001 eta 10.000 biztanle artean	500.000,00
10.001 eta 25.000 biztanle artean	600.000,00
25.000 biztanle baino gehiago	800.000,00

Ondorio horietarako, kontuan hartuko da zerbitzua ematen duen toki erakundearen populazio zifra ofiziala foru lege honen 16. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den ebazpena argitaratzen den egunean. Mankomunitateen kasuan, mankomunitateek zer udalerriri ematen dieten zerbitzua, udalerriri horietako populazioaren kopuru osoa hartuko da kontuan.

#### B. Zoladura-lanak sareekin.

Toki erakunde bakoitzeko gehieneko ekarpena bat etorriko da obra diruz lagungarriaren kalkulua-zenbatekoarekin.

#### C. Zoladura-lanak sarerik gabe.

Toki erakunde bakoitzeko gehieneko ekarpen ekonomikoa ez da 160.000 eurotik gorakoa izanen.

#### D. Zeharbideen urbanizazio-lanak.

Toki erakunde bakoitzeko gehieneko ekarpen ekonomikoa ez da 600.000 eurotik gorakoa izanen.

#### E. Udal eta kontzejuetako dotazioak.

Toki erakunde bakoitzeko gehieneko ekarpen ekonomikoa ez da izanen 160.000 euro baino gehiagokoa, salbu eta alokatzeko etxebizitzak birgaitu edo erreformatzeko inbertsioen kasuan, gehienekoa 60.000 eurokoa izanen baita toki erakunde bakoitzeko.

### 3. Toki erakunde bakoitzeko kostu unitarioen eta mugen aldaketa.

Eranskin honetan toki erakunde bakoitzeko jasotzen diren kostu unitarioak eta mugak eguneratzen ahalko dira, bidezkoa bada, foru lege honen 16. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den ebazpenean.

## III. ERANSKINA

### Toki programazioko eskaerak hautatu eta lehenestea

#### 1. INBERTSIORAKO BEHARRAREN MAILA ZEHAZTEA (IBM)

Inbertsiorako beharraren maila (IBM) irizpide orokor hauen arabera zehaztuko da, obra mota kontuan hartuz:

#### Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak:

Inbertsiorako beharraren maila (IBM) zehaztuko da sarearen gorabeheretan eta sarearen bera- ren ezaugarrietan oinarrituta.

- Hauek hartzen dira gorabeheratzat: ihesak egotea, kutsadura arazoak eta presio gutxiegi edo gehiegi izatea hornidura sarean, gehiegizko emariak hondakin uren araztegietan sortutako disfunzioak, ur beltzen isuriak ur-ibilgura, saneamendu sareko buxadurak eta zerbitzuaren funtzionamendu egokiari eragiten dioten beste batzuk.

- Sarearen ezaugarriei dagokienez, kontuan hartzen dira antzinatasuna, material mota eta haren kontserbazio egoera, hodian sekzioak eta sarea bateratua edo bereizlea den.

Euri-uretako sareetarako inbertsioak egiteko eskaerak daudenean, hornidurako eta saneamenduko sareetako inbertsioekin batera egin beharrekoak eta toki erakunde batek baino gehiagok aurkeztuak, biei inbertsiorako beharraren maila (IBM) bera emanen zaie.

#### Zoladura-lanak sareekin:

Zoladura-lanak sareekin egiteko obretan, inbertsiorako beharraren maila (IBM) izanen da harekin batera gauzatu beharreko sareen inbertsioari esleitu zaion berbera.

#### Sarerik gabeko zoladura-lanak:

Inbertsiorako beharraren maila (IBM) zehaztuko da kontuan hartuz zoladuraren egoera, erabile- raren intentsitatea eta irisgarritasun faltarekin lotu- tako arazoak eta segurtasunerako arriskuak. Hormen kasuan, egituraren egonkortasunari dagozkion arriskuak baloratuko dira.

#### Zeharbideen urbanizazio-lanak:

Inbertsiorako beharraren maila (IBM) zehaztu- ko da bi parametro hauen arabera:

- Irisgarritasunari eta oinezkoen segurtasunari eragiten dieten alderdiak, hala nola espaloien ego- era edo espaloirik ez izatea, trafikoaren inten- tsitatea, errepide mota, bidearen zabalera eta oinezkoan zirkulazioa, besteak beste.

- Hornidura eta saneamenduko sareen egoera, sareko gorabeherak eta sarearen ezaugarriak baloratuz, hornidurako, saneamenduko eta euri- uretako sareen inbertsio lerrokoen balorazioaren antzera.

**Udal eta kontzejuetako zuzkidurak:**

Inbertsiorako beharraren maila (IBM) zehaztu-ko da parametro hauen arabera:

- Kasuan kasuko eraikinaren edo barrutiaren segurtasunaren, bizigarritasunaren eta funtzionamenduaren gaineko ukipenak, Eraikgingintzaren Kode Teknikoa edo nahitaez bete beharreko beste araudi bat ez betetzeagatik.

- Erreformaren xede den eraikina erabiltzeko baldintzak.

- Eraikin edo barrutiaren ezaugarriak: antzinatasuna, eraikuntza mota, guneen barruko banaketa, materialak, instalazioak eta kontserbazio egoera orokorra.

- Eraikinak egiteko obra finantzarriak, foru lege honen 14. artikuluko 1. apartatuko E a letran aipatzen direnak, premiazkotzat hartuko dira.

- Inbertsio finantzarrietan behar maila desberdina duten jarduketak daudenean, inbertsioari aurrekontu ehuneko handiena dakarren behar maila ezarriko zaio.

## 2. JARDUKETEN SAILKAPEN OROKORRA, INBERTSIORAKO BEHARRAREN MAILAREN ARABERA:

Ondoren, inbertsio lerro bakoitzerako jarduketan sailkapen orokor bat zehazten da, inbertsiorako beharraren maila oinarri hartuz egina. Sailkapen hori zabaltzen eta zehazten ahalko da 16. artikuluko 1. apartatuan adierazitako ebazpenean, eranskin honen 1. atalean zehazten diren irizpideekin bat:

**Hornidurako, saneamenduko eta euri-uretako sareak:**

## a. Premiazko inbertsioak:

- Hornidurako eta/edo saneamenduko sareak berritzea, 40 urte edo gehiagokoak, ihesak maiz izaten dituztenak.

- Saneamenduko sareak berritzea, kutsadura arazoak maiz izaten dituztenak sareen egoeraren ondorioz.

- Saneamenduko sareak berritzea, araztegitan eta/edo sareetan disfunczio larriak eragiten dituztenak, ur-ibilgura doazen isurketak maiz sortuz.

- Hornidurako eta/edo saneamenduko sareak berritzea, egoera txarra orokorra denean, hodiekin narriadura larria izateagatik.

- Hornidurako eta/edo saneamenduko sareak berritzea, bestelako gorabehera larriak dituztenak.

b. Epe laburrean beharrezkoak diren inbertsioak:

- Hornidurako eta/edo saneamenduko sareak berritzea, 40 urte edo gehiagokoak, ihesak noiz edo behin izaten dituztenak.

- Saneamenduko sareak berritzea, kutsadura arazoak noiz edo behin izaten dituztenak sareen egoeraren ondorioz.

- Saneamenduko sareak berritzea, araztegitan eta/edo sareetan muntako disfunczioak eragiten dituztenak, ur-ibilgura doazen isurketak noiz edo behin sortuz.

- Hornidurako eta/edo saneamenduko sareak berritzea, egoera txarra orokorra denean, hodiekin muntako narriadura izateagatik.

- Hornidurako eta/edo saneamenduko sareak berritzea, muntako beste gorabehera batzuk dituztenak.

- Euri-uretako sareak berritu edo paratzea, hiri lurzoruan sortzen diren jariatze-urak husteko nahikoa gaitasun hidraulikoa ez duten hodiekin dituzten herrietan, horrek uholdeak eragiten ahal dituen jendea bizi den tokietan.

## c. Komenigarriak diren obrak:

- Hornidurako eta/edo saneamenduko sareak berritzea, 30 urte edo gehiagokoak, ihes puntualak izaten dituztenak.

- Saneamenduko sareak berritzea, inoiz kutsadura arazo puntualak izaten dituztenak sareen egoeraren ondorioz.

- Hornidurako eta/edo saneamenduko sareak berritzea, egoera txarrean daudenean, hodiekin hondatuta daudelako.

- Saneamenduko sareak berritzea, araztegitan eta/edo sareetan disfunczio txikiak eragiten dituztenak, ur-ibilgura doazen isurketa puntualak sortuz.

## d. Lehentasunik gabeko obrak:

Aurreko kasuetan sartuta ez daudenak.

**Sararik gabeko zoladura-lanak:**

## a. Premiazko inbertsioak:

- Egoera txarrean dauden bide publikoak berritzea, eraikigintzak finkatutako hiri eremuetan, oinezkoentzat edo ibilgailu publikoentzat segurtasun edo irisgarritasun arazo larriak eragiten dituztenean.

- Egoera txarrean dauden bide publikoak berritzea, oinezkoentzat edo zerbitzu publikoetako

ibilgailuentzat segurtasun edo irisgarritasun arazo larriak eragiten dituztenean, bestelako sarbiderik ez badago.

- Eustormak, haien egonkortasuna kolokan dagoenean eta segurtasun arrisku larria dagoenean.

b. Epe laburrean beharrezkoak diren inbertsioak:

- Egoera txarrean dauden bide publikoak berritzea, eraikigintzak finkatutako hiri eremuetan, oinezkoentzat edo ibilgailu publikoentzat muntako segurtasun edo irisgarritasun arazoak eragiten dituztenean.

- Egoera txarrean dauden bide publikoak berritzea, oinezkoentzat edo ibilgailu publikoentzat muntako segurtasun edo irisgarritasun arazoak eragiten dituztenean, bestelako sarbiderik ez dagoenean.

- Oinezkoentzako ibilbideak egitea toki erakundeko bizilagunen interes orokorreko zerbitzuetako instalazioetan, oinezkoentzat muntako irisgarritasun edo segurtasun arazoak daudenean.

- Eustormak, eraikuntza arazoak dituztenak eta segurtasunerako muntako arrisku egoerak sortzen ahal dituztenean.

c. Komenigarriak diren obrak:

- Nola-halako egoeran dauden bide publikoak berritzea, eraikigintzak finkatutako hiri eremuetan, oinezkoentzat edo ibilgailu publikoentzat segurtasun edo irisgarritasun arazoak eragiten dituztenean.

- Nola-halako egoeran dauden bide publikoak berritzea, oinezkoentzat edo ibilgailu publikoentzat segurtasun edo irisgarritasun arazoak eragiten dituztenean, bestelako sarbiderik ez dagoenean.

- Toki erakundeko bizilagunen interes orokorreko zerbitzuetako instalazioetan oinezkoentzako ibilbideak egitea, oinezkoentzat irisgarritasun edo segurtasun arazo puntualak daudenean.

- Eustormak, egoera txarrean daudenak, egonkortasuna eta segurtasuna kolokan ez daudenean.

d. Lehentasunik gabeko obrak:

Aurreko kasuetan sartuta ez daudenak.

#### **Zeharbideen urbanizazio-lanak:**

a. Premiazko inbertsioak:

- Espaloirik gabeko zeharbideak.

- Segurtasun edo irisgarritasun arazoak sortzen dituzten espaloi etenak eta estuak dituzten zeharbideak.

- Segurtasun edo irisgarritasun arazoak sortzen dituzten espaloiak dituzten zeharbideak, beren atal espezifikoan premiazkotzat jotzen diren hornidurako eta/edo saneamenduko sareekin.

- Herri-lanen arloko eskumena duen zuzendaritza nagusiarekin hitzarmen bat izenpetua duten zeharbideak.

b. Epe laburrean beharrezkoak diren inbertsioak:

- Muntako segurtasun edo irisgarritasun arazoak sortzen dituzten espaloiak dituzten zeharbideak.

- Beren atal espezifikoan premiazkotzat edo epe laburrean beharrezkotzat jotzen diren hornidurako eta/edo saneamenduko sareek ukitutako zeharbideak.

c. Komenigarriak diren obrak:

- Segurtasun edo irisgarritasun arazo txikiak sortzen dituzten espaloiak dituzten zeharbideak.

- Komenigarritzat jotzen diren hornidurako eta/edo saneamenduko sareek ukitutako zeharbideak.

d. Lehentasunik gabeko obrak:

Aurreko kasuetan sartuta ez daudenak.

#### **Udal eta kontzejuetako zuzkidurak:**

a. Premiazko inbertsioak:

- Erabilera anitzeko zentro, udaletxe edo kontzeju-etxe gisa erabiliko diren eraikinak egiteko obrak, halako instalaziorik ez duten toki erakundetan edo, izanik ere, horiek birgaitzearik ez dagoenean arrazoi tekniko edo ekonomikoengatik.

- Eraikinaren egonkortasuna kolokan jartzen duten egitura arazoak konpontzeko inbertsioak.

- Erabilera publikoko barrutietan irisgarritasun arazo larriak konpontzeko inbertsioak.

- Araudiaren ez-betetze larriak konpontzeko inbertsioak igerileku eta hilerrietan.

- Jarduera sailkatuen arloko araudiaren ez-betetze larriak konpontzeko inbertsioak.

- Udaletxe edo kontzeju-etxe gisa erabiltzen diren eta egoera txarra orokorra duten eraikineta-ko inbertsioak, egokitzapen funtzionaleko arazo larriak konpontzeko.

- Birgaitze energetikoko inbertsioak, erosotasun klimatikoaren aldetik arazo larriak eta oso efizientzia txikia dituzten eraikinen kontsumoak eta emisioak nabarmen gutxitzea ekarriko dutenak.

- Estankotasun arazo larriak dituzten teilatuak birgaitzea.

- Egokitzapen funtzionalaren aldetik arazo larriak dituzten eraikinak edo barrutiak handitzea.

b. Epe laburrean beharrezkoak diren inbertsioak:

- Birgaitze energetikoko inbertsioak, efizientzia txikiko eraikinen kontsumoak eta emisioak gutxitzea ekarriko dutenak.

- Erabilera publikoko barrutietan muntako irisgarritasun arazoak konpontzeko inbertsioak.

- Araudiaren muntako ez-betetzak konpontzeko inbertsioak igerileku eta hilerrietan.

- Jarduera sailkatuen arloko araudiaren muntako ez-betetzak konpontzeko inbertsioak.

- Kirol, gizarte edo kultur erabilera duten eraikinetako inbertsioak, egoera txarra orokorra denean, egokitzapen funtzionaleko muntako arazoak konpontzeko.

- Pilotalekuak estali eta/edo ixtea jendea bildu eta jarduerak betetzeko instalazio egokirik ez duten toki erakundeetan.

- Egokitzapen funtzionalaren aldetik muntako arazoak dituzten eraikinak edo barrutiak handitzea.

c. Komenigarriak diren obrak:

- Erabilera publikoko barrutietan irisgarritasun arazo txikiak konpontzeko inbertsioak.

- Araudiaren ez-betetze txikiak konpontzeko inbertsioak igerileku eta hilerrietan.

- Jarduera sailkatuen arloko araudiaren ez-betetze txikiak konpontzeko inbertsioak.

- Bakarkako inbertsioak, inguratzaile termikoa hobetzeko edo klimatizazio, argiteria edo ur bero sanitarioaren instalazioen energia efizientzia hobetzeko.

- Iturgintza eta saneamenduko instalazioetako inbertsioak, uraren erabilera efizienteagoa izateko.

- Egokitzapen funtzionalaren aldetik arazo txikiak dituzten eraikinak edo barrutiak handitzea.

- Kirol, gizarte edo kultura erabilera duten eraikinetako, kontzeju-etxeetako edo udaletxeetako inbertsioak, egokitzapen funtzionaleko arazo txikiak konpontzeko.

d. Lehentasunik gabeko obrak:

Aurreko kasuetan sartuta ez daudenak.

### 3. TOKI INBERTSIOEN PLANETAKO EKARPENEN BOLUMENAREN ADIERAZLEA (PEB) ZEHAZTEA:

Ekarpunen bolumenaren adierazlea toki inbertsioen azken bi planetako edo, hala badagokio, bi plangintza aldietako ekarpenekin kalkulatu da. Finantzarioki jasangarriak diren inbertsioen plana 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean sartuta dagoela ulertuko da.

Kontuan hartuko dira, batetik, bukatutako espedienteetako behin betiko ekarpenak eta, bestetik, abian diren espedienteetako gehieneko ekarpenak, inbertsioak sartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den eguna erreferentzia gisa hartuta.

Kontzeptu honetan, puntuazioa emanen zaio eskaera bakoitzari inbertsioaren onuradun den toki erakundearen arabera, hau da, inbertsioa gauzatuko den lurraldeko toki erakundea zein den kontuan hartuz, berezitasun hauekin:

- Mankomunitateek ez dute izanen esleituta PEB ekarpenen bolumenerako balio bereki bat, eta, horren orde, haien eskaerei aplikatuko zaie inbertsioa gauzatuko den lurraldeko toki erakundearena.

- Udal eraikinei eragiten dieten inbertsioak udalerriri esleitzen zaizkio, nahiz eta eraikina kontzeju baten lurraldean egon.

Per capita ekarpena kalkulatzeko, kontuan hartuko da toki erakundearen populazio zifra ofiziala, foru lege honen 16. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den ebazpena argitaratu aurreko urteko abenduaren 31koa.

## IV. ERANSKINA

Determinazio Libreko Programako banaketa irizpideak

Determinazio Libreko Programako zenbatekoa (CPLD) bi aldagairen arabera banatuko da:

A. POPULAZIOA: udalerrri bakoitzak zenbateko finko bat jasoko du (CPOB), haren populazio-tartearen arabera, taula honetan ageri den bezala:

Populazio tartea	Euroak udalerriko 2022. urtea	Euroak udalerriko 2023an eta hurrengo urteetan
99, gehienez	18.216,00	10.929,60
100 eta 499 artean	31.812,00	19.087,20
500 eta 999 artean	54.516,00	32.709,60
1.000 eta 1.999 artean	63.624,00	38.174,40
2.000 eta 2.999 artean	72.732,00	43.639,20
3.000 eta 4.999 artean	81.840,00	49.104,00
5.000 eta 9.999 artean	95.436,00	57.261,60
10.000 eta 29.999 artean	120.516,00	72.309,60
30.000 eta 199.999 artean	172.788,00	103.672,80
199.999 baino gehiago	294.888,00	176.932,80

2023rako ezarritako zenbatekoak hurrengo ekitaldian handituak izanen dira, Nafarroako Foru Komunitatearen aurreko ekaineko urtearteko KPI-Kontsumoko Prezioen Indizeari jarraituz.

Ondorio horietarako, kontuan hartuko da toki erakundearen populazio-zifra ofiziala, foru lege honen 30. artikuluan aipatzen den ebazpena argitaratu aurreko urteko abenduaren 31koa.

B. SAKABANAKETA: udalerrri konposatuak eta biztanlegune atxikiak dituzten udalerrri bakunek zenbateko gehigarria bat jasoko dute ( $C_{DIS}$ ), populazioaren sakabanaketa geografikoan oinarrituta.

Kontzeptu honetan banatu beharreko zenbateko osoa kalkulatzeko, Determinazio Libreko Programaren urteko zenbatekoari kenduko zaio populazio tartearen arabera banaketa egiteko behar den zenbatekoa, A atalean adierazitakoarekin bat.

$$C_{DIS} = C_{PLD} - C_{POB}$$

Populazioaren sakabanaketatik udalerrri bakoitzari dagokion zenbatekoa ( $C_{DIS-MUN}$ ) lortuko da sakabanaketari dagokion zenbateko osoa ( $C_{DIS}$ ) eta udalerrriaren sakabanaketa indizea ( $I_{DIS-MUN}$ ) biderkatuz.

$$C_{DIS-MUN} = C_{DIS} \times I_{DIS-MUN}$$

Udalerrriaren sakabanaketa indizea Herfindahl indizearen alderantzizkoan oinarrituta dago eta formula hau du:

$$I_{DIS-MUN} = \frac{\frac{1}{\sum_n^1 \left(\frac{P_n}{P_m}\right)^2}}{\sum_m^1 \left(\frac{1}{\sum_n^1 \left(\frac{P_n}{P_m}\right)^2}\right)}$$

Azalpena:

$P_n$ : udalerrri bati atxikitako biztanlegune bakoitzaren populazioa.

$P_m$ : biztanleguneak atxikiak dituen udalerrri bakoitzaren populazioa, Nafarroako Estatistika Institutuaren argitalpen ofizialaren arabera.

$n$ : udalerrri batek atxikiak dituen biztanleguneen kopurua

$m$ : biztanleguneak atxikiak dituzten udalerrrien kopurua

Toki erakunde bakoitzari dagozkion zenbatekoak kalkulatu ondoren, beharrezkoa baldin bada doikuntzaren bat egitea Determinazio Libreko Pro-

gramaren zuzkidura osora iristeko, doikuntza eginen da populazio handiena duen udalerriri populazioagatik dagokion zenbatekoa (CPOB) aldatuz, handitzeko edo txikitzeko.

Doikuntza horrek ez du esleitutako zenbatekoa %0,10 baino gehiago gutxituko.

Determinazio Libreko Programaren ekarpenen kalkulua kontzejuetarako

Udalerrri konposatu bakoitzari esleitutako ekarpenetik zati bat kenduko da, kontzejuen artean banatzeko. Udalerrri konposatu bakoitzeko kontzejuei dagokien zenbatekoa kalkulatzeko, kasuko udalerriri dagokion zenbatekoaren % 50 biderka-

tuko da udalerriko biztanleria osoaren gainean kontzejuetako bizilagunen kopuruak egiten duen proportzioarekin. Kontzejuei dagokien zenbatekoaren % 50 zati berdinetan banatuko da, udalerrri konposatuko kontzeju guztien artean. Gainerako % 50a kontzeju bakoitzeko populazioaren proportzian banatuko da. 2022an, kontzeju bakoitzak 3.000 euro jasoko du gutxienez, eta 1.800 euro 2023an eta hurrengo urteetan.

Kontzeju bakoitzari dagokion gutxienerako zenbatekoa lortuko da udalerrri konposatuari hasieran esleitu zaion ekarpenetik beharrezkoa den zenbatekoa kenduz, kasua bada”.



**V. ERANSKINA.**  
**Inbertsio Programei dagozkien jarduketan zerrenda**

**1. URAREN GOI-HORNIDURA**

<b>Plan Gidariaren eremua</b>	<b>Inbertsioa</b>
01: Bidasoa	Ur-biltegi berria Ezkurran
01: Bidasoa	Errotazar iturburuko ur-hargunea Doneztebeko ur-biltegiara
02: Urumea-Leitzaran-Araxes	Araztegi hobekuntzak, uraren goi-horniduraren sarea berritzea, iturburuak konektatzea eta harguneak babestea Leitzan
04: Larraun, Imotz, Basaburua, Atetz, Ultzama eta Lantz	Leazkueko hornidura
04: Larraun, Imotz, Basaburua, Atetz, Ultzama eta Lantz	Burutaingo ur-biltegia
04: Larraun, Imotz, Basaburua, Atetz, Ultzama eta Lantz	Gelbentzuko ur-biltegia
04: Larraun, Imotz, Basaburua, Atetz, Ultzama eta Lantz	Arrarasko goiko ur-biltegia
04: Larraun, Imotz, Basaburua, Atetz, Ultzama eta Lantz	Aitzarratetako hargunea hobetzea araztegiarako eta Iribas P3 putzua
04: Larraun, Imotz, Basaburua, Atetz, Ultzama eta Lantz	Etxalekuko ur-biltegia hobetzea
04: Larraun, Imotz, Basaburua, Atetz, Ultzama eta Lantz	Goi-horniduraren sarea berritzea eta urbanizazioa Iraizotzen
05: Urdalur	Iragazte sistema paratzea Irañetako ur-biltegiaren
05: Urdalur	Urdalurko adar nagusia luzatzea Irurtzuneraino
06: Iruñerria	Garruesko hornidura
06: Iruñerria	Usiko hornidura
06: Iruñerria	Zandioko eta Otsakaingo hornidura
06: Iruñerria	Konektatzea Ibargoiti eta Mendinuetako soluzioa, Itzagako Mankomunitatearena
06: Iruñerria	Goñiko ur-biltegia
06: Iruñerria	Uraren goi-hornidura hobetzea Atetzen (Izarbilgo hodia eta Eritze Atezko ur-biltegia)
07: Erdialdeko Pirinioak	Orbaizeta-Orbara hargunea eta konexioa berritzea
07: Erdialdeko Pirinioak	Uraren goi-hornidurako sarea berritzea Garraldan
10: Irati	Uraren goi-hornidurako sarea berritzea Biotzarin
10: Irati	Mendinuetako soluzioa, 8. fasea. Teleagindua eta telekontrola
11: Aragoi Garaia	Erregulazio putzua Kasedan
11: Aragoi Garaia	Lohien zentrifugatzailea eta araztegia hobetzea Zangozako Mankomunitatea
11: Aragoi Garaia	Xabierreko ur-biltegia
11: Aragoi Garaia	Zangozako Mankomunitatearen teleagindua eta telekontrola
12: Jurramendi	Amillaoko hornidura
12: Jurramendi	Lezaun-Errezuko hornidura
12: Jurramendi	Allingo hornidura - 1. eta 2. faseak
12: Jurramendi	Jurramendiko Mankomunitatearen teleagindua eta telekontrola eguneratzea
12: Jurramendi	Los Arcos-Vianako deribazioa hodia
<b>Plan Gidariaren eremua</b>	<b>Inbertsioa</b>
13: Errezu	Izarbeibarko Mankomunitatearen teleagindua eta telekontrola eguneratzea
13: Errezu	Muniain Gesalazko ur-biltegia
13: Errezu	Izarbeibarko Mankomunitatearen goi-horniduraren sarearen berritze partziala

<b>Plan Gidariaren eremua</b>	<b>Inbertsioa</b>
14-15: Erdialdea eta Arga Beherea eta Aragoi Beherea	Olorizko araztegia 100 l/s handitzea
14-15: Erdialdea eta Arga Beherea eta Aragoi Beherea	Pedrerako araztegia 100 l/s handitzea
14-15: Erdialdea eta Arga Beherea eta Aragoi Beherea	Zarrakazteluko ponpaketa
14-15: Erdialdea eta Arga Beherea eta Aragoi Beherea	Alesbesko adarra eta Cadreitako eta Alesbesko deribazioak
16: Hegoaldea	Valtierra Arguedasko araztegiko hobekuntzak
16: Hegoaldea	Virgen de la Cabezako ur-biltegi berria (Tutera)
16: Hegoaldea	Corellako hodi nagusiaren berritze partziala

## 2. HIRI HONDAKINEN TRATAMENDUA

<b>Inbertsioa</b>
Carcarko hondakindegiko 1. azpizeldako 3. fasea handitzea
Konpostaje planta berria biohondakinen tratamendurako Kantauriko arroan, Doneztebe aldean
Konpostaje planta berria biohondakinen tratamendurako Erdialdean, Tafallan



---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu publikotik amiantoa kentzeko protokoloa presta dezan.**

**OSASUN BATZORDEAK ONETSIA**

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2022ko martxoaren 8an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu publikotik amiantoa kentzeko protokoloa presta dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Gehienez ere hilabeteko epean eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean amiantoa kentzeko protokolo bat presta dezan, material hori eremu publikoan uzten den kasuetarako.

2. Informazio kanpainak bultzatzen herritarrek kontzientziazteko amiantoa behar den berme-

rik gabe erabili eta biltegitratzeak osasun publikorako eta ingurumenerako dakartzan arriskuez, bai eta hondakin horiek eremu publikoan, naturaguneetan edo baimendu gabeko beste edonon uztea legez kanpoko izateaz ere.

3. Eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua premiatzen da, amiantoa etxebizitza parketik kentze aldera, hilabeteko epean beharreko laguntzak abian jar ditzan, eta bi hilabeteko epean aktiba dezan Lan Osasunaren Planaren barnean prestatzen ari den Enpresetako Amiantoren Arreta Programa.

4. Nafarroan amiantoa kentzeari buruzko plan operatibo bat presta dezan, ekintza zehatzak, kronograma eta aurrekontu-konpromisoak zehaztuz".

Iruñean, 2022ko martxoaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren erabakia, zeinaren bidez izendatzen baita Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko martxoaren 10ean egindako bileran, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua-rekin bat, eta behar den gehiengoarekin, Francis-

co Javier Vera Donázar jauna izendatu du Nafarroako Foru Komunitateko Ararteko.

Iruñean, 2022ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Nafarroako Parlamentuak gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) izendatu beharreko patronatukide bat hautatzea.**

*HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko martxoaren 14an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) patronatukide bat hautatzeko hautagaiak aurkezteko

epea **2022ko martxoaren 24ko 17:30ak arte** luzatzea. (10-22/ELC-00002).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias